# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-03-18
EGUBAKOITZA
457. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM


## Ustezko hiltzaileak gaur deklaratuko du Bergaran



Irunen atxilotu zuten martitzenean, ustez Bergaran gizonezko bat labanaz hiltzeagatik | 5

Alemanian bizi diren debagoiendarren esperientziak jaso ditugu | 2



Oñatiko duatloia jokatuko da zapatuan, 15:30ean | 28



Oñatiko Udalak eguzki plakak herritarren eskura jarri ditu | 20




*No more boring fridays* deritzon kultura ekimena jarri dute abian Oñatiko Enpresagintza Fakultatean; unibertsitatea, ikasi eta ikertzeko lekua izateaz gain, leku bizia dela aldarrikatu gura dute. | 31

# EGUBAKOITZ GAUAK GIROTZEKO EKITALDIAK ANTOLATUKO DITUZTE MU-KO IKASLEEK

**Enpresagintzako irakasle eta ikasleak fakultate aurrealdean ekimeneko kartelarekin.**

ARANTZAZU EZKIBEL

## Bergarako Arrizuriaga parkea zabaldu egingo dute | 16

## Lanbide Heziketaren azoka, datorren astean | 5


ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38


# Lehenengo astean 6.230 kilo batu dituzte atez atekoarekin

Astebete da Antzuolan atez atekoa abiarazi zutela, eta 6.230 kilo batu dituzte. Hasierako egunetan herritarrek dudak izan dituzten arren, zerbitzuak aurrera egin ahala ez da arazo berezirik egon. Antzuolako erantzuna ikusita, Mankomunitateak gainontzeko herrietara zabaldu nahi du. | 4







# ALEMANIARA JOAN NINTZEN...

Europako herrialde aberatsena inoiz baino erakargarriagoa da hemengo gazteendako; hiru debagoiendarrek euren esperientzia kontatu digute

**FITXA**




ALEMANIAKO ERREPUBLIKA FEDERALA

**Populazioa:** 82.329.758 aleman.

**Barne Prod. Gordina (2009):** 2.816 (mila milioi dolar).

**'Per capita' errenta (2009):** 36.449 dolar.

**Langabezia tasa:** %7,3 (2011ko martxoa).

**LEIRE KORTABARRIA** | BERGARA

Alemania *agindutako lurra* izan da jende askorendako, hamarkadetan zehar. Eta, azken hilabeteotan, izaera mitiko antzeko hori indartu egin da, Angela Merkel kantzilerrak urtarrilean esan zuenetik Alemanian "Espainiako langabeendako lana" zegoela han. Ez ziren asmo soilak; hala, Alemaniak eskatuta, Alemaniaren eta Espainiaren enplegu zerbitzu publikoen arteko lankidetza estutu da. Helburua da Alemanian langile kualifikatuen premia duten sektoreak langilez asetzea: bereziki, Osasuna, Ingeniaritza, Irakaskuntza eta Turismoa-Ostalaritza. Datu batzuen arabera, 500.000 eta 800.000 enplegu kualifikatu artean bete gura dituzte.

Horren aurretik ere, hainbatek hartuta zuten Alemaniarako bidea. Hori da Xabier Gallego arrasatearraren, Nerea Menor bergararraren eta Maikel Sanchez antzuolarraren kasua.

**Alemana, ezinbestekoa**

Maikel Sanchez (antzuolarra, 25 urte) ikastera joan zen, baina orain lanean dihardu Alemanian. Alemaniar Filologia ikasi zuen, eta, gero, hainbat aldiz egon da Alemanian: 2006-2007 aldian Erasmus beka batekin, Berlinen; 2009-2010 aldian Dusseldorfen, beste beka batekin irakasle laguntzaile; eta iazko urria ezkero Berlinen dago. *Cultourberlin.com* enpresan dihardu turismo bisita gidatuak ematen. Hortaz, bi helburu bete ditu: "Hizkuntza hobetzea dut helburu nagusia; gainera, lan mundua ere hobeto dago orain Alemanian", esaten du. Gaineratzen duenez, hemen uste den moduan, "egia da herrialde aberatsa dela", baina "salbuespenak" daude: "Berlinek, adibidez, 6.500 milioi ditu kanpo-zorretan".

Berlin bera ere salbuespena dela diosku: "Berlin beste mundu bat da Alemania barruan. Oso hiri merkea da, gainera".

Maikel Sanchezi ere ailegatu zaizkio hemengo komentarioak eta zurrumurruak: "Bai, entzuten da jende askok Alemaniara etortzeko asmoa dutela. Hemen guztiek esaten dute gauza bera: guztiendako lanik ez dela egongo, eta alemana menderatzea oso garrantzitsua dela lana aurkitzeko". Hizkuntzaren gainean, esaten du "segun ze lan mota den" eskatzen dutela alemana menderatzea. Baina "Alemania burokraziaren herrialdea da, eta gai administratiboetarako ezinbestekoa da alemana ulertzea", ohartarazten du Maikelek.

**"Bilbo baino merkeagoa da"**

Alemaniako hiriburuan dago ere Nerea Menor (bergararra, 25 urte). "Hiru aldiz egonda nintzen Berlinen oporretan, eta asko erakartzen ninduen. Bizimodu ezberdinak ikusteko eta nire burua probatzeko balioko zuela pentsatzen nuen, eta hala da", diosku.

Pentsatu, eta egin: abuztuan joan zen hara, eta esaten du Bergarako "antzeko bizimodua" egiten duela: etxebizitza baten bizi da eta taberna baten lan egiten du astean hiru aldiz. Ondo egokitu den arren, "negua nahiko gogorra" egin zitzaiola onartzen digu: "Zero azpiko 13 gradura heldu ginen abenduan, baina iluntasuna hotza baino gogorragoa da: arratsaldeko lauretan gaua izatea nahiko zaila izan da niretako", esaten du. Horretaz kexatzen da ere Maikel antzuolarra.

Arlo praktikoan, hizkuntzak ere buruko minak eman dizkio Nereari: "Denbora behar da alemana menderatzeko, eta indargabe sentitu naiz askotan, ezin dudalako argi azaldu esan nahi dudana".

Bat egiten du Maikelekin Berlin "hiri merkea" dela esaten: "Alokairuak garestitu egin dira azkenaldian, baina Donostia edo Bilboren aldean, merkea da oraindik ere. Erosketak egitea ere merkea da".

Ekialdearen eta mendebaldearen artean "oraindik oso alde handiak" daudela esaten digu Nerea Menorrek: "Euskal Herrian, oro har Baviera bezalako zonaldeetan oinarritutako irudia dugu: bertan, enpresa handiak daude eta, dirudienez, ekonomia oso ondo dago. Ekialdeko egoera oso bestelakoa da: ez dago ia lanik eta ekonomia gaizki dago. Gazte gaitu asko mendebaldera abiatzen dira ikasketak bukatu ondoren. Berlinen ere, langabezia handia dago eta biztanleriaren zati handi bat gizarte-laguntzetaz bizi da". Hala ere, "garraio publikoa bikaina da (maiztasuna, prezioa…) eta zer esanik ez bidegorri edo bizikleta-bideak".

**10 euro medikura joateko**

Mendebaldean, Akisgranen, bizi da Xabier Gallego (arrasatearra, 23 urte). Portu, Ubide eta Bidee-

## Serioak baina umoretsuak, eta oso praktikoak

Alemaniako bizimodua, gauza batzuetan, oso desberdina da Euskal Herrikoarekiko. Adibidez, 12:00etan bazkaltzen dute eta 19:00etan afaldu, eta bi otorduok beroak oso familia gutxik egiten dituzte. Bestalde, neguan kaleko bizitza gutxi egiten da; 16:00ak inguru iluntzen hasten da. Familiari dagokionez, aiton-amonek ez dituzte umeak zaintzen gauza orokor moduan.

Lanean, asko baloratzen dituzte norbera antolatua eta puntuala izatea. Eta Xabier Gallegok hauxe dio: "Nahiz eta jendeak pentsatu alemanak serioak eta hotzak direla, hori ez da egia. Hasieran kosta egiten da elkar erlazionatzea, baina gero ohartzen zara badirela umoretsuak ere. Hori bai, oso praktikoak dira: gauzak esaterakoan ez dute zeharkako biderik egiten".

## Ingelesa ez da nahikoa Alemanian lan egiteko

Komunikabide batzuen arabera, Espainiako hizkuntza akademiak eta alemaneko irakasle partikularrak gainezka daude. Hala, Goethe Erakundeko arduradunek esan dute iazko sasoi berbera baino %24 matrikula gehiago dauzkatela aurten. Debagoieneko Mondralingua eta Koma akademiek, ordea, ohiko ikasle kopuru berbera dute aurten ere.

Dena dela, ingelesa ez da nahikoa Alemanian lan egiteko, eta ezta han unibertsitate edo goi mailako ikasketak bukatzeko ere. Azken lan eskaintzan zehazten da gutxienez B-1 eskatzen dela, eta B-2, kasu batzuetan.

Gazte alemaniar gehienek badakite ingelesez, baina heldu eta nagusi askok, ez. Ekialdean komunikatzeko, alemana ezinbestekoa da.

DATUA

**3,3**

MILIOI PERTSONA

Alemaniak %7,4ko langabezia tasa du, 3,3 milioi langabe. 1992ko martxoa ezkero dituen datu onenak dira.

## Begirada azkar baten

**LAN ESKAINTZA**
Europako Batasunaren lan-mugikortasun atariak, Eures-ek, kudeatzen ditu lan eskaintzak. Sarean: *www.redtrabaja.es.*

**LANGABEZIA**
Langabezia subsidioa kobratzen jarraitzeko, Espainiako Enplegu Zerbitzuan baja hartu behar du norberak, eta Alemanian E303 delako agiria eskatu. Hiru hilabetez ordainduko diote.

**KOTIZAZIOA**
Europako Batasuneko edozein herrialdetan lan egin dutenek euren jaioterrian eska dezakete, gero, kotizatutako zatia ordain diezaioten. Horretarako beste eskaera ofizial bat bete behar da.

**KULTURA**
Emakume haurdunei hiru urtean gorde behar dio enpresak lanpostu bat, baina ez derrigorrez lehengoa. 1. eta 2. umearengatik 184 euroko laguntza jasotzen du.

Denetariko soldatak daude; beti ez dira hemen baino hobeak, eta ekialdea nahiko pobrea da oraindik. %14,5 deduzitzen dute Gizarte Segurantzarako, baina medikuaren eta dentistaren bisita aparte ordaindu behar dira.

**GEHIAGO JAKITEKO...**
Europako Batasuneko edozein herrialdera joan nahi dutenendako, informazio praktiko asko dakar *europa.eu/index_es.htm* webguneak.

DATUA

**3.350**

EURO

Alemanian ez dago legezko gutxieneko soldata bat. Batez besteko errenta da hileko 3.350 euro gordin, Espainiaren bikoitza.



XABIER GALLEGO

### XABIER GALLEGO
AKISGRAN

"Hemengo unibertsitatean ikertzeko aukera gehiago dago, eta baliabide askoz ere gehiago. Lan aldetik, nik ez dut esperientziarik izan, baina ezagutzen dut jendea lan bila dagoena eta gutxienez soldatak askoz ere duinagoak dira lanean hasten zarenean, eta gehiago laguntzen dizute. Bestalde, nahiz eta pentsatu lan asko dagoela, hemen ere kostatzen da lana aurkitzea, gehiago ez baduzu hizkuntza menperatzen. Baina saiatzen denak azkenean aurkitzen du lana, hor ez bezala".



NEREA MENOR

### NEREA MENOR
BERLIN

"Merkelek esandakoari kasu handirik egin behar ez zaiola uste dut. Jende askok hona etorri eta bere aurrezkiak utziko ditu lana bilatu bitartean; agian esku-hutsik bueltatuko da etxera.
Beste herrialde batean bizi izateko gogoa izanez gero, animatu, merezi du-eta; baina soilik lan bila etortzea ez zait oso produktiboa iruditzen. Badirudi Alemania mendebaldean lan gehiago dagoela, baina han gastuak ekialdean baino askoz ere altuagoak dira".



MAIKEL SANCHEZ

### MAIKEL SANCHEZ
BERLIN

"Herrialde aurreratua da, ez teknika alorrean soilik, baizik eta beste puntu batzuetan ere, osasunean adibidez. Nire lagun batek orain dela gutxi izan zuen haurra Berlingo erditze-etxe batean, eta aukera asko zituen erditzeko: ohe handi bat, bainuontzi bat, aulki berezi bat eta emagin bat beraientzako bakarrik. Haurra izan eta gero, sei ordu egon ziren bertan. Erditu eta gero, bi astean emagin bat joaten zaie egunean birritan. Hori guztia derrigorrezko segurantzak ordaintzen du".

tako Ingeniaritzako 5. urtea egiten dabil Erasmus bidez Akisgranen, eta hiria "Euskal Herria baino merkeagoa" dela diosku.

Ikasle gisa, esaten du "Alemaniak ikasleak kontuan hartzen" dituela: "Adibidez, Unibertsitatean ikasten baduzu, ticket bat erosi behar duzu, eta horrekin musu-truk bidaiatu dezakezu garraio publikoan, eta jantoki unibertsitarioetan 2 euroren truke jan".

Alemaniako beste baldintza batzuetaz ere hitz egiten digu: "Hemen jendea oso gazte independizatzen da, laguntza ekonomikoak daudelako. Langabezian dagoen jendeari, nahiz eta ez kotizatu, etxebizitza ordaintzen diete eta gainera soldata extra bat. Gizarte Segurantza aldetik, kotizatu egiten da, eta medikura joan nahi baduzu 10 euro ordaintzen dituzu, eta horrek hiru hilabeterako balio du. Dentista ere Gizarte Segurantza barruan dago".

Maikelek, Nereak eta Xabierrek ez dute, oraingoz, itzuleradatarik. Maikelek ez daki noiz arte geratuko den, baina "argi" dauka "egunen batean Euskal Herrira bueltatuko" dela.

Nerea "oraingoz oso ondo" dago Berlinen. "Etxebizitzako kontratua abuztu bukaera arte dut eta hortik aurrera, ez dakit".

Xabierrek ikasketak bukatuko ditu lehenengo. "Hurrengo urtean, proiektua burutu, unibertsitatean bekadun ibili eta hizkuntzak landu, eta azkenik, lana topatzen hastea, hasieran urte batzuetarako, baina zeinek daki".

# Antzuolako atez ateko zabor batze sistemak oso datu onak lortu ditu

## Bilketa mota horrek hondakinak gutxitzeaz gainera zaborra ere jaitsi du

**DATUAK**

| | KILO / ASTE | % |
|---|---|---|
| **Organikoa** | 2.620 | 42,05 |
| **Errefusa** | 860 | 13,8 |
| **Papera/Kartoia** | 1.780 | 28,57 |
| **Ontzi Arinak** | 970 | 15,57 |

Ez dago beiraren daturik
Ez dira industria-guneko hondakinik zenbatzen.

**IMANOL GALLEGO** | ANTZUOLA

Atez atekoaren gaineko balorazioa egin dute Antzuolan. Emandako datuen arabera, errefusa baztertu ostean, astebetean Antzuolarrek %86 birziklatzea lortu dute. Bestalde, batutakoaren %42 materia organikoa da, esan dutenez, proportzioan Aretxabaletan bosgarren edukiontzi marroiarekin lortzen dena baino 4 aldiz gehiago. Hori dela eta, bai Antzuolako Udaleko ordezkariak bai Mankomunitatekoak ere, oso pozik azaldu dira lortutako emaitza oparoengatik. Antzuolako alkate Pedro Iturbek aipatu duenez, "denboraren poderioz, herritarrak arazo izan beharrean, irtenbidearen parte direla konturatu gara".



Antzuolako alkatea eta ingurumen zinegotzia, Ino Galparsoro Mankomunitateko lehendakariarekin. | IMANOL GALLEGO

**Astebete atez ate**

Martxoaren 7an ekin zioten Antzuolan atez ateko bilketari eta hasierako egunean egondako arazo puntual batzuk izan ezik, herritarrek kementsu ekin diote zabor bilketa sistema berri horri: orokorrean batutako hondakinak ondo bereiztuta zeuden eta errefusa, birziklatzen ez den materiala, nabarmen jaitsi da.

Lehen asteko datuak oso egonkorrak ez diren arren, dagoeneko Antzuolak eratu du zabor bilketa mota hau hobetuko duen herritarrez ostatutako komisioa. Eguaztenean egindako lehen batzarrera herritar asko hurbildu ziren eta dagoeneko zenbaitek komisioan parte hartzeko izena eman dute.

Atez atekoak autokonposta egiten dutenen kopurua gehitzea ekarri du, lau urtean 35 autokonposgailu egon diren bitartean, orain 160 daude. Horrez gainera, kalean zehar dauden zaborrak batu dituzte, eta hauetan ere hondakinak bereiztu beharko dira.

**Bailarara zabaldu**

Lehen aste honetako datuei begiratu ezkero, eta batik bat Aretxabaletakoekin alderatuz, atez atekoaren arrakasta argi gelditu da. Gauzak honela, Mankomunitateak zabor bilketa sistema hau gainontzeko herrietara zabaldu nahi du.

Hiru fase planteatu dituzte, Antzuola eta gero, Elgeta eta Bergara etorriko lirateke, ondoren, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga, eta azkenik, Arrasate. Oñati, oraingoz, kanpoan gelditurko litzateke hango Udala 5. edukiontziaren alde agertu da-eta. Datarik eman ez duten arren, zabalkunde plana bizkor jarri nahi dute martxan. Hala ere, hauteskundeek plan honen nondik norakoa markatuko dute, Mankomunitateko arduradunek azpimarratu dutenez.


MIRIAN BITERI

## Artzain Eskolako ikasleek titulua jaso zuten atzo

Itsasmendikoik Artzain Eskolako XIV. ikastaroari amaiera eman zion atzo Arantzazun. Gandiaga Topagunean egindako ekitaldian, ikastaroan parte hartu duten 12 ikaslek makilak eta diplomak jaso zituzten. Horietako bost debagoiendarrak dira: Oñatiko Mikel Arregi, Maialen Madina, Joseba Baseta eta Julen Elkoroiribe; eta Arrasateko Asier Akizu.

## Hilaren 23an egingo dute Huhezin 'Komunikaldiak' jardunaldia

**MIRIAN BITERI** | ESKORIATZA

Eskoriatzako Huhezin egingo dute *Komunikaldiak* izeneko jardunaldiaren 6. edizioa, hilaren 23an. Horretarako izenematea zabalik dago; interesa dutenek 943 71 41 57 telefono zenbakira deitu behar dute, edo *harrera.huhezi@mondragon.edu* helbidera mezu bat bidali. Matrikulak 25 euro balio du.

Jardunaldian egile eskubideak izango dituzte aztergai. 09:00etan hasiko da, Mondragon Unibertsitateko errektore Josu Zabalaren agurrarekin. Jarraian, *Eskubide digitalak, kultura eskubidea, sormen eskubidea, guraso eskubideak* izeneko hitzaldia egingo du Luistxo Fernandez *software* librean aditua. 11:00etan, EAEko SGAEko zuzendari Ignacio Casadok jabetza intelektualaz eta egile -eskubideez jardungo du. Bazkaldu aurretik, jabetza intelektualean eta informatika zuzenbidean aditu David Bravok Interneten kultura trukaketaren gainean egingo du berba.

Arratsaldean, 15:30ean, egile eskubideak euskal kulturari zelan eragiten dion aztertuko dute Bertsozaleen, Gipuzkoako Argazkilarien eta Euskal Idazleen elkarteek.

## Ezenarrok abertzaletasunaren etorkizunaz berba egin zuen

**IMANOL GALLEGO** | ARETXABALETA

Aintzane Ezenarro Aralarko Legebiltzar taldeko bozeramaileak *Abertzaletasunaren erronka* izenburuko hitzaldia egin zuen eguaztenean Aretxabaletan. Abertzaleek etorkizun ertain eta luzean dauzkaten erronkak zeintzuk diren azaltzearekin batera, etorkizuneko ezker abertzale "zibil, zabal eta plurala" osatzeko jarraitu beharreko pausoez eta subjektu politiko horren ezaugarriez aritu zen.

Hark uste duenez, "epe ertain edo luzean" posible izango da ezker abertzalea osatzen duten sentsibilitate politiko guztien artean subjektu politiko bat egituratzea.

Horrez gainera, euskal politikagintzako egoera berriaz eta bakerako dauden aukerez ere aritu zen. "Bakea herrietan eraiki behar da", azpimarratu zuen. "Bakea ez da politikagintzako edo gizarteko eliteetan egiten. ETAk inor gehiago ez hiltzea ez da nahikoa, legalizazioarekin eskubide politikoak berrezartzea nahikoa ez den neurrian, edota presoen gaian aurrerapausoak ematea nahikoa ez den neurrian". Ezenarroren ustez, herrietan aldatu egin behar dira jarrerak.


Aintzane Ezenarro eta Aretxabaletako alkate Inaxio Garro. | JULEN IRIONDO

# 'Mallorca'-ren ustezko hiltzaileak gaur deklaratuko du Bergaran

## Atzo ekarri zuten eta Bergarako komisaldegian eman du gaua

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Bergarako komisaldegian eman du gaua Domingo izenez ezagutzen den portugaldarrak; Miguel E.R *Mallorca*-ren ustezko hiltzaileak. Eta gaur, egubakoitza, goizean deklaratuko du Bergarako epaitegian.

Martitzean atxilotu zuen ertzaintzak Irunen, bere pisukidea zen *Mallorca* ezizendun gizomezkoa Bergarako San Antonio kalean partekatzen zuten etxebizitzan ustez labanaz hil eta errekara bota ostean.

Ertzaintzak atzo, eguena, ekarri zuen ustezko hitzailea Bergarako epaitegira, San Antonio auzoan zapatuan gertatu zenaren inguruan deklaratzeko. Hala ere, portuges itzultzailerik ez zegoela eta, deklarazioa bertan behera utzi behar izan zuten. Ondorioz, Bergarako komisariako ziegan igaro du gaua, eta gaur goizean epailearen aurrera eramango dute berriz.

**Susmagarri nagusia**

Susmagarri nagusiak epailearen aurrean zer deklaratzen duen jakin arte ezingo zaio kargurik egotzi, baina datu guztien arabera, *Mallorca* labankadaz hiltzea egotziko diote. Biak pisukideak ziren eta auzokideek esan dutenez, bien arteko liskarrak ohikoak ziren.

Autopsiak adierazi duenez, *Mallorca*, labankada baten ostean ibaira bota zuten, eta zapatu goizean ibaiaren albo batean aurkitu zuen lekuko batek. Gauzak horrela, eta eta ihes egin zuela kontuan hartuta, Domingo da susmagarri nagusia.

Gaurko deklarazioaren ostean, epaileak hiltzailea bera izan daitekeela frogatzea lortzen badu, prozesuak Donostiara egingo du salto. Domingo presondegira eramango dute, eta hilabete batzuen bueltan, epaimahai popular baten aurrean epaituko dute.

Oraingoz, Bergarako komisaldegiko ziega baten lo egin ondoren, epailearen aurrera eramango dute eta han, Miguel E.R--rekin partekatzen zuen San Antonio auzoko pisuan zapatuan gertatutakoa eta ihesaldiaren arrazoiak argitu beharko ditu.



Ustezko hiltzailea daraman kotxea atzo epaitegira sartzen. | XABIER URTZELAI

# Debagoieneko Lanbide Heziketa ezagutarazteko azoka egingo dute hilaren 24an eta 25ean Kulturaten

M.B. | ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateak *Goiaz! 2011* lelopean egingo du hilaren 24an eta 25ean Debagoieneko Lanbide Heziketaren azoka. Horren helburua da bailarako ikasleei eta interesa duen orori formazioak orokorrean eta bereziki Lanbide Heziketak eskaintzen dituen aukeren berri ematea; eta, bide batez, eskualdeko eskaintza aurkeztea. Azoka Arrasateko Kulturateko klaustroan egongo da 09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 18:30era.

Aurtengo edizioan Lanbide Heziketako 10 zentrok parte hartuko dute, eta beste hainbat irakaskuntza zentrok, erakundek eta zerbitzuk. Ikastetxeen informazio-mahai, enplegu zerbitzu eta ekintzaileentzako zerbitzuez gain, bestelako hainbat ekimen ere egongo dira.

**Tailerra, hitzaldia eta antzerkia**

Azken horren harira, eguenean, martxoak 24, ekintzailetasun tailer irekia egingo dute Garaionen eskutik, 17:00etan. Aurretik izena eman nahi dutenek 943 79 30 90 telefono zenbakira deitu edo *debagoiena.goiaz@gmail.com* helbidera idatz dezakete; dena dela, azoka egunean ere eman ahalko da, Mankomunitatearen mahaian. Egun berean, 18:00etan, Debagoieneko Lanbide Heziketako eskaintza guztiaren gaineko informazioa eskainiko da hitzaldi baten bidez. Zentro bakoitzak 10 minutuan azalduko du berea. Jarraian, Torpedolevel antzerki taldeak umore puntua jarriko du Kulturateko areto nagusian.

Egubakoitzean, 09:30ean, ekintzaile gazteen esperientziak azalduko dituzte Ekitermik, Eko3R eta Alet Taldeak, areto nagusian. 11:00etan, atzerrian dauden eskaintzez jardungo dute toki berean. Arratsaldean, 17:00etan, itxiera jaialdia egingo dute; besteak beste, musika, grafiti eta malabareez gain, logotipo lehiaketaren sari banaketa egingo dute.

Beñardo Kortabarria | 'Teknopolis' saioko zuzendaria

# "Medio txiki bat gara eta honelako sariek oihartzun handia ematen digute"

## 'Teknopolis' saioaz gainera, 'Expansión' eta 'Cinco días' egunkariak ere saritu dituzte

IMANOL GALLEGO | ANTZUOLA



Beñardo Kortabarria. | B. KORTABARRIA

Elhuyar Fundazioak ekoiztu eta ETBk eta Goiena telebistak eman izan duten *Teknopolis* programako monografiko batek bioteknologiaren dibulgazio saria irabazi du. Saritutako dokumentalak seme-alabak izateko arazoak dituztenei buruz dihardu. Saritutako *Bizia laborategian ernaltzen denean* lanak hiru egile izan ditu, tartean Beñardo Kortabarria (Antzuola, 1962); harekin izan gara erreportaje horren inguruan berba egiteko.

**Nola aukeratu zenuten gai hau?**

Urteroko gaiak aukeratzeko hainbat bilera egiten ditugu, eta hortik atera genuen. Gaia oso interesgarria iruditu zitzaigun eta monografiko bilakatzea erabaki genuen. Urteroko gure saioaren barruan, zenbait gai era monografiko edo dokumental itxurarekin tratatzen ditugu, eta hau horietako bat izan zen.

**Kazetaritza zientifikoa egitea zaila da?**

Kazetaritza zientifikoak ospe hori dauka, baina ez nago ados. Kazetaritza ekonomikoarekin gertatzen den moduan, informazioa jaso ostean, ulertu eta ondoren ulergarri den eran azaldu behar da.

**Ondo egin duzuen seinale; izan ere, ulergarritasun horregatik jaso duzue saria.**

Itxuraz bai, epaimahaiak gure lanaren ulergarritasuna egokitzat hartu eta hori saritu du. Sorpresa handia izan zen, guk ez genuen horrelakorik espero. Jorratzen ditugun gaiak ahalik eta ulerterraz egiten saiatzen gara beti.

**Hortaz, sariaren kontua gero etorri zen?**

Bai. Gu ez gara oso sarizaleak, ez dugu sariengatik lan egiten. Egia da sariketen deialdiak jasotzen ditugula eta askotan gure lanak aurkezten ditugula, baina gure lanaren sena ez dira sariak. Guk, Elhuyar taldeak alegia, teknologia eta zientzia ezagutzera emateko asmoarekin egiten dugu lan.

**Lagundutako ernalketa tabutzat daukagu?**

Nik ez nuke tabu hitza erabiliko; egia da antzutasun arazoak dituzten bikoteek ez dutela horri buruz berba egiten, baina ez dut uste gai tabua denik.

**Arazorik izan zenuten erreportajean agertzen diren pertsonak topatzeko?**

Ez zen lan zaila izan. Medikuengana jo genuen eta berehala lortu genituen monografikoan lantzen diren bi kasuak. Gainera, oso gertukoak dira, lehen familia arabarra da eta bigarrena gipuzkoarra. Eurei esker, honelako teknika berritzaileen alde gizatiarra erakusteko aukera izan genuen.

**Saioa berreskuratzeko planik baduzue?**

Gure saioa astekaria da eta ez dugu errepikatzeko aukera handirik izaten; dena den, Aste Santuan ETBn monografiko hau berriro ikusteko aukera egongo da.

**"Ez gara oso sarizaleak, eta lantaldearentzat sorpresa izan zen"**

### Apirilaren 2an izango da 'Iraunkortasunerako hezkuntzaldia'

Bagara egitasmoak *Iraunkortasunerako hezkuntzaldia* antolatu du apirilaren 2rako Arrasateko Etxaluze egoitzan. Iraunkortasunaren alorrean erronkak identifikatu eta horren harira dauden aukerak aztertuko dituzte. Izena eman daiteke *bagara@bagara.net* -en, edo 943 79 68 48 telefonoan.

### Gose greban dago Aitziber Plazaola, Irati Tobarri elkartasuna helarazteko

Euskal presoak gose greban daude Irati Tobarren alde; tartean, Bergarako Aitziber Plazaola gazte independentista dago. Txandaka ari dira greba egiten, 24 orduko barauldiekin. Euroaginduen aurka egin eta Irati Tobar kideari elkartasuna adierazi nahi diote ekimen horren bidez. Martxoaren 23ra arte egingo dute protesta-barauldia.

### Korrikari babesa emateko deialdia egin du Korrika Batzordeak

Gero eta gutxiago falta da Korrika 17rako, eta dagoeneko giroa berotzen dabiltza. Korrikari babesa emateko deialdia egin dute, taldeko zein banakako argazkiak atera eta *korrika17debagoiena@gmail.com* helbidera bidaltzeko. Askotariko argazkiak izan daitezke: lankide, auzotar, erretiratu, pilotari edo lagunena.

vibike bikes & triathlon
Zure ziklismo, running eta triatloi esparrua Gasteizen.
Parking propioa. Zapatu arratsaldeetan zabalik.

Bergarako Atea 24 • Gasteiz • www.vibike.com

## ZABALIK



**ESTEPAN PLAZAOLA**
'http://goiena.net/iritzia/'

# Aitziber

*Natural sentitzen dut egiten dudana / eta natural egin sentitzen dudana. / Insumiso egin naiz horixe da dana / ahaztu gabe guztioi muxu handi bana.* Hala kantatu zigun Jon Sarasuak orain dela urte mordoxka bat milaka gazte euskaldunen sentimenduari eta jarrerari ahotsa jarriaz.

Orduko izpiritua ekarri dit gogora urrian SEGIren kontrako operazio polizial batetik ihes egin zuten 8 gazteek joan den hilean Izpuran (Behe Nafarroan) egin duten agerraldiak. Tartean zen Aitziber Plazaola bergararra, abizenkide baina ez senitarteko dudana. Diot orduko izpiritua ekarri didala gogora, alde batetik, gazteok azaldu duten naturaltasun, ausardia eta irmotasunagatik eta, bestetik, lortu duten babesagatik. Bergaran bertan Aitziberren aldeko mozioa alderdi abertzale guztien aldeko botoarekin onartu zen. Baina Iparraldean, hautetsi abertzaleek ez ezik, ekologistek edo PSko hainbat kargudunek ere beste urrats bat eman dute eta, gazteok Espainiara bidaltzeko euroagindua salatzeaz gainera, euren etxeetan eman diete aterbe.

**"Naturaltasuna, ausardia eta irmotasuna azaldu dute gazteok"**

Aitziber Plazaola Alize Leiziagezahar Akitaniako kontseilari ekologistaren etxean egon da, Alizek berak aitortu duenez. Alizek esan du jakitun zela ekintza horrekin hartzen zuen arriskuaz baina ez zegoela ados euroaginduaz: "Terrorismo edo gaizkileen kasuan, hor nonbait, baina prozedura hori ezin da ideia politikoengatik aplikatu. Ez nator bat gazte horien ideiekin, baina adierazteko eskubidea dute. Ia miretsi egiten ditut euren geroaren jabe izateko duten grinagatik".

Intsumisioaren borroka-eredua oso eragingarria izan zen bere garaian. Gaur ez dugu soldaduskarik. Ez da erraza borroka-eredu horrek beste arlo batzuetan zer eman dezakeen antzematea. Edonola ere, eredu horren ezaugarri nagusiak (bortizkeriarik eza, konpromiso irmoa, gizarte-pedagogia, herritarren sostengua...) funtsezkoak izango dira, nire ustez, herri honen etorkizuna eraikitzeko bidean.

## USTEAK USTE

**ENEKO AZKARATE** | 'eazkarate@goiena.com'

# Egigurenen purrustadak

Euskal sozialisten presidentearen ausardiak harritu nau. Egia da: euskal gatazkan, alderdiaren abangoardia izan da beti. Goraino busti zen azkeneko bake prozesuan. Baina epelak bota dizkie alderdiari eta Zapaterori. Ez nuen espero horren garden eta gogor ariko zenik. Gutxiago, *Folloneroa*-ren domeketako telebista saio ezinbestekoan esandakoen ostean: "Ez dut uste udal hauteskundeetan ezker abertzalea egongo denik". Orduan? Zertara oraingo irtenaldia? Hauteskunde aurreko antzerki hutsa? Ala Auzitegi Gorenak Sorturen alde har dezakeen erabakiaren aurrean, posizio hartzea? Lopez ere hasi da apur bat mugitzen. Ez da sintoma txarra. Ikusi behar.

## MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA** | 'http://goiena.net/iritzia/'



## HANDIK ETA HEMENDIK

# Segurtasun nuklearra ez da segurua

**Mikel Garcia**
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Ezetz, Europak ez dituela inondik inora Japoniaren arrisku sismikoak eta ondorioz ezin dela halakorik errepikatu hemen: indartsu ari dira lobby nuklearrak mezua zabaltzen.

Baina segurtasun neurrietan herrialde aurreratuenetakoa da Japonia, eta han ere ezinezkoa omen zen zentral nuklearretan ihes erradioaktiborik izatea, dena kontrolpean ei zegoen. Energia nuklearraren aldekoek segurtasuna zuten berme nagusi beraien diskurtsoetan. Eta orain zer? Bada, orain, ikusi beharko da pronuklearrek zein estrategia jarraitzen duten herritarren artean piztu den alarma justifikatuari aurre egiteko. [...] gobernuen luzapenak jasotzen dituzten zentral zaharkituek funtzionatzen jarraitzen dute. Ondo-ondoan dugu guk Espainiako Estatuko zaharrena: Garoña. Arabatik 5 kilometrora, 1970ean eraiki zuten, 25 urterako, eta duen segurtasunaren inguruko kezkak sarri izan dira hizpide. Nuclenorrek dio mantentze-lanei esker gero eta seguruagoa dela. Alberto Frías Garoñarik Gabeko Araba talde ekologistako bozeramailearen iritziz, ordea, ezinezkoa da lehenengo belaunaldiko zentrala azken belaunaldiko bihurtzea. [...] 2008an egin nion elkarrizketan, zera zioen Friasek: "Arazo estrukturala da Garoñarena; ezin izan du konpondu duen korrosio intergranularra (Zorita ixteko eman zuten arrazoia hain zuzen, eta ia-ia berdina da Garoñaren arazoa). Gauza asko konpondu ezinak dira mantentze lanak eginda ere. Hasieran esan zuten 25 urterako zentrala zela, gero 40 urterako zela, eta orain 60rako? Erruleta errusiarra da hau. Garoñak azken 40 urteetan izan dituen akatsen txostena azaleratu genuen eta akats gehiegi dira irekita jarrai dezan, geroz eta akats gehiago dira gainera, onartezinak".

PSOEk zentral nuklearrak ixten joateko hasieran hartu zuen konpromisoa ahaztua du aspaldi eta luzapena berritu zion Garoñari. Ikusteko dago Japoniako gertaerak herritarren presioa handituko duen eta politikoki zentralaren iraupenari eragingo dion.

# Apokalipsia

**Anjel Lertxundi Esnal**
http://berria.info/blogak/lertxundi/

"Batzuek apokalipsia aipatu dute, eta hitza oso egokia iruditzen zait", esan berri du Günther Öttingerrek, energiaren komisario europarrak. Japoneko tragediaz ari zen, katastrofeaz, azkenaldiko hondamendi handienari deitu dio apokalipsia. Hitza egokia, baina ez komisarioak zioenaren bidetik. San Joanen apokalipsiak munduaren akabera iragartzen baitu lau zaldun apokaliptikoen agerpenarekin (gerra, gosetea, gaitza eta heriotza), apokalipsia eta katastrofea berdintzen ditugu. Ez dira gauza bera, ez dira sinonimoak. Apokalipsia, berez, katastrofearen errebelazioa da, ez katastrofea bera. Eta zuzen genuke Japonekoa bide beretik ulertzea. Iragarpen eta gaztigu moduan: Horrela segitzen baduzue, hondamendi totala datorkizue. Japonian gertatutakoaren oihartzuna ahultzen hasi ahala, entzungorrena egiten segituko diegu aldian behin naturak eskaintzen dizkigun errebelazio/apokalipsi beldurgarriei.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**BERGARA 20570**: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
papera@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 1577-1210
**Tirada:** 20.100 ale.
**Difusioa:** 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# GUTUNAK

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

## Memoria ez delako ahazten

**Iñigo Louvelli**
Aretxabaleta

*Jarduera memoria 2007/2011* deitu dio Aralarrek autopromoziorako aretxabaletar guztion diruaz argitaratu duen propagandari.

Zalantzan jartzen dut ekimen honen legezkotasuna, are gehiago bertako argazkietan azaltzen diren hainbat herritarren oniritzirik eduki ez dutenean helburu argiki politikoa duen txosten hau argitaratzeko. Hala ere, legean konfiantza gutxi edukitzeagatik, zilegitasunaz egin behar berba. Esan bezala, propaganda kutsuzko argitalpena izanik inozenteegia litzateke esperatzekoa autokritika apur bat, errazena dominak ipintzea baita, nahiz besteenak izan. Gauza asko isiltzen dira, ordea, bertan. Baina bereziki larria eta kezkatzekoa da isiltasun bat: txosten osoan zehar ez da inongo momentuan aipatzen udaletxearen osaketan egondako gatazka. Ez dugu ahaztu behar lau urte hauetan (bai eta aurreko legealdikoetan ere) izan den udaletxearen osaketa apartheid politikoaren ondorio izan zela. Herriaren gehiengoak egindako hautua ez zen errespetatu eta, hortaz, legealdi honetako udalbatza antidemokratikoa izan da. Gustu txarreko eta lekuz kanpoko pintada mediatiko batzuek izandako oihartzuna gorabehera, funtsean egia da legegintzaldi honetan egon den udalbatza ez dela herritarron gehiengoaren hautu aske baten ondorioz eratu eta, beraz, ez da izan legitimoa. Ostrukarena egin dezakezue edota mila bider gezurra errepikatu egia bihurtzeko esperantzan, baina errealitatea horixe da. Jardueran ahaztuta izan gaituzue; memorian, ordea, ez gaituzue ahaztaraziko.

## Eguzkienea: berriro geldi?

**Amaia Arroyo Sagasta**
Aretxabaleta

Ez da Bruesa Inmobiliariak bultzatutako Aretxabaletako Eguzkienea sustapenari buruz idazten dugun lehenengo aldia. Dena den, denok testuingurua ondo ezagut dezagun, hainbat datu gogoraraziko ditugu: sustapenak 12 etxebizitza-bloke hartzen ditu bere gain. Horietako bi BOEkoak dira eta bere sustapena beste enpresa batek hartu zuen. Bruesak kudeatzen dituen 10 blokeetatik, 4 ez dira entregatu oraindik, eta salerosketa-kontratuak betetzeko epea joan zen abenduan eta urtarrilean zen.

2010eko ekainean, Aretxabaletako Eguzkienea sustapeneko etxebizitza-bloke batzuen obrak gelditu egin ziren. Ez zegoen horren ziurtasunik, baina, egunak joan egunak etorri, jabeok ez genuen obretan inolako mugimendurik ikusten. Irailaren 1a izan zen Bruesa Inmobiliariak Bruesa Construccion-en egoera larriaren berri eman zigun eguna. Gu lasaitzen saiatu ziren, obrei irailaren bukaeran berriro ekingo zietela esanez; hainbat izan ziren obrari berriro ekingo zietela agindu ziguten epeak: urriaren 15a, urriaren 25a, urriaren 28a, azaroaren 17a… Azaroaren 19an, obren lanekin berriro hasi ziren, nahiz eta espero genuen erritmoan izan ez. Lau hilabete igaro dira eta, entregatu ez diren lau blokeetatik, 1 eta 2 blokeetan ez da aurrerapen handirik ikusten. Dena dela, jabe gehienok etxebizitzaren ametsarekin aurrera egitea erabaki genuen eta, horrekin batera, salerosketa-kontratua betetzeko epea igaro arren, etxebizitza jasotzeko sei hilabete gehiago itxarotea.

2011ko martxoaren 14an obra berriro gelditu zen. Jabe batzuen bitartez, obrak gelditu diren berria jaso genuen. Bikote bat Aretxabaletako Bruesako bulegora gerturatu zen eta, bertan, ondorengoa azaldu zieten: Kutxak obraren finantzazioa bermatzen du. Antza denez, gremioek beren dirua jasotzen dute, baina ez da gauza bera gertatzen Bruesarekin. Esan digutenaren arabera, ez dago Kutxak Bruesari egin behar dizkion ordainketak bermatzen duen idatzirik. Zein izan da Bruesaren erantzuna egoera honen aurrean? Bada, gremioei lanik ez egiteko agindu omen die, gure iritziz, Kutxak ordain dezan presionatzeko asmoarekin.

Ozendu nahi dugu egoera honen berri ez dugula zuzenean izan, eta, beraz, zehaztu gabeko gauzak egon daitezkeela.

Edonola ere, geldialdi hau onartezina da. Geldialdien eta berrasteen kontua galdu dugu. Ulertzen dugu presioa egiteko modua izan daitekeela, baina Bruesak ulertu behar du abala efektibo egiteko tranpolina prestatzen ari dela. Zenbatetan jasan behar dugu egoera hau? Zenbat denbora iraun behar du? Uste dugu gure egonezina ezin daitekeela handiagoa izan.

Inoiz baino ozenago, egoera salatu behar dugu. Idatzi honen bitartez, Bruesa Inmobiliariak bultzatutako Aretxabaletako Eguzkienea sustapenaren obrari berriro ekin diezaiotela eskatzen dugu eta, era berean, egoera hau berriro errepika ez dadin berma diezagutela.

## Pitzadura baten lehen notak

**Mikel Illarramendi, Ander Geresta, Kai Saez de Eguilaz, Jakes Esnal, Fermin Martinez, J.R. Karasatorre, Oier Gonzalez eta Jon Rubenach**
(Saint Martin de Ré–ko espetxea)
Saint Martin de Ré

Duela zenbait hilabete, iragan udaren bukaera aldera, dardara bat sumatu genuen hemen bertan, hemen bertakoa ez zen dardara.

Bat-batean eta nola ongi jakin gabe, dardarka hasi ziren paretak. "Lurrikara!", pentsa zezakeen despistatuak, baina ez, dardarizoon iturria ez zen lurra. Zerura begira jarri eta laino ilunik ez, beste mota batekoa zen harresi artean lehertzear zen ekaitza. *Musikara* basatia, hori da zerumugan azaldu ziren banderolek iragarri zigutena. Hodeietatik, euria beharrean, mikroak zintzilik eta tximistak kitarren erritmoan dantzan. Telebistan, eguraldiaren mapek argi eta garbi adierazi zuten: hurrengo orduetan musikaz blaituko dira uharteko bazter guztiak... eta musikak elkartasunez blaitu gintuen.

Egun hartan entzundako bertsoak harresietako aiztoak baino zorrotzago, ez ziren hormak soilik dardarka hasi, baina gure bihotzak ere dardarka jarri zenituzten. Zeinen ezberdinak hormaren eta bihotzaren dardarak! Maitasunez gureak eta ikara betean gotorlekuaren azala. Larunbat goiz hartan, musika eta adiskidetasun oihuz elikatu zenuten bailararekin lotzen gaituen zilborrestea.

Harresiaren bi aldeak uniformez inguratuak, baina uniformatuon presentziak ez zituen gure kantak desafinatu. Hara gure herriaren paradoxa, espetxe barruan zein kanpoan beti txakurrez inguratuta, gatibua den herriak seme-alaba askerik ez. Baina sasi guztien gainetik eta hodei guztien azpitik, nota bihurri eta errima sorginduei esker, ixtante batez bederen askatu ginen. Zuek kanpotik eta guk barrutik, konplizitate keinuka xamurtasun zubia eraiki genuen. Uda partean lehertu zen maitasun *musikara* eta orduan landatutako haziak neguan loratu dira, CD batean bilduta, Gabon kantez osatutako fruitu errebeldeak. Orduan sentitutako dardaren oihartzuna rock-and-roll doinuek lagunduta, espetxearen murruetan pitzadura baten lehen notak.

Bai, inguratzen gaituzten harresiok oso txiki ageri dira bihotzeko bozgorailuen gainera igotzen garelarik eta bozgorailuetako aldarria: "Borroka behar badute, borrokarako gu beti prest ta zai gaude soinuz dena lehertzeko".

Erritmo punkian Aloña gailurreko elurrak urtu ditu elkartasun eguzkiak, guganaino iritsiz egundoko maitasun oldea... geldigaitza den oldarra.

## AHTrik ez!

**Idoia Azkarate**
Antzuola

Gelditu dezatela bortizkeria hori, arren! Antzuola aldeko mendirantz begiratzen dudanean ezin dut saihestu, bihotzak buelta ematen dit egiten ari diren txikizioa ikusita. Nola leike lehentasunezko inbertsioa izatea Abiadura Handiko Trena? Nola leike obra honetan hainbeste diru gastatu, mendia gupidarik gabe apurtu, gizartea murgilduta dagoen egoera delikatua kontuan hartuta? Eta bideratutako diruaren zenbatekoa desbideratuko da batzuen poltsikora? Inpotentzia itzela sentitzen dut gupidarik gabeko sasi-politikarien eskuetan gaudela ikusita. Azken finean, beraiei bost axola zaie natura, bost axola etorkizuna, bost axola gu. Agintetik pasatzen diren urteetan poltsikoak majo beteko dituzte, neurrigabeko soldatak kobratuaz. Herriaren izenean kapitala sendotuz. Kritika dut sistemarentzat, politikarientzat, kapitalismoarentzat... eta baita guretzat ere. Aulki erosoan eseri garen gizarteari. Inongo behatzik mugitzen ez dugulako pairatzen ditugun milaka injustizien aurrean (salbuespen txalogarri batzuk kenduta). Gezurretako ongizate petatxatuan apoltronatu garelako. Naturaren bortxaketa etengabe hau gelditu dadila behingoz. Ez dut obra suntsitzaile gehiago nahi. Moldatu gaitezen daukagunarekin. Madrilera joan nahi duenak hartu dezala autobusa. Abiadura handiek ez baikaituzte bide onetik eramango.

Aurrera joateko atzera egin beharko dugulakoan nago; bestela, pum! egingo du egunen batean. Dagoeneko berandu ez ote gabiltzan... Behin eta mila aldiz, AHTrik ez!

## Zein ausarta den ezjakintasuna, Jon Juaristi!

**Lore Martinez Axpe**
(Aretxabaletako EAko zinegotzia)
Aretxabaleta

Euskara nekazaritzarekin loturiko hizkuntza bezala deskribatzen du Jon Juaristik bere artikuluan, horrek euskara gutxietsi egingo balu bezala. Zein azkar ahazten zaien batzuei nekazari eta baserritarrek, herri txikietako euskaldunek euskararen biziraupenean eginiko lana orain ez urte asko, gure hizkuntza anikilatzeko bidean zegoenean… Hori euskarari dagokionez eta nekazaritza bera ere gutxietsiaz, gure eguneroko bizitzan duen garrantzia ahaztuaz, landa garapena, gure ingurumenaren zaintzaile sutsuak… beste arrazoi asko eman ahal izango nituzke… harrotasunez lotu beharko genituzke euskara eta nekazaritza, biak dira-eta herri honen zati garrantzitsua.

Zorionez, eta Juaristi ohartu ez den arren, euskararen presentzia poliki-poliki sektore guztietara zabaltzen hasia da: nekazaritzan, ikastetxeetan, kalean, ingeniaritzan, unibertsitateetan, lagunartean, enpresetan, politikan, berrikuntzan, sare sozialetan… hor ari gara euskaldunok gure hizkuntzaren etorkizuna bermatuko duten ekintzetan. Twitterren ere sortu da lantalde bat Twitterra euskarara itzultzeko, euskaldunok euskaraz tuiteatu dezagun, ortuko haziak ereiten ditugun profesionaltasun eta harrotasun berarekin.

Bestalde, euskara ez dela defendatu behar, defendatu beharrekoa "askatasuna" dela dio... Ez du euskara defendatu beharra ikusten. Ez dakit zein mundutan bizi den, baina ez, behintzat, Euskal Herrian. Euskal Herrian oraindik ezin daitekeelako euskaraz bizi, bertan bizi garenok ezin dugulako euskaraz nahi beste galdetu, erantzun… eta batzuen ezjakintasunak eta ikasteko interesik, gogorik ezak, beste askoren euskaraz bizitzeko eskubidea zapuzten duelako. Eta euskara defendatzeak, askatasunerako bidea egitea suposatzen duelako, euskara edota erdaraz hitz egiteko aukera euskaldunok bakarrik bermatzen dugulako, euskaldunok bakarrik bermatzen dugulako bat edo besteak aukeratzeko askatasuna!

Bukatzeko eta atsotitz batek esaten duen bezala, "mina, ahal duenak egiten du, ez nahi duenak". Halako birus arraroen aurrean, bakuna ezin hobea daukagu euskaldunok, erabil dezagun: zure ingurunean, zauden tokian zaudela, exijitu eta erabili Europako hizkuntza zaharrena, euskara (*k*-rekin)!

**Mikel Irizar** | Kutxa Fundazioko zuzendari-ondokoa

# "Aurrezki kutxen legea egin behar da Euskadiko aurrezki kutxa sendo eta bakarra egiteko"

- "Euskal kutxek aukera dute beren izaera sozialari eusteko", dio Irizarrek
- "Inoren babesaren beharrik ez dute euskal kutxek, ez daukate fusio hotzen premiarik"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Mikel Irizarrek Kutxaren Gizarte alorrean eta Fundazioan eman ditu azkeneko urteak. Goienako zuzendari nagusi ere izan zen eta iritzi emaile ere bada GOIENAn ez ezik, Euskadi Irratian eta *Argia* aldizkarian ere. Apirilean hartuko du erretiroa Kutxan.

**Kutxen finantza arazoak direla-eta, hauek banku bihurtzeko neurriez dihardugu azkenaldian. Ze iritzi duzu?**

Hemengo kutxak ondo kudeatu dira eta sendotasun rankingetan goian agertzen dira. Beste zenbait kasutan arrisku handiegiak hartu dituzte, edo politikakeriek agindu dute, eta, ondorioz, gauzak okertzen hasi direnean, alfonbra azpiko zikinak agerian geratu dira eta horrek behartu du zenbait kutxa gura ez luketen neurriak hartzera.

**Horri erantzuna ematera datoz finantza erakundeak erreskatatzeko azkenaldian gobernuek hartu dituzten neurriak?**

Espainian finantza merkatuaren erdia edo gehiago kutxen eskuetan dago. Hori, bankuek onar dezaketena baino gehiago da. Ondorioz, hedabideetan, aurrezki kutxen despolitizazioaren gaineko diskurtsoak edo mezuak areagotu egin dira. Baina despolitizazioaren ordez proposatu izan da esku pribatuak indar gehiago hartzea aurrezki kutxetan. Ordezkari publikoak kendu eta akziodun pribatuak sartu. Ordezkari publikoek batzuetan ez dute beren lana ondo egiten, baina horiek alda daitezke. Ordezkari pribatuak ezin dituzte aldatu herritarrek. Hortaz, despolitizazioa baino gehiago da pribatizazioa. Bankuen interesei men egitea.

**Euskal Autonomia Erkidegoko hiru aurrezki kutxak eta Nafarroako CAN ze egoeratan daude?**

CAN ez dago horren ondo. Ez politikakeriagatik, baizik eta kudeaketa ausartegiagatik. Zabaltze eta handitze politika ausart horretan ziharduela harrapatu du zuzen-zuzenean krisiak. Ur handitan sartuta. Horri buelta eman guran dabil, aurrezki kutxaren zati bat esku pribatuetan jartzeko bidean. Beste hirurak oso ondo kudeatu dira. Arriskuak zuhurtziaz hartu dira eta, bestalde, diru asko gorde da eta diru erreserba indartsuak dauzkate. Aurrezki kutxa sendoenen rankingean, lehenengo bosten artean daude EAEko hiru kutxak. Horrek sekulako aukera ematen du estrategia propioa lantzeko. Izan ere, kinka larrian dauden aurrezki kutxei aukera bakarra eman zaie: kapital pribatuen eskuetan jartzea akzioen zati bat bizi duten egoera larritik ateratzeko. Kapital pribatu horien jabe izango dira nazioarteko funts espekulatiboenak. Horiek akziodunen batzar batean sartzen diren unetik, aurrezki kutxen izaera pikutara doa. Euskal kutxek, ordea, aukera dute beren izaerari eusteko. Eredu horri eutsi behar zaio. Gurean badago aukera, hartu beharreko erabakiak ondo hartzen badira.

**Euskal bankuen legeak indartu dezake aurrezki kutxen izaera?**

Ikusi behar ze helbururekin egiten den legea. Carlos Agirre sailburua azalpenak ematera irten denean esan du euskal kutxen lege berriaren helburua dela EAJren larregiko ordezkaritzari aurre egitea. Planteamendu okerra, inondik inora. Ezin daiteke ibili mokoka halako kontu serioekin. Aurrezki kutxen legea egin behar da Euskadiko aurrezki kutxa sendo bat egiteko, gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoan. Eta kutxen ereduari eutsiz. Pentsatu ze kutxa mota komeni zaigun eta adostasunak lortu.

**Kutxaren eta BBKren arteko bategiteak huts egin zuen. Aukera bat galdu zen?**

Bai. Gaur egun ikusita, krisiak ekarri duen zurrunbilo horretan sartu izan bagina dagoeneko bat eginda, askoz ere indartsuago geundeke. Dagoeneko hirurak banaka indartsu eta osasuntsu bagaude, bik bat eginda... Gure sendotasun erlatiboa askoz ere handiagoa izango litzateke.

**Zein izango litzateke hurrengo aukerarik egokiena: orain Vital eta BBK bultzatzen dabiltzan bategitea edo fusio hotza ala hiruren arteko kutxa bakarra?**

Fusio hotza pentsatuta dago baberako, egoera onean ez dauden aurrezki kutxendako. Eta euskal kutxek ez dute behar inoren babesik. Halere, badira bi estrategia fusio hotz eta beroaren atzean. Bata da euskal nazio ikuspegikoa: euskal kutxek behar dute egitura bakar eta sendoa; eta dago beste nazio ikuspegi bat, Espainiakoa: finantza erakunde ez horren indartsuaren alde egiten duena. Arrazoi ideologikoak daude atzean, baina teknikoki hobe da euskal aurrezki kutxa bakar eta sendoa egitea. Epeka ere egin daiteke hori.

**Zenbat diru bideratzen du Kutxak Gizarte Ekintzara?**

42 milioi inguru. Kutxaren irabaziak jaitsi egin dira azkeneko urteotan. 2007an irabazitakoaren herena irabazi zuen iaz Kutxak. Gizarte Ekintzan fondo batzuk bazeudela kontuan izanda, eutsi egin zaio 42 milioi euroren ekarpenari. Bestalde, faktore biderkatzailea dauka Gizarte Ekintzak. Izan ere, 42 milioi jasotzen ditugu Kutxatik, baina gero, Onkologikotik edo beste zerbitzu batzuetatik sortzen diren sarrerak kontuan izanda, orotara, Gizarte Ekintzaren aurrekontua 68 milioi euro da. Kutxa Fundazioak kudeatzen du Gizarte Ekintza.

**Onkologikoa izan da urteetan Kutxaren Gizarte Ekintzako ekimen garrantzitsua eta inbertsio handienak eskatu dituena, ezta?**

Bai, hala da. Izan ere, planetaren bizi iraupenari eman diogu garrantzi handia eta, zentzu horretan, helburu zorrotzagoak jarri ditugu orain arteko gainbeherari beste norabide bat emateko. Sare lan garrantzitsua egin dezakegu. 2020rako helburuak jarri eta helburu horiek bete eta, ahal dela, gainditzen saiatuko gara. Gure ingurumenaren bizi iraupena dago jokoan.

**Badago uste bat Debagoienean, Kutxak batez ere hiriburuan eta inguruan egiten dituela inbertsio garrantzitsuenak eta oso gutxi periferiako eskualdeetan. Hala da?**

Gauzak zela kontatzen diren da. Hirietan daude herrien pareko izan daitezkeen auzoak eta, bestetik, beste egitura batzuk daude hiriari baino gehiagori dagokionak. Zenbat jende doa hiriburura eskualde honetatik, esaterako, hainbat ikuskizunetara? Eta hainbat zerbitzu erabiltzera? Gizarte Ekintzako irizpidea da lurraldeko herrien artean banatzea diruak eta zerbitzuak, berezko dinamikaren kontrara. Esango nuke, azkenaldian, bagabiltzala eragiten periferian ere eta, aurrera begira, gehiago mugitzeko asmoa ere badaukagu.

**Gaurkotasun politikoaren aztertzaile zara hainbat hedabidetan: Sortu legeztatuko dutela uste duzu?**

Egunero gabiltza gauza ezberdinak entzun, ikusi eta irakurtzen. Uste dut une honetan aukera gehiago dagoela ez legeztatzeko, interes handiak daudelako. Hala ere, ez dut uste mundua hor amaituko denik. Argi dago Sortuk legeztatua izan beharko lukeela, baina Sorturen atzean dagoen dinamika atzeraezina da. Oraingoan ez bada, hurrengoan izango da. Ezker abertzalearen azkenaldiko bilakaera da inportanteena eta zoriontzekoa hartutako bidea.



Mikel Irizar, Goienako estudioetan, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

**"42 milioi inguru bideratzen ditu Kutxak urtero Gizarte Ekintzara"**

**"Lurraldeko herrien artean banatu gura ditugu diruak eta zerbitzuak"**

**"Planetaren bizi iraupenari eman diogu garrantzi handia Kutxan"**

**"Azkenaldian ezker abertzaleak izan duen bilakaera da inportanteena"**

# Debagoieneko **GREMIOAK**



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
- K-21

Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
*www.goiena.net/blogak/azkarate*

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
- Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak

Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
- Instalazio elektrikoak
- Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
*e.arrasate@euskalnet.net*

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
- Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
- Kontratak
- Enpresen mantentze-lanak

Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## ITURGINTZA

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
*f.oyanguren@ctv.es*

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
- Hargintza lanak
- Bainugelako altzariak
- Berogailuak
- Erretenak ipini eta garbitzea

Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 17 80 46

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIK**
Arrasate
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30
*http://merkatua.net/argiplastik*

**ION LEIHOAK**
Arrasate
Debagoiena Industrialdea 11.Pab
Tel.: 943 79 11 35
F: 943 773 120
*http://www.ventaion.com*

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatzeko sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

## DUELA 10 URTE

2001-03-16

### 2.754 milioi pezetako aurrekontua

Urte hartan Udalak Aldunditik jasotako diru kopuruak behera egin zuen. Hala ere, Mizpirualde zaharren egoitzaren eta Bergarako Bihargintza SAren 446 milioi gehitu ostean, udal aurrekontuak gora egin zuen nabarmen, 3.046 milioi izatera iritsita.

Aurrekontu horretatik, 725 milioi inbertsioetara bideratu zituen Udalak. Partida garrantzitsuena Arrizuri jauregia erosteko erabili zuen: 64 milioi pezeta.



50 milioi Oxirondo plaza berritzeko. | ARTXIBOA

2001-03-16

### Igerilekua berriro zabalik

Abenduaren 15ean sabaiko berogailuaren hodia erori ostean, Agorrosingo neguko igerilekua hiru hilabetez itxita egon zen. Denbora horretan, hodia konpontzeaz gainera, beste zenbait lan ere egin zituzten barruko igerilekuko instalazioetan.

Itxiera hori zela eta, urte hartako kirol bazkideen kuotak jaitsi egin zituen Udalak, barruko igerileku barik egondako hiru hilabete horiengatik.

## DUELA 5 URTE

2006-03-17

### Lehen hileta musulmana

Gure eskualdea zabaltzen hasia zen seinale izan zen gertakaria. Zubair Mohamed gaztea 26 urterekin hil zen eta hiletara 250 pertsona joan ziren. Ipintzan, Mekari begira, zutik eta ortozik egin zioten otoitz gizonek.

Gorpua Pakistanera eraman zuten, hango senideek azken agurra egin eta lurperatzeko.

## HERRITARRAK

BERGARA

**Miguel Angel Martinez** Azkeneko 25 urteetan Bergara eta inguruko kaleak gozotzen eman duen pertsona da; haren furgoneta, toki askotan, Ferrari bat baino ezagunagoa da. | IMANOL GALLEGO

# "Bergararra izan arren, jende askok 'Harindondin' bezala ezagutzen nau"

Miguel Angel Martinez (Bergara, 1961) esanez gero, jende askok ez du identifikatuko; izan ere, *Harindondin* ezizenak bere izen propioak baino ospe handiagoa dauka. Azken 25 urteetan Bergarako kale eta festak gozotzeaz gainera, Euskal Herriko txoko eta ospakizun askotan ere erraz aurkituko duzue Martinez eta haren furgoneta.




Miguel Angel *Harindondin*, furgonetan. | GOIENA

**Nola egin zinen gozoki saltzaile?**
Nire aurretik, aita hasi zen. Hark beste furgoneta bat zuen eta Bergara, Arrasate... eta inguruko herritan ibili ohi zen. Hark lana utzi zuenean niri laga zidan negozioa eta ordutik hona hemen nabil bazterrak gozotzen.

**Beraz, bi *Harindondin* egon dira?**
Baietz esan daiteke, bai. Gure aitak duela 50 urte ekin zion izozkiak saltzeari, eta hortik dator *Harindondin* izena. Hasieran, izozki marka eta gurea *Farindondin* zen. *Farin* dator *irin*-etik eta *dondin*, izozki saltzaileen furgonetak zeukan kanpaitxotik. Duela urte asko, baina, *Farindondin* marka gisa erregistratu zuten eta, ondorioz, guk efe letra kendu eta hatxe bat jarri genuen.

***Harindondin* moduan ezaguna izatea gustuko duzu?**
Grazia egiten dit. Ni bergararra naiz eta herrian jende asko ezagutzen dut. Nire lagunek ez didate horrela deitzen, baina jende askok bai. Gainera, kasu askotan, umeen izenak ere badakizkit, gurasoen laguna naizelako edo... eta gaztetxoek sorpresa handia hartzen dute.

**Eta furgoneta barik ikusten zaituztenean?**
Arraroa egiten zaie; askok furgonetan soilik ikusten naute eta hemendik kanpora ikustean harritu egiten dira. Dena den, askotan entzun behar izan dut: "Altuagoa zinela uste nuen". Ni nahiko txikia naiz, eta, furgonetan eurak baino altuago nagoenez... ba, gero, kalean ezuste galanta hartzen dute.

> **"Furgonetatik ateratzean, jendea ohartzen da nahiko baxua naizela"**

> **"Gozoa dirudien arren, oso ogibide esklabua da, ordu asko exijitzen ditu"**

**Bergaratik kanpo ere saltzera irten zara, ezta?**
Askotan, gainera. Euskal Herriko festa gehienetan egon naizela uste dut. Behin Tourrera ere joan nintzen, giro ederra zegoen eta oso oroitzapen onak ditut. Okerrena ordutegia izaten da; askotan, ekitaldia baino askoz lehenago egon beharra dago, eta nahiko aspergarria da.

**Zeren arabera aukeratzen duzu nora joan?**
Faktore askori begiratzen diet. Festaren tamaina, non dagoen, zenbat iraungo duen, eta, noski, eguraldiari. Eguraldia niretzako oso faktore garrantzitsua da. Nahiz eta festa handi bat antolatu, eguraldiak laguntzen ez badu... festaren arrakasta asko txikitzen da-eta.

**Errepidean ordu asko emango dituzu, baina, daukazun furgonetarekin, 120 kilometrotik 110 kilometrora pasa beharrak ez dizu eragingo, ezta?**
Ez pentsa, kanpora irteten naizenean ez dut horrenbeste gozoki saltzen. Izozkiez gainera, patata poltsak eta horrelako gauzak soilik eramaten ditudanez, ba, 120, 130 eta 140 km/h hartzera iritsi naiz.

**Gozozalea zara?**
Orain lehen baino gehiago. Txikitan, gainontzeko umeen aldean, nik gozoki piloa nituen eskura, baina ez nituen jaten; orain, berriz, noizean behin gominola bat edo beste jaten dut.

**Gozokiak asko aldatzen dira, baina zein gozokik irauten du zu hasi zinenetik?**
Erregalizak. Ni txikia nintzenean aitak saltzen zituen eta gaur egun nik ere asko saltzen ditut. Ez dira atzean geratu eta aldaketa txiki batzuekin saltzen jarraitzen dute.

**Gozoki saltzailea izateaz gainera, kulturista ere izan zinen, ezta?**
Bueno... hori ere badakizu! Nik ez nuke kulturista nintzela esango. Duela urte asko, gimnasio bat ireki zuten Bergaran eta nire anaiak izena eman zuen; haren gorputzaren aldaketak ikustean nik ere izena eman nuen eta emaitza politak lortu nituen. Urte batzuen ostean, kirola kolpean utzi nuen, eta, berdin jaten nuenez, asko loditu nintzen.

**Hirugarren *Harindondin* bat egongo da?**
Ez. Nik ez daukat seme-alabarik; hortaz, nirekin amaituko da tradizioa. Hala ere, seme-alabaren bat izango banu, nahiago nuke kazetari izango balitz; lan hau oso esklaboa da eta ordu asko exijitzen ditu. Gainera, askok kontrakoa uste duten arren, ez da horrenbesteko etekina ateratzen.

### NIRE HERRIAN

**:) BERE TAMAINA EROSOA**

Bergarak daukan tamaina gustuko dut. Ez da hiri bat, ezta herri bat ere, bien artean dagoen zerbait da eta hori ona dela uste dut. Herri sena galdu gabe hiri txiki baten tamaina izatea lortu du. Jendea ezagutzen duzu eta jendeak ezagutu egiten zaitu herri txiki batean moduan, baina hemen zerbitzu gehiago ditugu.

**:( KULTURA EKINTZA GUTXI**

Aste bukaeretan herria hilda dago. Jendea ez da kalera irteten eta askotan kaleak erdi hutsik ikusten dira. Nire ustez, Bergarak kultura ekintza gehiago beharko lituzke bertako jendea etxetik ateratzeko eta inguruko herrietatik ere jendea erakartzeko. Herrietako kaleetan jendea beharrezkoa da eta gaur egun ez da hori gertatzen.

# HERRIAK

ELGETA

# Xalbadorpe erretiratuen elkarteko 180 bazkideek presidente berria dute

- Eguazteneko batzarrean Pedro Mari Ubera izendatu zuten presidente kargurako
- Zuzendaritza batzordean aldaketarik ez: aurreko ekitaldiko zortzi kideek jarraituko dute

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Pedro Mari Uberak hartu du Elgetako erretiratuen elkartean presidente kargua. Funtzio hori bete du azken hilabeteotan eta esan daiteke izendapenak ez duela ezustean harrapatu. Eguaztenean, hilaren 16an, egin zuten urteko batzar orokorra Xalbadorpe elkarteko bazkideek, eta, beste batzuen artean, ekitaldi berrirako egitasmoen berri eman zuen zuzendaritza batzordeak.

"Iazko estiloan izango da, pare bat gauza aldatuta", adierazi du Pedro Mari Uberak. "Aurten ez dugu 80 urtetik gorakoendako bazkaririk egingo. Horren ordez antzerki saio bat ekarriko dugu herrira eta irteera bat gehiago antolatzea da gure asmoa. Oraingoz, Kutxarekin hitzartuta dugu egun osoko irteera bat Santanderrera. Maiatzaren 18an egingo dugu. Bi hitzaldi ere izango ditugu: apirilaren 13an lehenengoa eta irailean bestea".

Horiekin batera urteroko ekintzak egingo dituzte, hala nola mahai-joko saioa, Udalak herriko jaietan antolatzen dien bazkaria eta udazken partean egiten duten gaztaina-erre jana. Jaietan lan egitea ere egokituko zaie; izan ere, euren ardura izan ohi da herri bazkari egunean kafea egitea eta banatzea.



Zuzendaritzako zortzi kideak, eguazteneko batzarra egin osteko meriendan. | L.Z.

**Podologia zerbitzua**

Arrakasta handia duen zerbitzua da, erretiratuek erretiratuendako antolatua. Hilean behin etortzen da podologoa Elgetara. Eguneko zentroan artatzen ditu Elgetako erretiratuak eta Nati Arrieta arduratzen da txandak emateaz eta kontsultak kobratzeaz. Gehienez, 24 bezero arta ditzake podologoak bisita bakoitzean, eta sarritan iristen dira kopuru horretara. Txanda aurrez hartu behar izaten dute interesatuek. Zerbitzu hori eskaintzen jarraituko dute elkartetik.

**Garraio txartelak**

Garraio publikoa ere zerbitzu garrantzitsua da erretiratuendako. "Eusko Jaurlaritzatik adierazi dute txartel bakarra atera behar dutela, Lurraldebus, Eusko Tren eta gainerako garraio zerbitzuetarako balioko duena", esan du Uberak. "Aurten txartel horiek tramitatzeko asmoa dugu, baina horretarako atera egin behar du Jaurlaritzak". Txartel bateratua ekimen oso interesgarria dela dio Uberak. "Nik, esaterako, hiru txartel dauzkat orain: Eusko Tren, Lurraldebus eta Bizkaibus... Hori guztia txartel bakarrean bateratzen badute, askoz ere erosoagoa izango da erabilera".

Txartel berriak ateratzeko tramiteak elkartetik egiten dituztela jakinarazi du Uberak eta elkarteak dituen 180 bazkideei lasai egoteko mezua helarazi nahi izan die: "Txartel bateratu hori ez dago oraindik martxan. Ateratzen dutenean pasako dugu abisua".

Beste zazpi bazkideren laguntza izango du Uberak zeregin horietan guztietan. Orain arteko lagunek jarraituko dute batzordean: Manu Sarasua, Nati Arrieta, Luis Mari Arantzeta, Lupe Ibarbia, Irene Bolinaga, Begoña Ardantza eta Fermin Iribarrek.

---

**PEDRO MARI UBERA** | XALBADORPE ELKARTEKO PRESIDENTEA

## "Presidente kargua betetzea tokatu zait aurten ere; asko ikasten ari naiz"

Zezilio Totorikaguena zen Xalbadorpe elkarteko presidentea, baina, haren heriotzaren ondorioz, Pedro Mari Ubera presidenteordeak bete du funtzio hori hilabeteotan. Eguazteneko batzarrean, bazkideek ofizialki aukeratu dute Ubera kargurako.

**Kargu berriak ardura handiagoa ematen du?**

Funtzio hori betetzea tokatu zait aurten ere eta ardura hori eduki dut. Hori bai, gauza asko ikasten ari naiz.

**Lanak ondo banatuta dauzkazue zuzendaritza batzordean?**

Bai; zortzi lagun gaude orain zuzendaritza batzordean eta horrek lanak hobeto banatzeko aukera ematen du. Iaz bi lagun gehiago sartu ziren, eta igartzen da. Nire lana gauzak apur bat koordinatzea da, eta guztiaren gainean *al tanto* egotea.

**Talde berak jarraituko du zuzendaritza batzordean. Ez da inor berririk animatzen?**

Berdinak gaude zuzendaritza batzordean aspalditik. Nekez animatzen da jendea horrelako zereginetarako eta aurtengo batzar orokorrean ere ez da inor berririk aurkeztu.

**Berrikuntza txiki batzuk egongo dira aurten elkarteak prestatutako egitarauan.**

Bai. Aurten ez dugu 80 urtetik gorako erretiratuendako bazkaririk egingo eta irteera bat gehiago antolatzeko asmoa dugu. Antzerki saioa ere ekarri nahi dugu. Ez dugu oraindik ezer lotu, baina horretan ari gara.



Pedro Mari Ubera. | L.Z.

**Ozkarbi elkartean duzue egoitza. Berrikuntza lanak egin berri dituzte. Gustura zaudete bertan?**

Bai. Bulegotxoa ipini digute eta erosoago gaude. Komuna ere egin dute beheko solairuan. Ondo gaude.

**Ze eskaera jaso dituzue batzarrean?**

Galdera bakarra egon da eta garraio publikoarekin lotutakoa izan da. Eusko Jaurlaritza txartel bateratua ateratzekotan da eta gauzak zertan diren galdetu dute. Guretzako erosogoa izango da txartel bakarra erabiltzea. Nik, gaur egun, hiru ditut. Gaiari jarraipena egiten ari gara eta zerbait garbia jakiterakoan, bazkideei horren berri emango zaie.

# Sasoiko produktuak prestatuko dituzte azokan

## Jesus Romero sukaldariak biharko baserritarren azokan errezeta bereziak prestatuko ditu

**UBANE MADERA** | ARRASATE

Berritasunekin dator bihar, zapatua, baserritarren azoka: baserritarrez gainera, sukaldari bat izango da Seberren, baserritarren denboraldiko produktuekin errezeta bereziak prestatzen.

**Dastatzeko aukera**

Prestatutako jakiak pintxo eran dastatu ahal izango dira han bertan, 10:00etatik aurrera. Eta zenbait plater erosi egin ahal izango dira, etxera eramateko.

Pintxoei dagokienez, azokan erosketa egiten duten guztiei bonu bana emango diete pintxoa doan eskuratzeko. Eta gainerakoek aukera izango dute pintxoak erosteko, "arrazoizko prezioan", antolatzaileen esanetan.

Horrez gainera, prestatutako jakien errezetak eskuratu ahal izango dira, eta zalantzak edo nutrizioarekin lotutako jakinminak galdetu sukaldariari, Jesus Romerori. "Plater batzuk aurretik prestatuta ekarriko ditu, eta beste batzuk bertan prestatuko ditu, garrantzia emanaz sasoian sasoiko produktuak kontsumitzen ahalegindu behar dugula, horrek dituen onurak… Hura aditua da, eta horren gaineko azalpenak emango ditu", adierazi du Marga Garmendia udal teknikari eta azokako antolatzaileak.

**Sukaldari gehiago**

"Esperimentua da, ez dakigu zela aterako den, zela hartuko duen jendeak. Jesus Romerorekin hasiko gara ekimen honekin, baina beste sukaldariren batek interesa badu, zabalik gaude. Romerorekin hasiko gara baserritarren bezero delako, berak beste azoka batzuetan eginda duelako gauza bera, eta esperientzia moduan interesgarri ikusten zuelako Arrasaten ekimen hau gauzatzea", gaineratu du Garmendiak.

**Datorren hilean, loreak**

Bestalde, udal teknikariak aurreratu du datorren hilean beste berritasun bat izango dela azoka horretan: lore-landara saltzaileak. "Lurrarekin zerikusia dute, baserri batzuetan ekoizten dira lore-landareak eta uste dugu horrek azoka ilustratu egingo duela".

### Bost plater prestatuko ditu Romerok

Honako platerak prestatuko ditu Jesus Romero sukaldariak: barazki krema edo zoparen bat; arroz eta txanpinoiek betetako zerbak azenario saldarekin; kalabaza eta hurrekin egindako patea; porruekin eta "oilo zoriontsuen" (estres bakoak) arrautzekin egindako flana, eta berakatz fresko, borraja eta artoarekin egindako arrautza nahaskia, egositako patatarekin.

# Iaz urbanoaren bidaiari kopurua izugarri jaitsi zen arren, aurten apurka-apurka gora doa

## 2010ean sekula baino bidaiari gutxiago izan zituen Arrasateko urbanoak: 148.991

**UBANE MADERA** | ARRASATE

Deigarriak dira Arrasateko urbanoak iaz utzitako datuak: ia 25.000 bidaiari gutxiago ibili ziren. Arrazoiak bi dira: gero eta gehiagok erabiltzen dituela igogailu publikoak (Ferixalekukoa eta Bizkaia etorbidekoa) eta krisiaren eraginez gutxiagok hartzen dutela urbanoa Eroskirako.

Datuen arabera, 173.000tik 148.000ra jaitsi da bidaiari kopurua urtebetean. Urbanoa ezarri zenetik izan den jaitsierarik altuena da. Are gehiago, urbanoak sekula izan duen bidaiari kopururik txikiena da hori.

**Aurten, gora**

Hala ere, Arrasateko Udalak zerbitzua bikoizteko aurten egindako ahalegina hasi da fruituak ematen: "Apurka-apurka eta oso mantso, baina erabilera gora doa. Eta autobus konpainiak dio zerbitzu bat finkatu arte bi-hiru urte pasatzen direla. Hortaz, esperantza dugu zerbitzua bikoizteak ekarriko duela auzoetako automugimendua kentzea erdialdera etortzeko", dio Patxi Arburuak, Zerbitzuetako arduradunak.

**DATUA**

**24.207**

BIDAIARI

Ia 25.000 bidaiari gutxiago ibili zen urbanoan 2010ean.

# Etxe gehiagotan balkoiak ixteko ordenantza onartu du Udalak asteon

**U.M.** | ARRASATE

San Andres auzoan, Munar auzoan, Erguinen eta Santa Marinan, orain arte onartutako guneetan baino gehiagotan itxi ahal izango dira etxeetako balkoiak, Udalak asteon onartu duen ordenantza bati esker.

San Andres auzoa da baimen gehien eskuratuko duen gunea, bertako kale gehienetako etxebizitzetan egin ahal izango dituztelako aurrerantzean mota horretako itxiturak.

**Itxitura homogeneoa**

Itxitura horiek egiteko, baina, hainbat baldintza bete beharko dira: jabeen komunitatearen akordioa eskuratu beharko da, itxituraren diseinua aurkeztu beharko da (aurkeztu ezean, Udalak zehaztuko du diseinua), eta jabekideen konpromisoa adostu beharko da, bost eta hamar urte bitarteko epean balkoi guztiak ixteko auzokide guztien artean adostutako diseinuari jarraituz.

# Uribarriko nagusienei aitortza egin diete

Kontu-kontari ibili, bertsoren bat zein beste bota eta, jakina, bapo bazkaldu. Horixe egin zuten, besteak beste, Uribarri egoitzako 80 urtetik gorako 40 lagun pasak martitzenean, 80 urtetik gorakoen urteroko ospakizunean. Tartean, nagusienak omendu zituzten: Ulpiana Valverde (94 urte) eta Eugenio Apaolatza (91 urte).



JULEN IRIONDO

## OHARRAK

**HIKA TAILERRA HASIKO DA**

AED elkarteak jakinarazi du hikaren gaineko ikastaro edo tailerra datorren martxoaren 26an, zapatua, hasiko dela. Eskolak Udal Euskaltegian izango dira, 10:00etan hasi eta 13:00ak arte. Izena emateko, *aed@aedelkartea.com* edo 943 7712 28 (55 euro; 50, bazkideendako).

**1984KOEN BAZKARIA**

Bihar, zapatua, 15:00etan, bazkaria dute Bittori jatetxean 1984an jaiotakoek. 12:30ean elkartuko dira, Iluntz tabernan.

ESKAINTZA

MOD: G-1-2
- 3,6 m-ko sukaldeko altzaria.
- 4 cm-ko Duropal entzimera.
- 178 cm-ko hozkailu integratua.
- Ontzi-garbigailu integratua.
- Labe-bitrozeramika multzoa.
- Kanpai apaingarria, 60.
- 27 kolore aukeran.
- Lehenak salmentetan EUROPAn.

3.780 €*
MUNTAIA eta BEZa barne

5 URTEKO GARANTIA

* Baldintzak eta modelo desberdinak dendan ikusgai. Osagarriak ez daude barne.



ARITZ
erreformak
sukaldeak

Tel.: 943 03 78 73
Zerrajera kalea 1 L-2
20500 ARRASATE

- Sukaldeko altzariak
- Koltxoiak
- ZAHARBERRITZEAK
(Gremio guztien koordinazioa)

## Laster konponduko dituzte Etxaluze eraikineko itoginak

Oraingo asteko euriekin, atzera ere azaldu dira itoginak Etxaluze eraikinean (Abaroa berrian). "Tabernara irteten dira; hala ere, ez dute bestelako garrantzirik. Teilatuak hainbat plaka ditu eta bigarren plakan, airea berotzeko sisteman azaldu dira itoginak, baina kontrolpean daude. Amenabar enpresakoak jakitun dira, eta espero dugu laster konponduko dituztela itoginok", jakinarazi dute Arrasateko Udaleko Obra eta Zerbitzu Sailetik.

## Jolas berriak ikasteko eta pizza egiteko aukera, Bedoñaben

Ludoteka ibiltaria izango da asteburuan San Andres auzoan Kulturartekotasuna oinarri duten ekimenak landuko dituzte eta "jolas berriak ikasteko aukera" izango da. Bestalde, "gurasoekin gerturatzen diren guztiek pizzak egiteko eta jateko aukera izango dute". 10:30etik 13:30ak arte izango da ludoteka, Bedoñabeko ikastetxean.

Ohi den moduan, parte hartzeko gogoa duen edozein neska-mutiko joan daiteke ludoteka ibiltarira.

**Aitziber Aranburuzabala eta Oihana Elortza** | Arrasate Irratiko esatariak

# "Entzuleek dagoeneko eskertu digute sarera salto egitea"

- 'Goiena.net' atarian entzun daiteke Arrasate Irratia joan den astea ezkero
- 'Iritzia' atalaren azpian dago edozeinen eskura; playerra klikatu eta kito

**UBANE MADERA** | ARRASATE

Entzuleak dagoeneko jakitun dira Arrasate Irratia Internet bidez entzun daitekeela. "Asko, zain" zeudela kontatu dute Aitziber Aranburuzabala eta Oihana Elortza irrati-esatariek. Eta dagoeneko ekarpenak egiten hasita daudela ere bai:

**Internetera salto egiteak aldaketarik ekarriko du jardunean?**

Izan daiteke. Jende asko dago ordenagailuan lanean, eta ordenagailutik entzun ahal izango dute Arrasate Irratia albokoa molestatu barik, edo hari musikalean ipini barik... Zenbat eta aukera gehiago eman, orduan eta entzule gehiago izango ditugu. Londresen dagoen arrasatear batek entzun ahal izango du orain, adibidez. Eta Interneten ibiltzen den jendea ausartagoa da eta akaso gehiago parte hartuko du... Egin beharrekoa zen. Gaur egun dena dago sarean. Teknikoki posible izan den momentua aprobetxatu dugu irratia sareratzeko.

**Zeintzuk dira irratiaren zutoinak?**

Asko saiatzen gara jendea irratira ekartzen, albisteak elkarrizketa bidez kontatzen, xehetasunak protagonisten euren ahotik entzun nahi ditugulako. Egunero egiten dugu *Igo Autobusera* irratsaioa (10:30-11:30 zuzenean, 13:00ak arte laurden gutxiagotan albistegia errepikatzen da, eta irratsaio osoa 14:00etan, 17:00etan, 19:00etan eta 22:00etan). Gainerako minutuak musikarekin elikatzen ditugu, eta saiatzen gara musika hori ere entzuleen gustukoa izaten. Euskal musika dugu oinarri. Eta gure musika artxiboa etengabe berritzen eta elikatzen gabiltza.



Aitziber Araburuzabala eta Oihana Elortza, Arrasate Irratian. | JOKIN BEREZIARTUA

> **"Teknikoki posible izan den momentua aprobetxatu dugu irratia sareratzeko"**

**Eta ezin ahaztu opariak...**

Astero ditugu, Arrasateko Udalarekin eta herriko elkarteekin elkarlanean eskuratutakoak. Horrek posible egin du, adibidez, aurten astean zozketa bakarra egin beharrean bi egitea (egunetan eta egubakoitzetan). Eta gure entzuleek ondo dakiten moduan, nahikoa da telefonoz deitzea edo mezua bidaltzea zozketetan parte hartzeko, ez dago beste baldintzarik. Helburua entzule eta gure arteko hartu-emana indartzea da.

**Protagonistak, musika, opariak... horrek guztiak entzule finak erakarriko ditu, ezta?**

Nik uste baditugula, eta batzuei izena jartzen diegun arren, beste asko daude irratiaren beste aldean, ze gero konturatzen zara askok ezagutzen dutela irratsaioaren izena, ordutegia... Asko eskertzen dugu entzuleak gurekin harreman zuzenean jartzen direnean.

**Besterik gura duzue gaineratu?**

Lehentasuna ematen diegula Arrasateko albisteei, baina arrasatearrendako interesgarriak izan daitezkeen bestelako edukiak ere lantzen ditugula; adibidez, Japoniako lurrikararena asteon, edo Bergarako balearena...

zenbaki
aholkulariak-abokatuak
25 urteurrena
TÜVRheinland CERT ISO 9001
GARANTIA DE ALQUILER



Aurten 25. urteurrena ospatuko dugu

Gure bezeroei eskerrak eman nahi dizkiegu urteotan gugan izan duten konfiantzagatik.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.es



ARTko maila txikietako errugbi jokalariek Aramaion egingo dute entrenamendu saioa. | GOIENA

# Gaztetxoendako errugbi entrenamenduak, herririk herri

ARTko lagunek domekan Aramaioko parkean egingo dute saioa, 10:30ean

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE

Arrasate Errugbi Taldeak entrenamendu ibiltariak egingo ditu datozen asteotan. Saioak 8 eta 11 urte bitarteko neska-mutikoendako izango dira eta bailarako herri ezberdinetan egingo dituzte. Lehenengo hitzordua domekan izango dute, hilaren 20an, Aramaion (10:30ean hasiko dute entrenamendua). Klubeko ordezkari Kakok eman ditu xehetasun gehiago: "Leintz Eskola Kiroleko lagunekin batera egingo dugun egitasmoa da. Klubean ikusten genuen maila txikietan ez genituela nahikoa jokalari, gure kirola ezagutzera eman behar genuela. Bestalde, Aramaioko ikastetxean irakaslea ikasle gaztetxoei errugbia irakastera animatu zen, eta domekan, errugbi eskolakoekin batera entrenamendua Mojategin egin beharrean Aramaion egingo dugu, parkean. Hala, Aramaioko 8 eta 11 urte bitarteko gaztetxoak gonbidatuta egongo dira gurekin entrenatzera. Berez, joko dibertigarriz osatutako saioa egingo dugu".

**ESANAK**

**"Aramaion errugbi jokoak egingo ditugu gaztetxoekin"**

**KAKO** | ARRASATE ERRUGBI TALDEA

### Parkea txukun dago

Gaztetxoen entrenamendu saioa egiteko Bañera parkea txukun dago: "Halaxe esan digute, oso ondo dagoela, eta eguraldi txarra egiten badu ahaleginduko gara pilotalekuan egiten".

Entrenamendu ibiltarien egitasmoa ARTk eta LEKek esku artean duten proiektuetako bat da: "LEKekoekin batzartu ostean ideia oso politak irten ziren gure bailaran errugbia indartzeko. Hala, asmoa da hurrengo entrenamendu saioa Aretxabaletan egitea, baina argituko dugu noiz".

## ZALDIBAR

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Portaboleiros-Betrayer | 5-5 |
| Dublin-McAwenDauen | 5-4 |
| Lasagabaster-Cipris | 0-1 |
| Iluntz-Fidel | 2-3 |
| Steaua-Fuxxion | 3-7 |
| Abokajarro-Iriztu | 2-1 |
| Ekaitz-Dribling | 2-7 |

**SAILKAPENA**

| | A TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Dribling | 3 | 1 |
| 2 | McAwenDauen | 3 | 1 |
| 3 | Abokajarro | 3 | 1 |
| 4 | Cipris | 3 | 1 |
| 5 | Dublin | 0 | 1 |
| 6 | Iriztu | 0 | 1 |
| 7 | Lasagabaster | 0 | 1 |
| 8 | Ekaitz | 0 | 1 |
| | B TALDEA | P | J |
| 9 | Fuxxion | 3 | 1 |
| 10 | Fidel & Disc | 3 | 1 |
| 11 | Betrayer | 1 | 1 |
| 12 | Portaboleiros | 1 | 1 |
| 13 | Iluntz | 0 | 1 |
| 14 | Steaua del Grifo | 0 | 1 |

**PARTIDUAK**

MARTXOAK 19, ZAPATUA

**10:30** Betrayer-Fidel&Disc / **Ekaitz**

**11:30** Ekaitz-Lasagabaster / **Fidel**

**12:30** Dribling-Iriztu / **Lasagabaster**

**16:00** Iluntz-Fuxxion / **Steaua del.**

**17:00** Portaboleiros-Steaua del. / **Iluntz**

MARTXOAK 20, DOMEKA

**12:30** Cipris-Dublin/ **Antolatzaileak**

### Parekotasuna nagusi lehen jardunaldian

Joan den asteburuan jokatu zuten bigarren faseko lehen jardunaldia, eta taldeen artean egondako parekotasuna izan zen deigarriena; Fuxxion eta Dribling izan ziren hainbat goleko abantailaz irabazteko gauza.

### Partidu bat atzeratu egin dute

Asteburuan Abokajarrok eta McAwen Dauen taldeek jokatu beharreko norgehiagoka atzeratu egin dute. Hala, domeka goizerako hitzordu bakarra jarri dute antolatzaileek, Ciprisek eta Dublinek jokatuko duten partidua.

## Hondarribian jokatuko du Ford Mugarri Arrasatek

Joan den astean Estudios E Pilar taldearen kontra 32-28 irabazi ostean, Edu Orgazen mutilek Hondarribian jokatuko dute domekan (12:00) La Bacaladera taldearen kontra. Hala, bigarren postuari eusteko (igoera faserako sailkatzeko beharrezkoa den postua) beste pauso bat egin beharko dute Arrasatekoek, atzetik bi puntura dagoen Askartzak ez du-eta liga amaitu arte tregoarik emateko asmorik. Domekako kontrarioa sailkapenaren erdian dago, 21 puntu batuta. Eta, hain zuzen, Askartzaren kantxan galdu zuten joan den astean, 23-18.



ARRASATE ATLETIKO

## Zilarrezko domina Espainiakoan

Domekan Anoetan egingo duten atletiadan Aretxabaletako eta Arrasateko 40 neska-mutiko lehiatuko dira. Joan den astean, berriz, hainbat ikastetxetako ordezkariak Mojategin egin zuten atletiadan izan ziren. Neska-mutikoak altuera eta luzera saltoan, abiadura probetan eta errelebutan jardun zuten. Goizeko lehen saioan 93 atleta egon ziren eta bigarren txandan beste 76 neska-mutiko. Eibarren, berriz, alebin eta infantil mailetako atletek ere saioa izan zuten, eta marka politak lortu zituzten.









# Teknologia berrietan oinarritutako antzezlana

## Logela Multimediak 'Anaki' antzezlana eskainiko du zapatuan, 17:00etan

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Antzezlan dibertigarri eta berritzailea eskainiko dute Logela Multimediako kideek bihar, zapatua, Amaia antzokian. 3 eta 10 urte arteko haurrei zuzendutako lana da, baina gurasoek ere gustura ikusiko dutena.

**Marrazki bizidunen antza**

*Anaki*-k badu marrazki bizidunekin antzekotasuna. Istorioa supermerkatuan hasten da, Anaki oso apetatsu agertzen da amaren aurrean, guztia nahi du; gozokiak, izozkiak... Amak une batez bakarrik utzi eta Anaki supermerkatutik joango da, txanpon bidez mugitzen diren makina -barraka horietara iritsi arte. Kotaro izeneko barrakak arreta eman eta bertan txanpona botako du Anakik. Kotarok hegaz egiteko gaitasuna du zerutik haratago, eta txanponak behar ditu aurrera egiteko. Gozokien planetan Anakik gogor egin beharko du lan txanponak lortzeko. Antzezlanean lantzen diren gaiak hauek dira: elikadura osasuntsuaren garrantzia eta saria lortzeko esfortzua egin beharra, besteak beste. Bidaiatik bueltan, amaren ezusterako, Anakik hasierako apetatsu jarrera hori erabat aldatu du behin betiko.

**Protagonista da Amaia Lizarantzu arrasatearra**

Umeek hainbat bidetatik kontsumorako estimulu mordoa jasotzen dituzte; eta *Anaki*-k horiek guztiak gaindituko ditu.

**Teknologia berriak**

Logela Multimediak bi urteren ostean egin duen ekoizpena da *Anaki*. Teknologia berrien alorrean hamar urteko ibilbidean ikasitako teknika eta esperientzia onena ume eta gazteenei zuzendutako lanaren zerbitzura jarri dute. Euren esanetan, Logela Multimediak "inoiz ekoiztu duen lan konplexuena eta teknikoki zailena" da *Anaki*.

Ikus-entzunezkoetako askotariko diziplina artistikoak antzerkira eraman dituzte Logelako kideek. Hala, bideoa, animazioa, argiak, soinua, musika, zuzeneko aktoreen ekintzak... guztiz sinkronizatuak daude, mundu digital organikoa taula gainean sortuz eta komunikazio molde berrietan sakonduz. Inspirazio iturri asko erabili dituzte. Aipagarrienak, gidoi eta estetika aldetik, Tim Burton eta Hayao Miyazak zuzendariak dira.



Amaia Lizarantzu da antzezlaneko protagonista. | LOGELA MULTIMEDIA

**Aktore bakarra oholtzan**

Amaia antzokiko taula gainean Amaia Lizarantzu aktore arrasatearra arituko da; eta bidaia lagun izango du Kotaro robota.

Antzezlana bihar izango da, zapatua, 17:00etan, Amaian. Sarrerak salgai daude Kutxako atarian –*www.generaltickets.com*–,. 4 eurotan.

**Dantza garaikidea**

*Papiro Flexia* lanaren ondoren (2009) Logela Multimediak dantza garaikidea landu izan du Erresuma Batuko eta Errusiako hainbat dantza talderekin. Orain, berriz, euren ekoizpenarekin datoz.



San Pedro abesbatzako kideak. | ZUMAIAKO ABESBATZA

# Kantu tradizionalak eta egungoak, Zumaiako abesbatzaren eskutik

## Amaia Aldalur da Zumaiako San Pedro abesbatzako zuzendaria 2008a ezkero

A.E. | ARRASATE

Zumaiako San Pedro abesbatzak kontzertua eskainiko du San Juan parrokian bihar, zapatua, 20:00etan. Hainbat lan eskainiko dituzte, tartean euskal kantu tradizionalak, eta baita musika klasikoan ezinbesteko bilakatu diren musikarien lanak ere. J. Bustoren *Kanta Cantemus* lanarekin hasiko dute kantaldia.

**Amaia Aldalur zuzendaria**

Amaia Aldalur da abesbatzako zuzendaria. Donostiako Musika Kontserbatorioan piano eta ganbera musikako goi mailako ikasketak egin zituen. Zumaiako abesbatzaren zuzendaritza, ostera, 2008an hartu zuen. Biharko kontzertuan, Mari Karmen Azpeitiak jardungo du pianoa jotzen. San Pedro abesbatza 1984an sortu zen, parrokia koru gisa. Orain, hainbat musika estilotara zabaldu da.

# Batusi taldearen punk eta rock doinuak

A.E. | ARRASATE

Datorren eguenean, martxoak 24, Batusi talde galiziarrak kontzertua eskainiko du gaztetxean. Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan antolatutako kontzertua da Batusirena. Batusi taldeak punk eta rock doinuak eskainiko ditu.

Kontzertua 22:00etan izango da, 5 euroren truke. Hurrengo astean, Que Par Che antzerki taldeak *Lospardos* antzezlana eskainiko du gaztetxean. Kerobia, Malatu... izango dira hurrengoak.

# '127 horas' eta 'Ga'Hoole' filmak eskainiko dituzte

Domekan bi film ikusteko aukera egongo da Amaia antzokian. 17:00etan, haurrendako *Ga'Hoole: La leyenda de los guardianes* filma eskainiko dute. Zack Snyderrek zuzendutako filmak abentura kontuak ekarriko ditu Amaiara. 98 minutu irauten du lanak.

*127 horas*, ostera, drama bat da. 19:00etan eskainiko dute eta 12 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Danny Boylek zuzendutako filmak 96 minutuko iraupena dauka. James Franco da filmeko protagonista nagusia, eta Aron Ralston mendizalearen istorio erreala kontatzen du.

Salburu
GOZOTEGIA
OKINDEGIA
KAFETEGIA
Eguaztenetan
KAFEAREN EGUNA
Kafeak 1€
Infusioak 1€
Napolitana 1€
Kruasana 1€
Esne-opila 1€
OLARTE, 12 - ARRASATE - 943 79 81 56

Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta ogopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.
Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

# Arrizuriaga parkea txukundu eta zabaldu egingo dute udaberrian

- Zabaltzeko, premiazkoak diren txukuntze lanak baino ez dira egingo
- Sarrera nagusia, Ibargarai aldekoa eta errepide berrikoa izango ditu

**MONIKA BELASTEGI** | BERGARA

Udalak Arrizuriaga parkea herritarrendako zabaltzea erabaki du. Herriaren erdigunean Arrizuriaga bezalako berdegunea itxita egotea pena da eta hura erabilgarri jartzea erabaki dute. Horretarako, dena den, txukundu egin behar dute lehenik eta behin, eta lanok esleitzear da Udala. Hain justu ere, 33.848 eurotan atera zituen Udalak lanok lehiaketara presazko prozedura negoziatua erabilita, eta asteon bertan amaitu da aurkezteko epea.

Horrekin guztiarekin, Udalaren asmoa da ahalik eta azkarren hastea txukuntze lanak, "parkea ahalik eta azkarren zabaltzeko", Enara Minguez zinegotziaren esanetan. Hori horrela, udaberrian zabalik egongo dela aurreratu du Minguezek, oraindik data zehatzik eman ezin badu ere.



Ibargaraiko ziburuetatik sartu ahal izango da parkera; hori izango da sarreretako bat. | MONIKA BELASTEGI

### Txukundu egingo dute

Parkea txukuntzeko egingo dituzten lanei dagokienez, honako hauek dira: zorua berdindu egingo dute, gaur egun dauden lur pilak kenduta –txaleta bota zutenean eta errepide berria egitean sortutakoak–; parkean barrena dagoen bidexka erabilgarri lagako dute; sasiak kendu eta belarra moztuko dute; jauregiaren teilatuko ubidea konpondu egingo dute; harrizko hormetako ertzak egonkortu egingo dituzte zatirik eror ez dadin; eta eserlekuak ere jarriko dituzte.

Horrekin guztiarekin, herritarrek aisialdirako beste berdegune batez gozatu ahal izango dute herriaren erdigunean eta herriko gainerako parkeek duten arautegi berbera izango du. Hori horrela, ezingo da txakurrik sartu, besteak beste.

### Permutaren zain

Udal arduradunek esan dutenez, herritarrek ere eskatu izan dute Arrizuriaga parkea zabaltzea, baina permutaren gaia argitu bitartean zain egon direla azaldu dute. Eta gehitu dute: "Aldundiak Seminarioa-Arrizuriaga jauregia permuta atzeratu egin duenez, bada gehiago itxaron barik parkea irekitzea erabaki dugu".

**ESANAK**

**"Obra handi barik, parkea txukundu egingo dugu erabilgarri egon dadin"**

ENARA MINGUEZ
GOBERNAZIO BATZORDEBURUA

**DATUA**

**3**
SARRERA

Parkeak hiru sarrera izango ditu: ohiko nagusia, Ibargaraiko ziburuetatik eta errepide berrira ematen duena.

### Untzeta etxearen lorategia

Arrizuriaga izenarekin ezagutzen dugun arren, Untzeta jauregiaren loratategia da parke hori. XIX. mendearen bigarren erdialdean obra garrantzitsuak egin ziren Untzeta etxearen barruko zein kanpoko aldean. Beste birmoldaketa batzuen artean, paisaia motako loratategia diseinatu zuten garaiko modari jarraituz. Ortuak izandako lursailetan egin zuten, etxearen albo baten, nahiz eta gaur egun berriki eraikitako errepideak banatu egiten dituen jauregia eta haren loratategia.

XX. mende hasieran Arrizuriaga etxea eraiki zuten Untzeta jauregiaren loratategian; hortik izena.

## Adimen emozionalei eta sendabelarrei buruzko ikastaroetan lekua dago

**M.B.** | BERGARA

Adimen emozionalaren gaineko ikastaroa hilaren 30etik ekainaren 8ra izango da, 17:00etatik 19:00etara, Miguel Altuna institutuan, eta prezioa 30 euro da.

Izena emateko azken eguna hilaren 23a da, kultura etxean eta 943 77 91 59 zenbakian.

Sendabelarren ikastaroa, berriz, maiatzaren 10ean, 17an, 24an eta 31n izango da, 17:00etatik 19:00etara, kultura etxean. Prezioa 20 euro da, eta izenematea maiatzaren 3ra arte, kultura etxean eta 943 77 91 59 telefono zenbakian.

Udalak eta Bizikasik antolatu dituzte bi ikastaroak.

Jardun

LAN POLTSA

Jardun euskara elkarteak begiraleen lan poltsa osatu nahi du.

Interesatuak ekarri curriculum-a bulegora (Kultur etxea) edo bidali jardun@topagunea.com -era

Argibideetarako deitu
**943 76 36 61**
telefono zenbakira



MONIKA BELASTEGI

## Osintxuko sarrera itxita euriagatik



**Martitzen gauean eta eguazten goizean egindako euriak eragindako kalteen artean, ikusgarrienak Osintxun izan ziren: sarrera itxita egon zen goizean ur-baltsa handia egin zelako, eta baita auzoko errepidea ere, zuhaitz batekin batera lurra eta harriak erori zirelako bertara.**

# Maiatz hasieran ekingo diete San Pedro egokitzeko lanei

- Lehen fasean nabearen teilatua eta dorrea konponduko dituzte
- Lanok urtebete iraungo dute eta 1,2 milioi euroko aurrekontua dute

**MONIKA BELASTEGI** | BERGARA

Apiril bukaeran edo maiatz hasieran hasiko dituzte San Pedro parrokia berritzeko lanak, Jon Molina parrokoaren esanetan. Zetabi arkitektura bulegoak egindako proiektuan oinarrituta, eraikina erabat zaharberritzea da asmoa eta lanak hiru fasetan egingo dituzte. Lehen eta bigarren fasean kanpoko aldetik egokituko dute eliza; hirugarrenean, berriz, barrutik.

Hain justu ere, lehen faseko lanekin hasiko dira San Pedro zaharberritzen. Fase horretan dorrea eta elizaren nabearen teilatua konponduko dituzte. Dorreari dagokionez, egonkortu eta garbitzeaz gain, dituen gainerako elementuak ere konponduko dituzte, hala nola, kanpaiak eta erlojua. Kanpaien kasuan, gaur egun ez dira guztiak erabiltzen, batzuk mutu daude. Hotsa ateratzeko egiten duten mugimendu handia da eta mututu egin zituzten egitura gehiago ez kaltetzeko.



San Pedro parrokia Goenkaletik begiratuta. | MONIKA BELASTEGI

**Lehen faseko lanak**

Teilatuari dagokionez, erabat jasoko dute eta egurrezko egitura egoera nahiko onean dagoen arren, usteldUta dauden piezak ordezkatuko dituzte eta guztia egonkortuko dute.

Lehenengo faseko lanek urtebete inguru iraungo dute eta 1.200.000 euroko inguruko aurrekontua dute. Lehenengo faseko lanetarako Gipuzkoako Foru Aldundiak 400.000 euroko laguntza agindu diela azaldu du Jon Molina parrokoak.

Gainerako 800.000 euroko gastuari aurre egiteko, Amenabar enpresa eraikitzailearekin trukea egin dutela gehitu du Molinak: "Komenio kaleko 4. zenbakian daukagun eraikina emango diogu Amenabar enpresari, eta horren truke lehen fasean egin beharreko obrak egingo ditu Amenabarrek. Baita Sierbetako komentua zena erabat birmoldatu ere".

Lehenengo faseko lanak egiteko, eliza barruan dauden balio handiko hainbat elementu ondo babestu behar direla ere azpimarratu du Jon Molinak: "Organoa, Juan de Mesaren santo kristoa, erretaula nagusia, sakristian dagoen erretaula flamenkoa…Horiek guztiak ondo babestuko dira inongo kalterik jaso ez dezaten".

**Bigarren faseko lanak**

Zaharberritzearen bigarren fasea ere elizaren kanpoko aldeari dagokio: batetik, presbiterioko teilatua, sakristiarena eta sakristia inguruko eraikinenak konponduko dira; bestetik, fatxada ere zaharberrituko dute. Lanok beste urtebete inguru iraungo dute. Aurrekontuari dagokionez, oraindik zehazteke dagoela gehitu du Molinak: "Aurreneko fasea lasai has dezakegu", baina bigarreneko gastuari aurre nola egingo dioten oraindik ez dago erabat garbi. "Aldundiak bigarren faserako diru laguntza agindu digu, eta ondasun gehiago ere baditugu saltzeko, Goenkalen abadetxea izandakoa eta gaur egun abadeok bizi garen Masterrekako etxea, esaterako".

Hirugarren fase baten, eliza barrutik konpontzea da asmoa, baina hori egingo dute "finantziazio modua segurtatzeko biderik balego", Molinaren arabera. Argiteria sistema berritu nahi dute, berogailu sistema jarri, hezetasun arazoa konpondu, zorua berritu, guztia garbitu eta margotu eta elementu artistikoak zaharberritu.

## Sierbetan ere obrak egingo dituzte

San Pedro parrokiako lehen faseko lanekin batera, Sierben komentu izandakoan ere obrak egingo dituzte. Eraikina barruko aldetik erabat birmoldatzea da asmoa eta aurrekontua 1.100.000 euro inguru da. Halaxe azaldu du Molinak: "Elizkizunetarako tenpluaz gain, pastoral zerbitzuetarako lokalak ere behar ditugu, eta hor kokatuko dira". Hori horrela, gaur egun Komenio kaleko eraikinean egiten diren katekesi eskolak, bulegoak... Komeniora eroango dituzte. Era berean, abadeendako etxebizitza ere han egokituko dute, eta gaur egun Masterrekan dutena libre laga.

NIRE USTEZ



**MAITE PLAZAOLA**

## TAO sistema konponbide moduan

Irailetik abian dugu aparkalekuen errotazioa bultzatzeko plana: debaldeko TAO zerbitzua. Ordutik, hamaika iritzi entzun behar izan ditugu, zilegiak guztiak. Hala eta guztiz ere, usteak uste eta iritziak iritzi, denborak agerian utzi du plan horren benetako eraginkortasuna. Izan ere, oraindik arazoak dirauen arren, tarteka gure autoak uzteko lekuren bat aurki daiteke herrian.

Baina arauarekiko nire adostasuna ez dagokio noizbehinka leku bat aurkitzeko zortea izateari, arazoa autoarekiko dugun mendekotasuna baita eta ez aparkaleku falta. Aparkaleku gehiago egiteak arazoa areagotu besterik ez luke egingo eta aldaketa bergarararrongan dagoela pentsatzen hasi beharko genukeela uste dut.

Hau da, behar ez diren autoaren erabilpenak murriztuko bagenitu, ez litzateke aparkaleku gehiagoren beharrik izango eta egungo arazoa konponduko litzateke. Baina horrek bergarararron partetik esfortzu txiki bat eskatzen du... eta TAOk ahalegin hori egitera bultzatzen gaituela deritzot.

Horregatik, alaitasunez hartu dut TAO beste hiru kaletan zabalduko delako berria; mesede egingo baitio bai aparkatzerakoan dagoen arazoari eta baita oinez ibiltzera animatuko diren horien osasunari ere.

**"Aparkaleku gehiago egiteak areagotu egingo luke arazoa"**

# Makillaje ikastaroa antolatu du Jardun elkarteak apirilerako

**M.B.** | BERGARA

Jardun Euskara Elkarteak makillaje ikastaroa antolatu du apirilerako, Ihintza Orbegozo (Igaro) makillatzailearekin batera. Bi talde egongo dira: bata gazteena eta bestea helduena. Gazteen taldearen eskolak apirilaren 7an eta 14an izango dira eta helduenak, apirilaren 4an eta 11n, biak ala biak 19:00etatik 20:30era, kultura etxean.

Izenematea zabalik egongo da martxoaren 25a arte Jardun Euskara Elkartean. Jarduneko bazkideek 8 euro ordainduko dituzte eta gainontzekoek, 10 euro.

**Txorimalo lehiaketa**

XVII. txorimalo lehiaketa ere deitu du Erramu-zapatura begira Jardunek. Izenematea zabalik dago eta adinaren araberako bi multzotan parte hartu ahal izango da: 12 urtetik beherakoen taldean, batetik, eta 12 urtetik gorakoetan, bestetik. Txorimaloarekin batera, euskara bultzatzen lagunduko duen esaldi bat ere aurkeztu beharko da.

Lehiaketa apirilaren 16an izango da eta txorimaloak Ibargarai kalean ikusgai egongo dira 11:30etik aurrera. Sari-ematea, berriz, 13:00etan egingo dute. Lehiaketan parte hartzeko izena eman behar da eta azkeneko eguna apirilaren 8a izango da. Horretarako Jardun euskara elkartearen bulegora (Errotalde jauregia, kultura etxea) jo daiteke eta 943 76 36 61 eta 943 76 08 19 telefono zenbakietara deitu.



Neska bat, makillatzen. | GOIENA

## OHARRAK

**ORFEOIAK BATZAR OROKORRA EGIN DU**

Hilaren 22an urteko batzarra egingo duela jakinarazi nahi die bazkideei. Lehen deialdia 21:00etan da, eta 21:30ean bigarrena, entsegu lokalean.

**GAUR BATUKO DITUZTE IRITZIA EMATEKO KUTXAK**

Ezker Abertzaleak galdetegia bidali du etxeetara Udalak agintaldian egindako lana baloratzeko, eta herriko hainbat lekutan galdetegiok jasotzeko kutxak jarri dituzte. Eta jakinarazi nahi dute gaur batuko dituztela kutxok.

**IPINTZAKO IKASLEEN ZENBAKI SARITUAK**

Ikas-bidaiarako dirua ateratzeko Ipintzako 4. DBHko ikasleek Aratuste-zapatuan egindako zozketan bost saski banatu gabe geratu ziren. Zenbaki hauei dagozkienak: 482, 686, 592, 588 eta 515. Txartel horien jabeak institututik pasa daitezke martxoaren 25a aurretik saria jasotzera.

# Boluko igogailua apurtu izana salatu dute

**M.B.** | BERGARA

PSE-EE alderdiak salatu du hilaren 11n, gauean, ezezagun batzuek Boluko igogailuetako bat apurtu zutela. "Lotsagarria da halako bandalismo ekintzak gertatzea", esan dute. Izan ere, Aratuste-egubakoitzean, Santa Anatik Bolura igotzeko igogailuko kanpoko kristalak apurtu egin zituzten eta baita atea mailatu ere. Eta gehitzen dute: "Uste genuen halakoak iraganeko kontuak zirela; izan ere, gero eta kontzientzia handiagoa dugu herrian ditugun ondasunak zaindu egin behar direla. Are gehiago, guztion onerako badira, Boluko igogailua bezala. Ziurrenik, ekintza lotsagarri horren egileari onurarako ere bada igogailua. Halako biolentziarekin dihardunenak tratamendu psikologikoa beharko luke".

disdira
ile-apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55



Ezkerretik hasita, Eneko Lizarralde, Hodei Orobengoa, Beñat eta Jokin Etxabe. | LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA

# Eneko Lizarralde: "Eskulekuak alde guztietatik sartzen zituzten"

## Lokatzako lau ordezkari Espainiako txapelketan izan ziren, Asturiasen

**XABIER URTZELAI** | BERGARA

Joan den domekan, hilak 13, Lokatzako gazte mailako ziklistak Olloniegon (Asturias) egin zuten Espainiako kopako lehen proba puntuagarrian izan ziren. Hala, Bergarako ziklismo taldearen historian lehen aldiz izan dira Sumofic-eko txirrindulariak horrelako proba batean, eta lasterketan lortutako postu eta emaitzen gainetik, guztiek aho batez, asko ikasi dutela diote.

Lasterketan 182 txirrindulari izan ziren, tartean, estatu osoko 36 talde zeuden, eta euren artean talderik indartsuenak: Andalucia -Caja Granada, Fenavin, Almeria eta Cajamar, besteak beste. Eta tartean, euskal talde bakarra, Sumofic-Lokatza.

Ziklisten esanetan, tropelean aurrekaldean postua mantentzeko tentsioa inoiz ikusi dutena baino handiagoa zen. Lizarralderen esanetan, "eskulekuak alde guztietatik sartzen zituzten", liderra ondo kokatuta eramateko. Jokin Etxaberen esanetan, "Valencia Terra i Marrek talde osoa zeraman liderraren inguruan, ura eramaten, haizetik babesten...". Hitz baten esateko, profesionalek korritzen duten moduan ibili ziren; ikasgai ederra.

182 txirrindularietatik soilik 92 helmugaratu ziren (tartean Sumoficeko laurak), eta ibilbidean sei mendate izan arren, bataz bestekoa ia 38km/h izan zen. Esperientzia horren positiboa izan da, apirilaren 3an Gironan egingo duten bigarren proba puntuagarrian parte hartzeko aukerak aztertzen dabiltzala.

# Soraluce BKE, larritasun postuetatik urruntzen

## Bergarako mutilek bihar, zapatua, jokatuko dute Sucesores de Agirreren kontra, etxean

**X.U.** | BERGARA

Soraluce BKE poliki-poliki badabil helburuak betetzen, eta liga hasieran piztu ziren argi gorri guztiak amatatzen. Lehenengo itzulia *txukundu* egin zuten azken jardunaldietan, eta bigarren itzulia aurrera egiten dabilen honetan, jaitsiera postuak geroago eta urrunago dituzte Josetxo Muniategiren mutilek –joan den astean Usurbili irabazi izana aurrerapauso handia izan zen (35-36), talde hori jaitsiera postuetan murgilduta dagoen ordezkarietako bat da-eta, kontrario zuzena.

Asteburuan, berriz, ligako 22. jardunaldia jokatuko dute. Bihar, zapatua, izango da norgehiagoka, 17:00etan Labegaraietan. Sucesores de Agirre aurrealdean dabilen taldea da, baina igoera faseagatik borrokatzeko inongo esperantza gabe.

### Postu lasaiagoetan

Joan den asteko garaipenaren ostean talde bergararrak 19 puntu batu ditu, eta bost puntura ditu jaitsiera postuak. Hain zuzen ere, Usurbil da 15 puntu dituen taldea, jaitsiera postuetako lehen ordezkaria.

Joan den astekoa partidu oso bizkorra izan zen, eraso askokoa eta defentsa gutxikoa. Partidu ero horretatik, baina, Bergarak etekin handia atera zuen, gol bakarreko aldeagatik bi puntuak etxera.


Indautxuren kontrako partiduko erretratua. | GOIENA

# Bergarako zikloturistak errepidean dira

Dorletako Amari lore eskaintza eginez ireki zuen zikloturista denboraldia Bergarako Txirrindulari Elkarteak, domekan. 40 txirrindulari elkartu ziren bertan. Domekero irtengo dira, eta 3.000 kilometro egingo dituzte.


BERGARAKO TXIRRINDULARIAK

### Saskibaloi talde nagusiak liderraren kantxan jokatuko du

Soraluce BKE taldeak sekulako errepasoa eman zion joan den astean Alde Zaharrari (44-92), eta, aurrealdekoak harrapatzeko lasterketan, bihar, zapatua, Hernanin jokatuko dute lider dagoen Teklan Laser taldearen kontra (18:00). Bi taldeen artean hiru puntuko aldea dago.

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

UREDERRA ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

# Azkaiter Peloxek disko berria aurkeztuko du

A.E. | BERGARA

Emanaldi akustikoa egingo du Azkaiter Pelox & The Road Band taldeak gaur Arrano tabernan, 22:00etan hasita.

Unai Azkaratek disko berriaren aurkezpena egingo du; horretarako, gonbidatu berezien laguntza izango du, eta aurreratu du sorpresaz betetako gaua izango dela.

Azkaiter Pelox Band 2008-ko irailean Orioko Kosta tailerrean sortu zen proiektu musikala da. Kenon taldeko kideak, Mahaster Riverrekoak eta Orioko Txarangako musikariek hartzen dute parte, besteak beste, proiektu berrian. Gaua girotuko duten musikariak izango dira: Azkaiter Pelox bera, Raul Lozano bergararra eta Amaia Azpiazu oñatiarra.

# Gora Gora Kids eta The Hostile taldeen kontzertua gaztetxean

'Uaouh, miau & yeah!' diskoa aurkeztuko du Gora Gora Kids taldeak

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Garage-rock musika eskainiko du gaur Gora Gora Kids taldeak. Bergarako gaztetxean izango da kontzertua, 23:00etan. Gora Gora Kids taldea osatzen dute Donostia, Andoain, Iruñea eta Oñatiko kideek. *Uaouh, miau & yeah!* da taldearen lehenengo maketa; maketako lanez gain, abesti berriak ere joko dituzte Gora Gora Kids taldeko kideek.

2010ean grabatutako maketa da *Uaouh, miau & yeah!* Zortzi abesti batzen dituzte, eta, abesti gehienak euskaraz diren arren, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez ere abesten dute.

"Guk sortutako abestiak dira gehienak, baina The Rolling Stones eta Didley-ren bertsioak ere egin ditugu", azaldu du Arkaitz Villar taldeko kideak.



Gora Gora Kids taldeko kideak zuzeneko emanaldian. | GORA GORA KIDS

Orain dela 3 urte sortu zuten taldea: "Entseatzeko elkartu ginen eta horrela sortu zen". Dagoeneko sortu dituzte abesti berriak, eta horiekin maketa berria grabatzeko asmoa dute uda ondoren. Hilean kontzertu bat eskaintzen dutela dio Villarrek: "Uztailaren 8an Oñatin joko dugu".

ESANAK

**"Maketako abesti gehienak guk sortutakoak dira, baina bertsioak ere baditugu"**

ARKAITZ VILLAR | TALDEKIDEA

**The Hostile**

Donostiako eta Lasarteko taldea da The Hostile. Hard rocka metal ukituekin egiten dute, eta Bergarako gaztetxean aurkeztuko dute EP berria, *The Hostile* izenekoa, hain zuzen.

2007an sortutako taldea da The Hostile eta taldea osatzen dute Unai Pelaio, Iñaki Lujanbio, Jon Lasa eta Mikel Noguesek.

# Errege txantxazalearen istorio gordina

Panta Rhei antzerki taldeak 'Txantxilipurdi erregea' lana eskainiko du

A.E. | BERGARA

3 eta 9 urte bitarteko haurrei zuzendutako antzezlana bihar, zapatua, eskainiko dute. Zabalotegi aretoan izango da, 18:00etan. Sarrera 3 euro da.

**'Mari zikin' eta erregea**

Emilio Fernandez de Pinedo zuzendariaren aginduetara Idoia Aiestaran eta Fernandez de Pinedo bera ibiliko dira.

*Mari zikin* izango da antzezlaneko protagonista. *Mari zikin* kutxa fantastiko baten helduko da Zabalotegiko taula gainera. Maitasunaren unibertsotik etorritako pertsonaia zoragarria da *Mari zikin*; jolas, kantu, ustekabe eta lagun ugariz beteriko ekipajea ekarriko du, gainera, neskatoak. Beste pertsonaia bat *Txantxilipurdi erregea* izango da. Erregea oso txantxazalea da eta algara zoroak atereaz dibertitzen da bere gazteluko zelaian itzulipurdika. Ipotxen herrialdean guztia ondo egon zitekeela dirudi, baina, egia esan, erregeak tristura bat dauka.

**Haurraren irudimena**

*Txantxilipurdi erregea* antzezlanaren bitartez irudimena lantzeko tartea izango dute haurrek.

Haurrek lehenengo hartu-emana izango dute errealitatearekin, eta antzezlanaren bitartez pazientzia, fideltasuna, maitasuna eta halako balioak ikasiko dituzte.

Aipatutako aktoreez gain, taula gainean txotxongiloak ere egongo dira. Izan ere, hori da Panta Rhei taldearen berezitasun nagusia: bien bateratzea.

## Beartek 12 orduko akuarela tailerra antolatu du

Apirilaren 2an eta 3an izango da ikastaroa, guztira 12 ordukoa. Akuarela tailerreko irakaslea Armando Juez San Salvador izango da eta ikastaroa 125 euro kostako da, bazkide ez direnentzat. Ordutegia izango da: 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara. Interesatuok idatzi *beart.elkartea@gmail.com* -era edo deitu 635 71 32 69 zenbakira.

## Gaur zabalduko dute Aranzadi ikastolaren argazki erakusketa

Gaur hasi eta apirilaren 3ra arte egongo da zabalik Aroztegi aretoan Aranzadi ikastolaren 40. urteurrena ospatzeko antolatu duten argazki erakusketa. Ordutegia izango da: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara.

## Hamar taldek eman dute izena III. musika moderno lehiaketan

Apirilaren 10ean jokatuko den musika moderno lehiaketan parte hartzeko hamar taldek eman dute izena, tartean bi talde bergararrek. Gainontzeko taldeak dira: Zumarraga -Urretxukoak, Donostiakoak, Usurbilgoak, Ermukoak eta Legazpikoak. Musika Eskolak antolatu du lehiaketa, hirugarren urtez jarraian.



# Energia garbiaren aldeko apustua

## Eguzki plakak erosteko aukera dute oñatiarrek

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Foru Aldundiko ordezkariak Oñatin egon ziren martitzenean, hilaren 15ean, energia fotovoltaikoetan inbertitzeko "garrantzia" azpimarratzeko. Udalak herritarren eskura jarriko ditu kiroldegiko eraikin berrian eta merkatu plazan jarritako plakak. 750 eurotan salduko dituzte, eta 25 urtean %6ko etekina emango du urtero. Interesatuek informazio gehiago dute *www.gipuzkoafv.net* atarian edo 900 84 50 44 telefonoan. Oñatiarrek lehentasuna izango dute herriko plakak erosteko.

Azalpen horiek guztiak eman zituzten Foru Aldundiko ordezkariek. Besteak beste, Garapen Iraunkorreko diputatu Carlos Ormazabal egon zen. Lourdes Idoiaga alkatea ere egon zen ekitaldian.



Eguzki plakak. | GOIENA

**"Errentagarria da"**

Herritarren artean ikusmina sortu zuen Udalak Foru Aldundiarekin sinatu duen hitzarmenak. Ormazabal diputatuak esan zuen "kontsumitzen dugun energiaren %4-5 bakarrik produzitzen" dugula. Haren hitzetan, gainerako %95a "inportatu" egiten dugu. Hori horrela, Aldundiaren ekimen horren helburuak bi direla esan zuen: "Energia fotovoltaikoan inbertitzea lortu behar dugu, eta herritarrei produzitu behar duten energia erosteko aukera eman behar diegu". Gaineratu zuen energia garbia produzitzea "errentagarria" dela, eta etorkizunean, orain herritarrei egiten dieten inbertsio proposamena enpresei egingo dietela esan zuen.

**Simulazioa egiteko aukera**

Bestalde, Foru Aldundiko teknikariek webgunearen gaineko azalpenak eman zituzten. Interesa duten guztiak sar daitezke atarian, eta simulazio bat egiteko aukera dute: erosi gura dituzten plakak zehaztu –gehienez, zortzi–, norberak duen nomina ipini, eta orriak zuzenean kalkulatzen du zenbateko etekina aterako dion eguzki plakari.

Foru Aldundiak Zarautzen, Oñatin, Elgoibarren eta Zegaman jarriko du abian energia garbia sortzeko proiektua. Azken bi horietan egin zuten aurkezpena aurreko astean, eta datuak ere badituzte: ordutik hona, 1.300 erabiltzaile sartu da atarian informazio esker, eta 218 erosketa-eskaera egin dituzte.

# 12 oñatiarrek bukatu zuten emakumeendako lilaton proba

M.B. | OÑATI

Hilaren 13an jokatu zuten Donostian 22. lilaton proba. 2.400 emakumek hartu zuten irteera, tartean 12 oñatiarrek (ikus beheko taula). Guztiek egin zituzten bost kilometro Donostiako kaleetan. Alderdi Ederren hasi zuten proba, eta Bulebarrean bukatu. Guztien artean azkarrena Pili Bodegas izan zen, eta Rosi Talavera sailkatu zen bigarren.

Parte-hartzaile guztiek jaso zuten kamiseta bana.

**III. lilaroller proba**

Bestalde, hirugarren urtez jarraian lilaroller proba egin zuten egun berean. Korrikalariek egin beharreko proba bera egin zuten, baina patinetan. Amaia Corral izan zen azkarrena, eta proba horretan hiru oñatiar lehiatu ziren: Nerea Mendiola (13.22) bederatzigarren heldu zen; Nuria Calzada (16.22) 31. lekuan eta Nerea Txintxurreta (16.24) 32. lekuan. Lilaroller proba 67 patinatzailek bukatu zuten.

**OÑATIARRAK LILATON PROBAN**

| POSTUA | IZENA | DENBORA | POSTUA | IZENA | DENBORA |
|---|---|---|---|---|---|
| 238 | Ainara Corrales | 24.39 | 798 | Rakel Santos | 29.21 |
| 436 | Susana Arrese | 26.06 | 809 | Arantxa Barrena | 28.59 |
| 576 | Miren Urkiola | 28.12 | 850 | Itziar Igartua | 29.12 |
| 758 | Mari Jose Ibarrondo | 28.42 | 1.597 | Ainhoa Ezeolaza | 32.21 |
| 770 | Nuria Velasco | 28.59 | 1.599 | Sandra Madina | 32.21 |
| 782 | Mari Mar Blanco | 28.47 | 1.601 | Usue Ugarte | 32.22 |

ITURRIA: LILATON.COM



MIREIA BIKUÑA

## Euskadi etorbideko bidegorria

Bukatu dituzte Euskadi etorbideko bidegorria egokitzeko lanak. Errepide erdian jarri dute bidegorria. Autoek abiadura murriztu dezaten, Frantzian eta Holandan erabiltzen duten sistema ipini dute. Autoaren zabalera berean, alegia, 1,80 metroan, abiadura moteltzeko zoru berezia ipini dute. Zoru bereziak autoaren abiadura murriztuko du. Autobusak zabalagoak direnez, ez dute arazorik izango.

# Trakzio mekanikodun ibilgailuen zerga ordaintzeko borondatezko epea zabalik apirilaren 22ra arte

M.B. | OÑATI

Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea zabalik dago apirilaren 22ra arte. Ordainketa helbideratuta duten herritarrek jaso dute dagoeneko kobrantza. Aldiz, zerga eskura ordaindu behar dutenek gutuna jasoko dute etxean, eta udal bulegoetan egin beharko dute ordainketa 09:00etatik 14:00etara, borondatezko epea bukatu aurretik. Azken horiek 1.084 ordaingiri dira. Horietatik, 586k egin beharko dute ordainketa. Gainerakoek (498) ez dute zerga ordaindu beharko ondorengo baldintzetako bat betetzen dutelako: ibilgailuak 25 urte baino gehiago dituelako, minusbaliatuendako ibilgailua delako, edo baserrian erabiltzeko ibilgailua delako.

Borondatezko epea bukatuta ordainketa egin ez duenari errekargua jarriko diote. Hasieran %5eko igoera izango du. Hori ordaindu ezean, Udalak errekerimendua bidaliko dio %15eko igoerarekin. Hala ere, ordaintzen ez badu, %20ko igoera izango du.

**2010etik igoera txikia**

Ibilgailuren bat etxean duten herritarrek ordaindu beharreko zerga da trakzio mekanikodun ibilgailuena. Bakoitzak duen zaldi potentziaren araberakoa da ordaindu beharreko kopurua. Oñatin, guztira, 7.133 ibilgailu daude. Horietatik gehienak, 6.079, autoak dira. Gainerakoak, berriz, autobusak, kamioiak eta bestelako ibilgailuak dira.

Udal zerga bilketa zerbitzuan esan digute urtetik urtera igo egin dela ibilgailuen kopurua herrian. "Dena den, azken urtean igoera txikiagoa izan da. Gehiago daude, baina ez beste urte batzuetan egondako beste. Portzentajea txikiagoa da", diote.

Zerga horren gaineko informazio gehiago gura duenak udal bulegoan galde dezake.

## Oñatiko mendizaleak ibilaldi neurtuan

Bi solairuko autobusa abiatu zen aurreko domekan, hilaren 13an, Soraluzera. Mendizale gazteek eta helduek parte hartu zuten eskolarteko 24. mendi lehiaketan. Gazteak launaka edo bosnaka antolatu ziren, eta ibilbidean zeuden lau kontrol-guneetan sinatu behar zuten txartela. Bukaeran, diploma jaso zuten.



MIREIA BIKUÑA



Oñati Abesbatzako kideak emanaldi batean. | KARLOS OLALDE

# Oñati Abesbatzaren bisita Chateaubernard-era

## Bi kontzertu egindo dituzte hilaren 25etik 27rako aste bukaeran hango beste abesbatza batzuekin

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñati Abesbatzak bisita egingo du Chateaubernard-era hilaren 25etik 27ra. Oñatirekin duten senidetzea aprobetxatuz hainbat kontzertu egingo dituzte hango beste abesbatza batzuekin.

Egubakoitzean, hilaren 25ean, irtengo dira Oñatitik. Cognac-era heldu ondoren, entsegua egingo dute hango gazteen abesbatzarekin, eta kontzertua egingo dute. Abesbatza bakoitzak bere kantuak eskainiko ditu, eta bukaeran bi kantu abestuko dituzte elkarrekin.

**Kontzertu nagusia zapatuan**

Kontzertu nagusia zapatuan, hilaren 26an, egingo dute. Oñati Abesbatzarekin batera beste bost abesbatza igoko dira oholtza gainera. Oñatiarrek eurek aukeratutako hainbat kantu abestuko dituzte; besteak beste, Aita Madinaren *Aita gurea* eta *Beti eskamak kentzen*, Jose Mari Artzuagaren *Bihotz baten ordean*, eta *Maitia nun zira*.

Abesbatza bakoitzak aukeratutako kantuak abestu ondoren, guztiek elkarrekin abestuko dute, kontzertuari bukaera emateko.

Aste bukaera amaitzeko, domekako mezan parte hartuko dute oñatiarrek. Seguruenik, *Aita gurea* abestuko dute.

**Egonaldia familietan**

Oñatiren eta Chateaubernarden senidetzearen haritik dator Oñati Abesbatzak Cognac aldera egingo duen bisita. Iaz ere egon ziren. Trukea izanik, egonaldia hango familietan egiten dute. "Gehienak familiekin geratzen gara, baina beste hainbatek hotelean egiten dute egonaldia. Gu oso gustura goaz. Ea, bada, gure errepertorioa gustatzen zaien", esan digu Oñati Abesbatzako presidente Jose Antonio Azpiazuk.

Oñatiarrek egingo duten bisitaren trukean, Chateaubernard-eko ordezkariak gurera etorriko dira. "Itzulerako bisita egingo digute, baina ez dira abestera etorriko", dio Azpiazuk.

## Misio taldeak elkartasun afaria egingo du gaur Bidaurretako fraideen etxean, 20:30ean

Hileroko ohiturari jarraituz, Parrokiako Misio Taldeak elkartasun afaria egingo du gaur, 20:30ean, Bidaurretako fraideen etxean. Menua hau izango da: tortilla-patata, letxugarekin, eta edateko sagardoa. Afalostean, Kolonbiako proiektuaren gainean egingo dute berba. Bestalde, Misio Taldeak eskerrak eman gura dizkie Aratuste-martitzenean txokolate-janean parte hartu zuten herritarrei.

## Herriko ehiztaririk onena aukeratuko dute etzi, domekan, Zanbranako txapelketan

Pago Uso elkarteak eta Alzu dendak antolatuta, herri mailako ehiza txapelketa jokatuko dute domekan, hilaren 20an, Zanbranan (Araba). Txapelketa 09:00etan hasiko dute, eta 13:30era arte ehizan egiteko aukera izango dute parte-hartzaileek. Pieza gehien harrapatzen dituena izango da irabazlea. Iaz, Jose Ignacio Leibarrek jantzi zuen txapelketa hamargarren aldiz, bi eper eta hiru faisai akabatuta.

## 60 parte-hartzaile espero dituzte basoko 3-D arku-tiroketako euskal ligako proban, domekan

Basoko 3-D arku-tiroketako euskal ligako hirugarren proba jokatuko dute domekan, Txantxiku arkulariak taldeak antolatuta. 60 tiratzaile espero dituzte Zozo-pase inguruan, 09:30ean. Euskal ligarako puntuagarria da –ligak bost jardunaldi ditu–, eta berez Araban jokatu behar zuten, baina azken orduko arazo batek Oñatira ekarri du proba. Arku-tiratzaile onenak lehiatuko dira, eta zazpi oñatiar egongo dira.

## Extremadurako jakiak Corazon de Encina elkartekoekin

Arrasateko Corazon de Encina kultura elkarteak Extremadurako jaia egingo du domekan, hilaren 20an. Foru plazan jarriko dituzte hainbat postu 11:00etatik 14:30era arte. Alde batetik, Extremadurako jakiak dastatzeko aukera egongo da; besteak beste, ogi-mamiak. Beste alde batetik, hango produktuak erosteko aukera ere izango da.

## Herri batzar irekia egingo dute bihar kultura etxean, 11:00etan

Oñatiko Ezker Abertzaleak herri batzar irekia egingo du bihar, 11:00etan kultura etxean. Antolatzaileek dei berezia egiten diete herritarrei batzarrean parte hartzeko: "Une politikoak ezkertiar eta abertzale garen guztion parte-hartzea eskatzen duen honetan dei berezia luzatu gura dugu herri batzarrean parte hartzeko".

## BETERANUAK

| EMAITZAK, B TALDEA | |
|---|---|
| Zorrobero-Txarrixak | 2-2 |
| Etxaixat-Jai Ari | 4-0 |
| Lozorromo-Paketinaikos | 10-0 |
| Albok-Kalañatasaray | 3-1 |

**SAILKAPENA, "A" TALDEA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | The Gibel Boys | 23 | 9 |
| 2 | Xaguxar | 18 | 9 |
| 3 | Joxely | 16 | 9 |
| 4 | Doolygans | 16 | 9 |
| 5 | Indar 85 | 15 | 9 |
| 6 | Gaur Bai | 13 | 9 |
| 7 | Bundeswehr | 12 | 9 |
| 8 | Txuskos | 5 | 9 |
| 9 | Nandrolona | 3 | 9 |
| 10 | Ankarteko | -3 | 9 |

**SAILKAPENA, "B" TALDEA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Albok | 19 | 8 |
| 2 | Txarrixak | 19 | 8 |
| 3 | Kalañatasaray | 16 | 8 |
| 4 | Zorrobero | 15 | 8 |
| 5 | Sasquatch | 12 | 8 |
| 6 | Lozorromo | 11 | 8 |
| 7 | Etxaixat | 9 | 8 |
| 8 | Paketinaikos | 3 | 8 |
| 9 | Jai Ari | -4 | 8 |

**PARTIDUAK, KOPA FINAL 1/8**

**Zapatua 09:00** Jai Ari -Ankarteko
**Zapatua 13:30** Txuskos-Paketinaikos

**PARTIDUAK, LIGA 1. TALDEA**

**Zapatua 13:00** Gibel Boys-Zorrobero
**Zapatua 14:30** Joxely-Txarrixak

**PARTIDUAK, LIGA 2. TALDEA**

**Zapatua 18:30** Albok-Dollygans
**Zapatua 20:00** Kalañatasaray-Xaguxar

**Arduraduna kopa:** Joxely
**Arduraduna 13:00-14:30:** Txuskos
**Arduraduna 18:30-20:00:** Paketinai.

**GOLEGILE NAGUSIA.**

'BERE' SARIA
**Aitzol Guridi (Txarrixak) 18 gol**
**Karlos Gonzalez (Zorrobero) 13**
**Joseba Agirre (Txarrixak) 13**
**Jokin Biain (Lozorromo) 11**

### Bigarrena fasea hasiko dute aste bukaeran

Aste bukaeran hasiko dute beteranuetako bigarren fasea. Liga erregularrean, multzo bakoitzean, lehen lau tokietan sailkatu diren taldeak liga jokatuko dute eta gainerako guztiek kopa txapelketa.

## NIRE USTEZ

ARATZ LOSADA



# Harrobiaz... harro?

Kepa Junkeraren *Harrobiaz, harro* kantua jarri irakurtzen hasi aurretik.

Azken hilabete hauetan komunikabide ezberdinetan harrobiaren gaineko iritzi ezberdinak ikusi ahal izan ditut, eta gaurkoan gai honen inguruko eztabaida txiki bat piztu nahi nuke.

Futbolaren egoera ekonomiko larria aintzat hartuta, taldeen harrobiko lanak berebiziko garrantzia hartzen duela argi dago. Baina nik galdera bat egin nahi dizuet: *Ze da harrobiko jokalaria? Ze adinetara iritsi beharko du etxeko jokalari dela esateko?*

Athleticen kasuan, galdera hauek sarri aztertzen dira mahai-inguru ezberdinetan. Kirol filosofiari dagokionez, printzipio nagusi bat du. Haren harrobian bertan eta Euskal Herriko klubetan hazitako jokalariek soilik joka dezakete talde zuri-gorrian.

Hasieran, Bizkaiko harrobiarekin nahiko zuen, baina azkenaldian, euskal lurraldeetako beste harrobietan eskua sartzen hasi dira.

Zilegia iruditzen zaizue 11 urteko nafar bati Lezamara joateko eskaintza egitea? Arrakastara begira prestaten da kirolaria beti, baina zenbat dira bidean gelditzen direnak? Nork prestatzen ditu porroterako?

Formakuntza goiztiar honen gainean, klubek eta jokalarien gurasoek hausnarketa sakon bat egin beharko luketela uste dut.

**"Kirolaria arrakastarako prestatzen dute beti"**

## OHARRAK

**DEIALDIA**

1988an jaiotakoek kintada egingo dute martxoaren 26an. 20 euro sartu behar dira 3035 0170 54 1700025371 kontuan, hilaren 19a baino lehen.

**HITZALDIA**

*El sistema solar, los expoplanetas y la busqueda de vida* delako hitzaldia egingo du Ricardo Huesok, Ulma Taldearen 50. urteurreneko ekitaldien barruan. Hilaren 24an izango da, Ulmako auditoriumean, 18:00etan.

**PLASTIKOAK**

Baserrietan pilatutako plastikoak batuko dituzte hilaren 22an. Oñatin lau lekutan: Murgian Asentzio ermitaren ondoan, Zañartun Zuazola inguruan, Olabarrietako autobus geltokian eta ETEO atzealdean. Plastikoak aurreko egunean atera behar dira.

# Txarapeako etxeen lanak geldi egon dira astean, eta jabeak kezkatuta daude

## Lau etxe bloke ditu oraindik bukatzeko Bruesak, 120 etxe baino gehiago; atzo, eguena, hasi ziren berriro lanean gremioetako langileak

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Txarapea ibilbidean oraindik bukatu barik dauden lau bloketan lanak geratuta egon dira hiru egunean. Tasatutako etxe horien jabeek zaplasteko galanta hartu zuten berria jakiterakoan, nahiz eta Bruesak zuzenean ezer ez jakinarazi. Atzo, eguena, berriro hasi ziren lanean gremioetako langileak, baina jabeen ezinegona gero eta handiagoa da; bizi duten egoera salatu gura izan dute.



Atzo, eguena, hainbat gremiotako langileak lanean Txarapeako bigarren blokean. | M.A.

### Paper kontua

Tasatutako 232 etxe dira Txarapea ibilbidean daudenak, Markole auzoan hasi eta Lausitta kaleraino. 12 bloketan banatuta –bi babes ofizialekoak dira–, 10 dira Bruesarenak, eta horietatik bukatzeko dituenak lau, 128 etxebizitza. Bi bloke, bosgarrena eta seigarrena, Aste Santu osterako hitzemanda dauzka, apiril bukaerarako, hain zuzen. Eta azken biak, lehenengoa eta bigarrena, uztailaren 31rako.

Oraingo geldialdiaren arrazoia ez dago argi eta "kasualitatez" jakin dute bai jabeek, bai Udalak: "Langile batek esan zigun astelehenean administratzaile konkurtsalak esan zuela lanak geratzeko", jakinarazi du Inaxio Garro alkateak.

Amaia Arroyo arrasatearra da lehenengo blokean etxea duen jabeetako bat: "Lehenengo blokea, baina azkena", dio, etsipenez. Arroyok azaldu du Kutxak obraren finantzazioa bermatzen duela, baina, antza, Bruesarekin idatzizko hitzarmenik ez zuela eta hori jaso gura zuela: "Paper kontu bat falta den bakoitzean geratuko dituzte lanak?", dio, kezkatuta.

**DATUA**

**6**

URTE

2004ko abenduan egin zuten etxe tasatuen zozketa. Bukatzeko dauden lau blokeetako jabeek sei urte daroate etxeen zain.

### Emozionalki jota

Oraingo geldialdia hiru egunekoa izan da, baina aurretik lau hilabete baino gehiago izan ziren. Bruesa eraikuntza enpresak lege kontsurtsalean sartzea eskatu zuen iaz, uztailean, eta gremioetako langileei ez zielako ordaintzen lau hilabete inguru geldi egon ziren lau blokeetako lanok, uztailetik azarora bitartean. Azkenean, Bruesaren, Kutxaren eta gremio hartzekodunen artean hitzarmena sinatu zuten lanak jarraitzeko.

Halako geraldiekin Bruesa bere buruaren kontra egiten dabilela uste du Arroyok: "Etxeen erdia ordainduta dugu, baina abala efektibo egiteko eskubidea daukagu, kontratuaren iraungitze epeak pasatuta daudelako. Batzuek efektibo egin dute, eta diruarekin alde egin".

Izan ere, luze doa jabe horiendako etxea eskuratzeko denbora. 2004ko Gabonetan egin zuten etxe tasatuen zozketa, eta, behin baiezkoa emanda, etxeen zain daude ordutik: "Ez da gastu ekonomikoa bakarrik, askok zubi-kreditua eskatu behar izan dute-eta errentan bizi izateko; desgaste emozionala handia da". Hori horrela, tartean dauden guztiei, Kutxa, Udala eta Bruesa, lanok lehenbailehen bukatzeko ahalegin guztia egin dezaten eskatu die.

# Mikel Uribetxebarria da EAJren alkategaia

**M.A.** | ARETXABALETA

Aretxabaletako EAJk Mikel Uribetxebarria Barrena (Aretxabaleta, 1968) hautatu du maiatzeko udal hauteskundeetarako alkategai. Eta zerrenda osoa osatzeko lanetan dabil orain.

### Zinegotzi izandakoa

Cegasa Taldean egiten du lan Uribetxebarriak, Gasteizen, eta bi seme-alabaren aita da. Euskarari lotuta egon da urte askoan; izan ere, Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendi elkarteko presidente izan zen 1998-2000 artean, eta Atxabalta Telebistaren sortzaile. Goienaren sorreran ere egon zen, 2000. urtean.

Udal jardunaren berri ere badu Uribetxebarriak: 2003. eta 2007. agintaldietan Udal Gobernuko zinegotzi izan zen. EAJko alderdikideak sinistuta daude industria enpresako "kudeatzaile zorrotz eta trebatua" izateak Aretxabaletak behar dituen bermeak eskainiko dituela. Eta jakinarazi dute barne kudeaketa birbideratu, herria biziberritu eta herri gisa kalitate eta eragin-kortasun gaitasuna berreskuratzea izango direla EAJren helburu nagusiak.


Mikel Uribetxebarria. | M.A.

# 200 bat lagun Urkulun zuhaitzak landatzen


M.A.

Zuhaitzak landatzeko giro ezin hobea izan zuten joan den domekan Urkulun –Markietegi baserri alboan– elkartu ziren herritarrek, gehienak gurasoak umeekin. Ibilalditxoa goxatzeko trikitilariak izan zituzten lagun, eta gero, ametzak, haritzak, urkiak, gereziondoak, arteak eta hostazuriak landatu zituzten.

## OHARRAK

**1969AN JAIOTAKOEN KINTO BAZKARIA**

1969an jaiotakoek bazkaria egingo dute Astigarragako Garziategi sagardotegian apirilaren 2an. Izena emateko Gurea tabernara edo Belar Meta jantzi-dendara jo; azken eguna, martxoak 26.

**GALIZIARA IRTEERA ANTOLATU DU BASOTXOK**

Apirilaren 25etik maiatzaren 1era bitartean, Pazko Astean, Galiziara joango dira Basotxoko erretiratuak. O Grove, Cambados, Santiago, Sanxenxo, Baiona eta inguruak ezagutuko dituzte. Izena emateko hiru egun jarri dituzte: martxoak 21, 22 eta 23, Basotxoko egoitzan (11:00-12:00).

# Arkuperako gonbidapenak banatuko dituzte merkatariek

**M.A.** | ARETXABALETA

*Merkataritza kulturan blai* ekimena jarriko dute abian Udalak eta merkatariek apirilean. Arkupen antolatutako ikuskizunetarako –kontzertuak, zinema, antzerkiak...– gonbidapenak banatuko dituzte bezeroen artean ekimenarekin bat egin duten merkatariek.

### Sarrerengatik trukatzeko

Iaz jarri zuen abian lehenengoz Udalak merkataritza eta kultura uztartzeko ekimena. Orduan 37 merkatari eta ostalaritza zerbitzuk hartu zuten parte. Oraingoan 17 izango dira, batzuk lehen ere bat egin zutenak, Lie lurrindegia eta Rosi mertzeria, esaterako; eta beste batzuk berriak, Santa Kurtz supermerkatua, tartean. Horren berri ematen duen eranskailua izango dute jarrita guztiek.

Merkatari horietako bakoitzak 30 gonbidapen jasoko ditu hilabetean, Arkupen egongo diren ekitaldi ezberdinetarako. Gonbidapen horiek 20 eurotik gorako gastua egiten duten bezeroen artean banatuko dituzte merkatariek, eta gero, sarrerengatik trukatu beharko dute Arkupeko harreran. Lehenengo gonbidapenak apirileko ekitaldietarako izango dira.

Gonbidapen horiek erabiltzen dituztenen artean zozketa egingo dute uztail bukaeran, eta herriko dendetan erabiltzeko bi bono banatuko dituzte.




Ekimenaren berri ematen duen eranskailua izango dute dendek. | M.A.

# Argazki Taldeak antolatuta 'Aretxabaleta atzo eta gaur' emanaldia bi egunean

Martitzenean eta datorren egubakoitzean emango dute, Arkupen (19:00)

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Argazki Taldeak ikus-entzunezkoa antolatu du Aretxabaletak azken urteotan izandako aldaketen berri eman eta Udal Artxiboak gordeta dauzkan argazkiak ezagutarazteko. *Aretxabaleta atzo eta gaur* izena duen emanaldiak 25 minutu irauten du, eta martitzenean, hilak 22, eta egubakoitzean, hilak 25, botako dute Arkupeko Zaraia aretoan (19:00).

### Zortzi ataletan banatuta

XX. mende hasierako argazkiak dira emanaldiko zaharrenak, eta berrienak, egungoak. Horietako asko Manolo Urtubi argazkilariarenak dira, Argazki Taldeko kidea eta emanaldi horren burutazioa izan duena. Gainerakoak, batez ere antzinako erretratuak eta herriko jaietan ateratakoak, herritarrek emandakoak dira.

Zortzi ataletan bildu dituzte argazkiak: herria –kaleak eta inguruak–; auzoak –elizak eta armarridun baserri asko–; jaiak –Andramaixak, San Migelak, Aratusteak...–; kirola –ziklokrosa, futbola, xakea...–; natura –Urkulu inguruak, paisaiak...–; elurra –herria eta inguruak elurtuta–; trena; eta industria –Copreci, Beroa, Tubos de Precision...–.





XX. mende hasierako argazkia eta egungoa. | ARGAZKI ARTXIBOA

## Munduko emakumeen berri ematen duen ipuin kontaketa bihar

Autu Mautu ipuin kontalariaren bitartez bost kontinenteetako emakumeen kultura eta ohiturak ezagutzeko aukera izango dute neska-mutikoek bihar, zapatua, Udal Liburutegian (11:30).

*Emakumeak munduan* izena duen kontaketak musika eta irudiak izango ditu lagun, eta bizi izateko era desberdinak erakutsiko dizkie bost urtetik gorako ume eta gaztetxoei. Narrazio horien helburua da emakume eta gizonen arteko harremanak sendotuz mundu hobea lor daitekeela jakinarazi eta erakustea txikienei.

## Herriko bideen inbentarioa hilabete bukaera arte ikusgai

*Aretxabaletako landaguneko errepideen eta herri erabilera zein bide zorra duten bideen inbentarioa* deritzon dokumentua idatzi du Udalak. Arkupe kultura etxeko bigarren solairuan jarri dituzte bide ezberdinen planoak herritarrek ikusi eta ekarpenak egiteko, eta martxoa bukatu artean egongo dira bertan.

Udalak egindako lana aurrerapen bat da, zirriborro bat, eta herritarren ekarpena ezinbestekoa dela uste du, lana osatu eta zehaztasun gabeziak zuzentzeko. Ekarpen horiek udaletxeko harreran aurkeztu behar dira.

## Harren poltsa herrian bertan dagoen pinuan

**Pinuetan dauden poltsa zuriak dagoeneko herrian bertan ere baditugu; izan ere, horietako bat Basotxoko egoitza aurreko pinuan agertu da. Herritarrak kezkatuta, kendu egin dute bertatik eta barruan har txikiak zituela frogatu zuten. Pinuetako poltsa zurietatik harrak ateratzen hasita daude eta han eta hemen agertzen hasi dira.**



M.A.

## NIRE USTEZ



**GORKA ETXABE**

# Japonia gogoan

Nire asmoa ez zen Japoniaren gaineko letrarik idaztea, baina Hego Koreako lagun baten deiak eta Gotzon Garateren atsotitzek bertara eraman naute. Martxoarekin lotutako dozenaka atsotitz zenbatu ditu Garatek, ikusgai *http://www.ametza.com/bbk/htdocs/garate.htm* helbidean. Klima, natura, bizitza bera lotzen dituzte euskal atsotitzek. Hona batzuk: *Eguzki ta euri, martxo egualdi*; *martxo euritsu, urte ogitsu*; *martxo lehorra, maiatza bustia*; *martxoko trumoia, berrogei eguneko ekaitza*...

Azkenak Japonia dakarkit burura, trumoia ez da nolanahikoa izan eta ekaitzak tamalez 40 egun baino gehiago iraungo du. Martxoaren 16an lagun hegokorear batek dei egin dit. Atsekabetuta dago, japoniarrak anaiak dituzte; horrenbeste sufrimenduri nola egingo diote aurre? Negargura duela esan dit. Pello Ramirezen *Suaren Ura* eta *Isiltasunera arte* kantuak entzuten idatzi ditut lerro hauek eta sekulako bihotzeko mina sentitu dut. Benetan da gogorra Japoniakoa. Lurrikara, itsasoak gora, zentral nuklearraren mehatxua. Zenbat duintasun erakutsi duten. Lagun hegokorearrarekin bazkaldu dut asteburuan; Hego Koreako KBS telebista kateko korrespontsala da Madrilen eta gertutik jarraitzen ari da Japoniakoa. "Herri langilea da, diziplina handikoa eta egingo diote aurre egoera latz honi", esan dit. Ea horrela den. Tartean lagundu beharko genieke. Nola? Norberak aurkitu dezala bere bidea.

**"Horrenbeste sufrimenduri nola egingo diote aurre? Negargura du"**



Zubizarreta eta Nieto, martitzenean, Egokiena elkartean. | MIRIAN BITERI

**Jose Juan Zubizarreta eta Roberto Nieto** | Muslariak

# "Ez genuen uste mus txapelketan amaieraraino iritsiko ginenik"

- Eskoriatzarrak laugarrenak izan dira Euskal Herriko mus txapelketan
- Sari ederra jaso dute: 500 euro, euskaltegirako bi bonu, ardoa eta gazta

**MIRIAN BITERI** | ESKORIATZA

Euskal Herriko mus txapelketako finala jokatu da asteburuan Urruñan, eta Jose Juan Zubizarreta *Piter* eta Roberto Nieto laugarren geratu dira. Meritu ederra daukate, Euskal Herri osoko 250 herritara iritsi delako aurten txapelketa eta 2.207 bikotek parte hartu dutelako.

**Zorionak, lehenik eta behin. Laugarren izatea espero zenuten?**

**J.J. Zubizarreta:** Ez. Jende asko aurkeztu da aurten eta ez genuen uste amaieraraino iritsiko ginenik. Parte hartzera joan gara, ondo pasatzera.

**Roberto Nieto:** Gainera, zortzi erregetara jokatzera ohituta gaude, eta han lau erregetara jokatu dugu; oso ezberdina eta zaila da. Baina ondo ibili gara.

**Lehenengo aldia zen txapelketan parte hartzen zenutena?**

**J.J.Z.:** Hala da. Aitzorrotz kultura elkartearen eskutik, urteak daramatzate Inkernun antolatzen, eta elkarteko Iñaki Kortazarri esker izan genuen horren berri. Aurten, herriko 12 bikote inguruk parte hartu dugu.

**Nolakoa izan da txapelketa?**

**R.N.:** Ez nuen uste horren handia izango zenik txapelketa; baina oso ondo antolatuta egon da. Niretako larregi izan bada ere, nahiko ondo joan da dena.

**J.J.Z.:** Eskoriatzatik bi bikote sailkatu ginen Segurara joateko. Gipuzkoako txapelketa jokatu genuen han; zortea izan genuen, eta, 130 bikotetik gora baginen ere, Euskal Herrikorako sailkatzea lortu genuen, beste 31 bikoterekin batera. Seguran lau erregetara jokatu behar izan genuen; lehenengo aldia zen, baina ondo irten zitzaigun. Urruñan egun osoa eman genuen jokatzen; zortzi partida.

**Zein da gakoa?**

**R.N.:** Musean apur bat jokatzen jakin behar duzu; zortea ere ezinbestekoa da.

**J.J.Z.:** Garrantzitsuena da txapelketetara ondo pasatzeko helburuarekin joatea.

**Noiztik zarete muslariak?**

**J.J.Z.:** Betidanik. Etxean aitarekin jokatzen nuen, eta gero koadrilarekin.

**R.N.:** Berandu hasi nintzen; orain dela 15 bat urte. Kanpora goazenean, *Piter*-rekin jokatzen dut.

**Datorren urtean parte hartzeko asmoa duzue?**

**Biak:** Bai, zalantza barik.

> **"Garrantzitsuena da txapelketetara ondo pasatzeko asmoz joatea"**

## Emakumeen Egunaren harira, tertullia

Emakumeen Egunaren harira, kafe tertulia egin zuten martitzen arratsaldean Ibarraundi museoan. Eva Gartzia psikologoak bizitza positiboki hartzearen garrantziaz jardun zuen, eta han batutako 20 emakume baino gehiagori hainbat gomendio eman zizkien. Tertulian, kafea eta pastak hartzeko aukera izan zuten partaideek.



MIRIAN BITERI

# Udal agirien hizkuntza neurketak dio aurrerapausoak izan direla, baina lanean jarraitu behar dela

Alkate erabakien eta Udalean sortu eta kanpora begirako idatziekin pozik daude

**M.B.** | ESKORIATZA

Urtero bezala, euskararen idatzizko erabileran aurrerapausorik izan den aztertzeko asmoz, Udalak iazko alkate erabakien eta udal erregistroko sarrera eta irteera agirien hizkuntza neurketa egin du. Alkate erabakiei dagokienez, %79,4 euskara hutsean idatzita daude, %0,2 gazteleraz, eta %20,4 ele bietan. Aurreko urteko datuekin alderatuta, eboluzioa ona izan da; batetik, euskara hutsean idatzitakoen kopurua oso altu mantentzea lortu dutelako, eta bestetik, idatzi bi baino ez zirelako egin urte osoan gaztelera hutsean.

Udal erregistroko irteeren atalean, %46,2 euskara hutsean izan dira, gazteleraz %0,1 eta ele bietan %53,6. Kasu horretan ere aurrerapausoak izan dira. Euskara hutsezkoen kopuruak gora egin du laugarren urtez jarraian.

**Sarreretan zeregin handia**

Bestalde, Udalak jasotako idatzien %20,8 euskaraz izan dira, %39,7 gazteleraz eta %39,4 ele bietan. Gaztelera hutsean idatzita iritsi den agiri kopurua hiru puntu jaitsi bada ere, oraindik %40 izaten jarraitzen du. Gazteleraz dauden agiri horietatik ia erdiak Eskoriatzako herritar edo enpresek idatzitakoak dira. Horren harira, Udaletik azpimarratu dute lanean jarraitu beharra dagoela kopuru hori txikitzeko. Horri aurre egiteko, aurten, *Zatoz udalera euskaraz* lelopean, mezuak zabalduko dituzte hilero.

## Filmen soinu-bandak joko ditu musika eskolako bandak bihar parrokian emango duen kontzertuan

Urteroko ohiturari jarraituz, musika eskolako bandak udaberriko kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, parrokian, 20:00etan. Musika eskolatik jakinarazi digute bandaren 25. urteurrena dela -eta ekitaldi "bereziak" antolatzen ari direla eta biharkoa ere berezia izango dela: filmen soinu-bandak joko dituzte.

## Hernaniko Iparragirre sagardotegira joango dira herriko 57 gazte bihar, Eingeinkeren eskutik

Eingeinke herri mugimenduaren eskutik, sagardotegira irteera egingo dute bihar, zapatua. 11:00etarako egin dute hitzordua, erdialdeko autobus geltokian; itzulera, ostera, 23:00etan izango da. Izena eman duten 57 lagunak Hernaniko Iparragirre sagardotegira joango dira. Antolatzaileek nabarmendu dute Eingeinkeren helburuetako bat "euskal giroa sortuko duten esparruak sortzea" dela.

## Uretako parkea jarriko dute ostera ere domeka arratsaldean kiroldegiko igerilekuan

Bi txandatan egongo da banatuta etzi, domeka, Intxaurtxueta kiroldegiko igerilekuan jarriko duten uretako parkea: 16:00etatik 18:00etara, 10 urtetik beherakoak izango dira; eta 18:00etatik 20:00etara, ostera, 11 urtetik gorakoak. Sarreren prezioari dagokionez, kiroldegiko abonatuek bi euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, hiru euro.

## OHARRAK

**UMEENDAKO EKINTZAK**

Gaur, egubakoitza, akuarelekin marrazkiak egingo dituzte umeek Tortolis ludotekan, 16:30ean.

**BERTSO MERIENDA GAZTELEKUAN**

Bertso meriendekin jarraitzen dute gaztelekuan. Xabi Arenatzak bideratuko du ostera ere gaurko saioa. 12 eta 17 urte bitarteko gazteek hitzekin eta bertsoekin jolasteko aukera izango dute, 18:00etan.

**KIROL HITZORDUAK**

Bihar, 10:30ean, 2. mailako kadeteen saskibaloi partidua dago kiroldegian, etxekoen eta Bera Bera Zurriola artean; eta 16:00etan, 1. mailako kadeteena, Eskoriatza eta Añorga A artean. Etzi, ostera, gazte ligako areto futbola dago: etxekoak Calasanzen kontra lehiatuko dira.

Iker Manso eta Jon Alberdi | Paleta jokalariak

# "Gazteek frontenisera jotzen dute; erreminta galduta dago"

- Gaur, egubakoitza, jokatuko dute Udaberri Txapelketako finala, Urnietan
- Herriko palako bikote bakarra da, nahiz eta entrenatzen gehiago ibili

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Pilotako Udaberri Txapelketa jokatzen aritu dira Manso antzuolarra eta Alberdi bergararra, Olalde Kirol Elkarteko pilotariak. Txapelketako partidu guztiak irabazita, finala jokatuko dute gaur, egubakoitza, 20:00etan, Urnietan. Biarritztarrak taldeko bikotea izango dute aurrean Txapelketaz eta paletaz aritu gara eurekin.

**Zer moduz joan da txapelketa?**

**Iker Manso:** Bost partidu jokatu eta denak irabazi ditugu. Ez dago maila handia paletan; pala motzean maila handiagoa dago.

**Jon Alberdi:** Sekulako ilusioa egin digu finalera iristeak. Baina eskertuko genuke maila handiagoa egotea, jokoan hobeto ibiltzeko. Entrenamenduak egiten ibiltzen garen modurako, askotxo iruditzen zait gu iritsi izana finalera.

**Finala nola ikusten duzue?**

**I. M.:** Gaurkoa hirugarrena izango da jokatzen duguna eta aurrekoak galdu egin ditugu. Bikote gogorra da Biarrizkoa, baina gure jokoa egiten badugu eta zentratzen bagara, nik aurrean seguru jokatuz eta Jonek atzetik ondo emanda, irabazteko aukerak izango ditugu.

**Urte asko daramatzazue biok paletan jokatzen. Zelatan aukeratu zenuten kirol hori?**

**I. M.:** Betidanik gustatu izan zait paletan jokatzea. Gomazko pilotarekin hasi ginen lehenengo; gero probatu genuen larruzkoa eta larruak beste bizitasun bat dauka.

**J. A.:** Lehenengo futbolean aritzen nintzen, baina 16 urte inguruarekin hasi ginen lau lagun palan jokatzen, gomazko pilotarekin. Egon nintzen bizpahiru urte lagata eta gero larruzkoarekin hasi nintzen eta nahiko ondo moldatzen naiz.

**Kirol honetan, baina, ez da jende askorik aritzen?**

**I. M.:** Deba bailara osoa kontuan hartuta, gu gara txapelketetan paletan larruzko pilotarekin jokatzen aritzen garen bakarrak. Hemen ez dago ohiturarik; eskuz jokatzeko agian gehiago egon da, baina paletan jokatzeko ez dago inor. Erreleburik ez dugu eta entrenamenduak egiteko ere jende faltan ibiltzen gara.

**J. A.:** Lau aritzen gara entrenatzen, baina gu gara txapelketa jokatzen dugun bikote bakarra. Zortez ez dugu eduki lesiorik eta horrela gabiltza biok txapelketa guztiak jokatzen. Gaur egungo gazteek gehiago jotzen dute frontenisera; bestelako erreminta zeharo galduta dago.




Iker Manso eta Jon Alberdi, pilotalekuan. | USOA AGIRRE

**"Bikote gogorra da Biarrizkoa, baina gure jokoa eginda aukerak ditugu"**

**"Deba bailaran, txapelketetan aritzen garen bakarrak gara"**

## Patxi Saizen disko berria aurkezteko kontzertua gaur

Patxi Saizek Antzuolan aurkeztu nahi izan du kaleratu berri duen lana: *Itxaropena.* Diskoak biltzen dituen hamaika kantuetan itxaropena da gai nagusi. 2010. urtean grabatu eta nahastu zuen lana Musikorta eta Noizbehinka estudioetan, eta auto-ekoizpen moduan atera du. Ahotsa eta gitarra dira oinarri kantu guztietan, baina instrumentazio ezberdinez jantzita dago. Kontzertua gaur, egubakoitza, izango da Torresoroako areto nagusian, 22:00etan.

## Muslariak esku-hutsik itzuli ziren Euskal Herriko txapelketatik

Joan den zapatuan jokatu zen Urruñan Euskal Herriko mus txapelketako finala eta bertan parte hartu zuten Antzuolako hiru bikotek: Juan Simon Aristi eta Beñar Kortabarria; Gotzon Gabilondo eta Xabier Altzelai; eta, Felix Alonso eta Claudio Cabrerak. Ez zuten zorterik izan finalean eta esku-hutsik bueltatu behar izan zuten. Dena dela, egun pasa ederra egin zuten musaren aitzakian Iparraldean, familiarteko eta lagunen konpainian.

# Iratxera irteera eta karta-joko txapelketa, erretiratuendako ekintzak datozen egunetarako

Martxoaren 30ean egingo dute irteera eta datorren astean eman beharko da izena

U.A. | ANTZUOLA

Nafarroako Iratxera irteera egingo dute herriko erretiratuek martxoaren 30ean, eguaztena. 08:30ean irtengo dira herritik eta bertako trufaren museoa eta upategi bat bisitatuko dituzte, besteak beste. Hamarretakoa eta bazkaria, berriz, Irache hotelean egingo dituzte. Irteerara joan nahi duenak martxoaren 22an edo 23an eman beharko du izena erretiratuen elkartean, 16:00etatik 18:00etara. 30 euro ordaindu beharko ditu bakoitzak.

Bestalde, datorren astelehenean, hilak 21, ibarreko erretiratuen karta-joko txapelketa egingo da Arrasaten. Bertan arituko dira Antzuolako lau bikote: Carmen Egaña eta Sabina Agirre; Manuel Garitano eta Miguel Jauregi; Juanita Zabalo eta Pilar Agirrezabal; eta Miguel Montori eta Benedicto Reinoso.



Herriko karta-joko txapelketako irabazleek jokatuko dute Arrasaten. | A. EZKIBEL

**Urteko batzar orokorra**

Erretiratuen elkarteko batzar orokorra egingo dute apirilaren 2an, zapatua. Hiru gai landuko dituzte batzarrean: estatutuetan aldaketak egitea; urteko gorabeherak; eta batzordeko kide batzuk berritzea. Urtero batzordeko hiru lagun berritzea proposatuko dute kideek.

## OHARRAK

**ERAKUSKETA**

Asteburuan *Feminismoa, 30 urte* izeneko erakusketa egongo da Olaran etxean. 30 urteotako Euskal Herriko feminismoaren gaineko kartelak erakutsiko dira, 18:30etik 20:30era bitartean, zapatuan eta domekan.

**FUTBOLA**

Antzuolako futbol taldeak Mondraren kontra jokatuko du zapatuan, 16:30ean, Eztalan.

**KZGUNEA**

Datorren martitzenean, hilak 22, egongo da tutorea KZgunean. Ikastaroak egin ahal izango dira bertan.

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

# Kalte-ordainen eskaeraren erantzuna espero baino lehenago jaso du Udalak

▶ AHTren lanen arduradun ADIFek erreklamazioaren zenbatekoa zehazteko eskatu dio Udalari

▶ Erantzunaren tiraldia aprobetxatzeko, herritarrei dei egin die Udalak erreklamazio propioa jartzeko

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

A-2620 errepidearen mozketagatik Udalak egindako kalte-ordain eskaerak ADIFen erantzuna jaso du. Maribi Joaristi Udaleko abokatuak "maila baten harriduraz" hartu du ADIFek horren goiz erantzun izana: "Halakoetan, sei hilabeteko tartea izaten dute erantzuteko, eta, askotan, ez dute erantzuten, eskatzailea gero epaitegietara joan dadin. Epaitegietara joateak bestelako gastu batzuk ditu eta eskatzaile askok atzera egiten dute".

Joaristik dio kalte-ordainei erantzuteko orduan administrazioak "askotan" ez duela jaramonik egiten; beraz, ADIFen erantzuna "seinale ona" dela uste du. ADIFek Aramaioko Udalari eskatzen dio erreklamazioaren zenbatekoa zehazteko. "Normala" da, Joaristiren ustez: "Eskatzen dena baloratuko dute, gero zer ordaindu eta zer ez erabakitzeko. Nik uste dut justifikatzeko bistakoak diren kalteak ordainduko direla, baina beste kalte batzuen gainean ez naiz horren baikorra. Hala ere, Udalak zein herritarrek tiraldia aprobetxatu behar dute".



Otsailaren 16ko bilerako ezkortasuna beste itxura bat hasi da hartzen. | J.B.

**Nork berea, indarra hartzeko**

Horiek, baina, Udalarendako kalte-ordainei dagozkien kontuak dira. Eta bidearen mozketak aramaioarrak zuzenean kaltetu zituen; urte eta hilabetez, egunero. Hala, Udalak, ADIFen berehalako erantzuna ikusita, kaltetu orori erreklamazioak ADIFera bideratzeko gomendatu die.

Aramaioarren kezka eta zalantzak argitzeko Udalak kontratatutako Mertxe Zulaika abokatuak dio ez dagoela argi ADIFen eta Sustapen Ministerioaren artean bietako nork hartu duen kalte-ordain eskaerak izapidetzeko ardura. Hasiera baten, Sustapen Ministerioak bideratzen ditu, baina, "dirudienez", ADIFek hartu du ardura hori, kasu honetan. Hala ere, Zulaikak uste du hobe dela erreklamazioa biei jartzea: "Bi erakundeak jakinaren gainean egonez gero, herritarrek erantzuna jasotzeko aukera zabalagoak izango dituzte. Hori bai, nork bere erreklamazioa bideratu beharko du; hori egin ezean, inork ez du ardurarik hartuko eta legeak aurreikusten duen herritarron eskubidea ezerezean geratuko da".

**ESANAK**

**"Justifikatzeko bistakoak diren kalteak ordaindu egingo direla uste dut; tiraldia aprobetxatu egin behar da"**

**MARIBI JOARISTI** | ABOKATUA

## Errugbia ezagutzeko aukera izango dute gaztetxoek domekan

Arrasate Errugbi Taldeak entrenamendu ibiltariak egingo ditu bailara osoan errugbia gaztetxoenen artean ezagutarazteko. Saioak 8 eta 11 urte bitarteko neska-mutikoendako izango dira. Lehen hitzordua Aramaion izango da, domekan, hilak 20.

Parkean egingo dute entrenamendu saioa, 10:30ean. "Errugbia barrutik zer den erakutsi eta gaztetxoenak kirol hau praktikatzera animatu gura dugu", adierazi dute Arrasate Errugbi Taldeko agintariek. Aurrerago beste herri batzuetan egingo dituzte entrenamendu saioak.

## Itur-Zuri elkartekoak oso pozik Emakume Asteak izan duen arrakastagatik

Itur-Zuri emakume elkarteko kideek balorazio "oso positiboa" egin dute joan den astean Emakumearen Egunaren bueltan antolatutako ekintzen gainean. Aste osoko egitaraua prestatu zuten eta adierazi dutenez, ekintza guztiek izan dute parte-hartze altua. Egubakoitzeko bingo-afarian, esaterako, 60 lagun elkartu ziren eskolako jangelan eta giro "aparta" izan zuten. Gainera, opariak ez ziren falta izan.

Zapatuan, bestalde, *Olvida los tambores* antzezlana izan zen protagonista: "Oso polita izan zen antzerkia eta kultura etxean izan diren guztiei gustatu zitzaiela uste dugu", adierazi dute antolatzaileek.

## Bertsotan bustitako asteburua: saio berezia gaur, finalerdia bihar

Bertsoa protagonista gaur eta bihar Aramaion. Gaur *Mende baten aldarriak hogeigarrenean jarriak* izeneko saioa eskainiko dute Xabier Amuritza eta Jon Maiak. XX. mendea, bertsolaritzatik kontatua eta kantatua. Horixe da saioaren ardatza. Kultur etxean izango da, 22:00etan, eta sarrera bi euro ordaindu beharko da.

Bihar, bestalde, Arabako bertsolari txapelketako bigarren finalerdia jokatuko da: Asier Otamendi, Iñaki Viñaspre, Izar Mendiguren, Ekaitz Samaniego, Rikardo Gonzalez de Durana eta Xabier Igoa aramaioarra izango dira. Kultura etxean, 17:30ean.

**OHARRAK**

**TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN ZERGA**

Udalak jakinarazi du 2011ko trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren ordainagiriak martxoaren 14tik maiatzaren 14ra, biak barne, ordaindu ahalko direla borondatezko aldian. Helbideratuta dauden ordainagiriak apirilaren 14an kobratuko dira. Epea igaro ondoren, premiamendu prozedura betearazleari ekingo zaio eta ordaindu gabeko kuotak %5eko gainkarguaz kobratuko dira. Hala dio otsailaren 28ko Arabako 2005/06 Foru Arauaren 28. artikuluak.

## Eguraldiagatik atzeratu egin behar izan dute Zuhaitz Eguna

**J.B.** | ARAMAIO

Lehen Hezkuntzakoendako Zuhaitz Eguna atzeratu egin dute, euria dela-eta. Hiru zikloetako ikasleek gaur joan behar zuten San Adrian baselizara, eta bertan, jatekoak ez diren sagarrak, makatzak eta urkiak landatu behar zituzten. Hala ere, azken egunotan bota duen euriagatik Udalak, San Martin eskolak eta Toki Alai interpretazio zentroak erabaki dute Zuhaitz Eguna apirilaren 1era arte atzeratzea. Jon Errasti Ingurumen zinegotziaren arabera, ez dute beste aukerarik izan: "Bihar [gaur] ateri bada ere, azken egunotan bota duen euriarekin gaztetxoak gaizki ibiliko dira mendian eta horregatik onena da Zuhaitz Eguna beste egun batera atzeratzea".



Iazko Zuhaitz Eguna. | ARAMAIOKO UDALA

**Haur Hezkuntzakoak, 24an**

Haur Hezkuntzakoendako Zuhaitz Eguna, berriz, bere horretan mantendu da; hau da, martxoaren 24an ospatuko dute. Eskola atzealdean landatuko dute; binaka edo hirunaka zuhaixka bat. Txikienen artean helburua da basoen garrantziaz ohartaraztea.

**NIRE USTEZ**



**ANDER ELORTONDO**

## 'Tatemae'-a, Aramaion ere?

Mundua beldur da Txernobyl berri bat ote datorkigun Japonian gertatu den naturaren indarren erakustaldiaren ondoren. Naturaren mugak ikusteke gaude, batez ere gure ekintzen bitartez bere orekatik ateratzen dugunean. Plaka tektonikoen gainean gizakiak ez dut uste eragin handirik duenik, baina katastrofe atmosferikoetan zeresan handia dugu eta horiek izan litezke beste katastrofeen iturri.

Erakustaldia ez du naturak bakarrik egin, Japoniako herria duintasun erakustaldia ematen ari zaio mundu osoari. Aipagarria egin zait Japoniako kulturako ezaugarri bati buruz irakurri dudana. Bertan *tatemae* deritzote publikoki adierazten diren pentsamenduei, baina lagun-hurkoa mindu behar ez dutenak, hots, batzuetan egia esatea ez omen da erabat zilegi, honek lagun-hurkoa mintzen badu. Bestalde, *honne* esaten diote benetan pentsatzen denari, baina oso gertukoari bakarrik esan ahal zaiona.

Dirudienez, *tatemae* horretan oinarrituta hainbat informazio gorde dituzte botereek herriari "lagun-hurkoa" ez mintzeko. Hala, zilegi da argazkiak trukatzea hondartza zentral nuklearrik gabe erakusteko turismo gidan (Suishohama) edo orain istripuak gorde...

Aramaion ere berdin egin ziguten: bidea moztu, medioei gezurra esan... euskal *tatemae*-a ote?

ELGETA

# Asfaltatze lanak datorren astean amaitzea espero dute

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenez ari dira herrian lanok egiten

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Ez zituen herrian inork espero; ezustean etorri dira asfaltatze lanak. Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimena da eta Asfaltos Urretxu enpresako beharginak ari dira lanok egiten. "Datorren asterako amaitzea aurreikusten dute", adierazi dute udal ordezkariek. "Gudarien bidean eta Artekaleko zati batean berrituko dute asfaltoa".

Lanok zirkulazioa arazoak sortzen dituzte eguneko zenbait unetan, batez ere zirkulazio handien dagoen orduetan.

**Zirkulazio aldaketak**

Atzerapenik sortzen ez bada aste bukaeran semaforoek ez dute ohikoa den moduan detektorearekin funtzionatuko, baizik eta modu automatikoan egongo dira martxan.

Arku azpiko asfaltoa berritzeko, berriz, Kataiko arkua itxi egin beharko dute. Behbarginek kalkulatzen dute astelehenean gertatuko dela hori. Hala, egun horretan eta lanak bukatu bitartean, zirkulazioa Berraondokotik desbideratu beharko dutela jakinarazi dute Udaletik.

**Bestelako lanak**

Asfaltatze lanok ezustean harrapatu dituzte Elgetako udal arduradunak. Aldundiak ez omen du bere asmoen berri eman eta asfaltatze lanak oinezkoendako bideak eta autobus geltokiko seinaleak margotu berriak izan ostean etorri dira. Hala, erakundeen arteko koordinazioaks, atzera ere, kale egin du.

Hori horrela, Udaletik adierazi dute bestelako hobekuntzak eskatu dituztela. Esaterako, Torrealdeako sarrera moldatzeko eskaera egin du Udalak. "Ez dute konponduko hori obra handia delako, baina apur bat txukuntzeko eskatu dugu", adierazi dute Udaletik. Bestalde, azken boladan nahiko kaltetua egon den autobus paradetako asfaltoa berritzeko eskaera ere onartu dute.



Oinezkoendako Torrealdeako sarrera itxita dago egunotan lanak egin bitartean. | L.Z.

**Txirrindularitza probak**

Gogoan izan behar dugu bi txirrindulari proba igaroko direla aurten Elgetatik: Euskal Herriko Itzulia apirilaren 7an eta Espainiako Vueltaren 20. etapa irailaren 10ean.

# Propanoaren fakturen auzian Udalak herritarren kexak batu nahi ditu; idatziz aurkezteko dei egin du

Desadostasunak jasotzeko inprimaki bereziak gertatu dituzte; udaletxean daude eskuragarri

**L.Z.** | ELGETA

Repsol Gas-en azken fakturek kezka sortu dute elgetarren artean. Askoren iritziz, neurriz kanpo garestitu da zerbitzu hori.

Asteon egindako Ogasun batzordean udal arduradunek erabaki dute kexa guztiak bateratzeko ahalegina egitea. "Kexa azaldu gura duten herritarrek desadostasun hori udaletxean idatziz aurkezteko aukera izango dute", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. "Udalak inprimaki berezia gertatu du horretarako eta inprimakiarekin batera herritarrek faktura ezberdinak aurkezteko aukera izango dute". Alkateak azaldu duenez, astelehenetik aurrera jasoko dituzte idatziak udaletxean.

**Repsolekin harremanetan**

Oxel Erostarbek azaldu du Udala Repsolekin harremanetan dagoela "egoera hau bideratzeko pausoak emateko" eta asmoa duela egoera berean dauden herrietako ordezkariekin ere harremanetan jartzeko. "Gure asmoa da udaletxean jasotako kexa guztiak Repsolen aurkeztea", adierazi du Erostarbek. Ekimen horretan kaltetutako herri gehiagorekin batzen badira, hobeto.

Elgeta ez da kasu isolatua; Aramaion ere herritarren poltsikoek nabarmen sumatu dute propanoaren garestitzea. Aramaioko alkate Asier Agirrek atzo, eguena, egin zuen gaiaren inguruko bilera informatiboa kaltetutako herritarrekin.

## OHARRAK

**SINADURA BILKETA**

Pediatria zerbitzua hobetzeko eskaera egiteko herritarren sinadurak batzen jarraitzen du Udalak. Bihar, zapatua, sinadura emateko aukera egongo da 12:30etik 13:30era. Ozkarbi aurrean ipiniko dute mahaia.

**KZGUNEA**

Astelehenean 16:00etatik 20:00etara tutorea Elgetako KZgunean izango da. Ikastaroak doan jaso ahalko dira.

**KORRIKA 17**

Kilometroa 400 euroan dago salgai. Erosi nahi izanez gero; *korrika17debagoiena@gmail.com* edo 943 77 03 69.

**MENDI IRTEERA**

Ozkarbi mendi taldeak irteera antolatu du apirilaren 10erako. Ibilbidea da Mañaria -Urkiola-Leungane-Mañaria. Izenemateak: apirilaren 7ra arte udaletxean. Prezioa: bost euro.

## Gaztetxean konponketa lanak egingo dituzte eta domekan Zuhaitz Eguna egingo dute Asentzion

Gaztetxetik dei egin dute auzolanean konponketa eta garbiketa lanak egiteko. Zapatuan eta domekan 10:00etan elkartzeko proposamena egin dute. Hurrengo aste bukaeran ere beste bi egunez elkartuko dira lanok jarraitzeko. Deialdi irekia da.

Udalak, bestalde, Zuhaitz Eguna antolatu du domekarako. 10:30erako egin dute hitzordua Asentzioko sarreran. Aparkalekutik oso gertu dagoen gune batean egingo dituzte aurten landaketak. Udal brigadako langileek landaketak egiteko zuloak eginda utziko dituzte. Adierazi dutenez, 26 zuhaitz eskatu dituzte domekan Asentzion landatzeko. Hara joaten diren guztiek izango dute ekimenean parte hartzeko aukera.

## III. FRONTENIS TXAPELKETA

| AZKEN JARDUNALDIKO EMAITZAK | |
|---|---|
| Maider Osa-Anartz Agirre / Olaia Jimenez-Aitzol Jimenez | 25-09 |
| Haritz Gallastegi-Eñaut Arantzeta / Adrian Gorostiza-Asier Osoro | 25-15 |
| Haritz Gallastegi-Eñaut Arantzeta / Xabier Ubera-Iban Retolaza | 25-15 |

| BIHAR, ZAPATUA, 16:30EAN |
|---|
| Maider Osa-Anartz Agirre/Idoia Serna-Mikeldi Garmendia |
| Haritz Gallastegi-Eñaut Arantzeta/Ibon Untzetabarrenetxea-Asier Untzetabarrenetxea |
| Ander Gorosabel-Mikel Arkarazo/Oskar Sarasua-Xanti Dosuna |
| Hodei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga/Andoni Elortza-Eneko Maguregi |

LEINTZ GATZAGA

**Idoia Armendariz** | Prototype taldeko entrenatzailea

# "Gurasoon laguntzaz eta euren lanaz egin dute aurrera First Lego Leaguen"

Txapelketan entrenatzaile onenen saria jaso dute; Idoia Armenadarizek eta Edorta Aranak



Idoia Armendariz. | PROTOTYPE

**MIRARI ALTUBE** | LEINTZ GATZAGA

Ingeniaria da eta Fagorreko Garbigailuetan ingeniaritza sailean egiten du lan. First Lego League txapelketara aurkeztu den Prototype taldeko entrenatzailea izan da Edorta Aranarekin batera, eta saria eskuratuta itzuli dira estatu mailako txapelketatik.

**Txapelketan parte hartzearen ideia zeinena izan zen?**

Mutikoena, noski! Anderren lehengusuak parte hartu zuen iaz Basauriko ikastetxe baten; hari gustatu, lagunekin hitz egin eta aurrera!

**Zein izan da zure lana?**

Gehienbat, robotarekin laguntza teknikoa ematea, baina denok jardun dugu buru-belarri lanean.

**Eman dizueten sariarekin, zer baloratu du epaimahaiak?**

Entrenatzaile onenaren saria izan da: dedikazioa eta konstantzia, trabak gainditzea… Hori esan ziguten, baina, gure ustez, eurek, mutikoek, tiratzen zuten eta talde-lan handia egon da.

**Zelan moldatu zara 12 urteko gaztetxoekin lanean?**

Ederto; arazo bat bera ere ez dugu izan. Guretako oso aberasgarria izan da; benetan zortedunak garela uste dugu, bai nik eta bai Eduk. Txapelketako gazteenak izan dira, eta talde txikiena; baina ez bakarrik hori, ikastetxe eta babeslerik gabeko talde bakarra! Gurasoon laguntzaz eta euren lanaz egin dute aurrera.

**Lana egin bitartean zer ikasi duzu?**

Gauza asko; eurekin gozatzen, ondo pasatzen, barre egiten, gazteen ikasteko gaitasun itzel eta amaigabea estimatzen…

**Eta mutikoek zer ikasi dute?**

Interneten programa berriak ikasi dituzte: Prezi, Snagit, Youtube, Flickr… Blogean egunero aktak jaso dituzte; Autocad programarekin hiru dimentsiotan eraiki dute Gatzaga eta ibilbideak egin; robota programatu dute; eta epaimahai baten aurrean euren proiektua defendatu dute. Itzela dela uste dut!

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

MARTXOKO SARIAK

SKUN-FUNKEKO KAMISETA ETA POLTSA
Bidali KLUBA KAMISETA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

skunkfunk

LIBURU SORTA UMEENTZAT
Bidali KLUBA LIBURUAK [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

PAMIELA

EUSKAL RIP-EN DVD-A
Bidali KLUBA DVD [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.


goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

ARGAZKI KAMARA
Bidali KLUBA KAMARA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

EROSKI

Goiena klubeko kideentzako
Erremeixuak DVD-aren eskaintza berezia

10€ 8€
eta zure etxeko buzoian jasoko duzu

Bazkide egiteko
Tel.: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
www.goienakluba.com
Urteko kuota: 48€

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

DUATLOIA

# Oñatiko probak hogei urte beteko ditu bihar, zapatua

## Euskadiko Txapelketarako baliagarri izateko distantziak moldatu dituzte; luzeagoa izango da

**XABIER URTZELAI** | OÑATI

Oñatiko duatloiak 20 urte beteko ditu bihar, zapatua, eta behar den moduko urteurrena izango du, lasterketa distantzia motzeko Euskadiko Txapelketarako baliagarria izango delako, eta puntako parte-hartzea egongo delako. Kalitatea, eta kantitatea, antolatzaile lanetan dabiltzan Oñatiko Triatloi Taldeko lagunek jarritako 400 atleten muga bete egin delako.

### Proba luzeagoa

Biharko lasterketa Euskadiko Txapelketarako baliagarria izan dadin antolatzaileek luzatu egin behar izan dute proba, korrikako bi saioak. Atletek 10 kilometro egingo dituzte korrika, 40 bizikletan, eta beste 5 korrika, eta hain zuzen, horregatik hasiko dute proba bestetan baino ordu erdi lehenago, 15:30ean.

"Parte-hartzea potentea izango da, baina potentea maiuskulekin", adierazi digu Mikel Larreak: "Eguaztenerako beteta genuen 400 atleten kupoa, eta aurtengo nobedadeetako bat Rafael Baugh australiarra izango da: "Mundu mailako atleta onenetako bat da. Hainbat hilabete Euskal Herrian egingo ditu, bertako proba batzuetan esku hartzen, eta konfirmatu digute zapatuan Oñatin izango dela".

Baugh da faboritoetako bat, baina baita azken urteotan Oñatin protagonista izan diren Nicolas Capoferri eta Laurent Galinier ere. Capoferri 2009an azkarrena izan zen, baina iaz azken orduan gaixotu eta ezin izan zen proban egon. Hala, Galinierrek erakustaldia eman zuen korrikako saioetan, baina Patxi Vila jaun eta jabe izan zen bizikletako saioan, eta frantziarra bigarren postuarekin konformatu zen. Igarriko da Vilaren hutsunea, berriro ere txirrindularitza profesionalera itzuli da-eta. Eurekin batera beste izen *ilustre* batzuk egongo dira: Felix Martinez kantabriarra, Urizar anaiak, Jon Arozena...

Emakumezkotan ere beste horrenbeste azpimarra dezakegu. 20 emakumezko egongo dira irteera puntuan, tartean Ainhoa Murua olinpikoa, Ana Casares –atletismotik dator–, edota txirrindularitza mundutik datozen Iratxe Landa, edota Saioa Olite. Eta eurekin batera, Oñatiko Triatloi Taldeko 15 lagun inguru –besteek antolatzaile lanak egin beharko



Galinier, iaz, bizikletako saioa hasteko gertu; Pat

SASKIBALOIA

# Sustrai Aloña bigarren postuagatik lehiatuko da

## MUk, berriz, Paduraren bisita izango du

**X.U.** | BERGARA

EBA ligarako igoeran partidu garrantzitsua jokatuko du Sustrai Aloña Mendik zapatuan, puntu kopuru bera duen Azpeitiko Lizuanen kontra lehiatuko dira -eta Xabier Igartuaren mutilak. Hala, joan den asteko lan onaren ondotik, biak ala biak bigarren postuagatik lehiatuko dira, Zubikoako kantxan.

### Ordu aldaketa

Zapatuko norgehiagoka garrantzitsu horretara begira bada kontutan hartzeko aldaketa bat, Sustrai Aloñak normalean baino bi ordu lehenago jokatuko duelako norgehiagoka, 16:00etan. Azpeitiarrek jokalari gazte baina onekin osatutako taldea dute eta Oñatikoek gogor egin beharko dute lan igoera faseko hirugarren garaipenari heltzeko.

Hala, partidu garrantzitsu horren aurrean klubak deialdia egin du zaleek taldea anima dezaten: "Beti bezala, baina baliteke oraingoan gehiago, jarraitzaile guztien indarra beharko dugu".

### MUk ere etxean

Sustrai Aloña Mendik bikain hasi du fase berria, igoerakoa. Eta, Arrasatekoek ere ondo ekin diote jaitsiera faseari, hasieran egon zitekeen mamu txikiena ere kolpetik uxatuz –bi garaipen jarraian, eta sailkapenean bigarren postuan.

Joan den astean Mikeldiren kantxan bi puntugatik irabazi ostean (66-68), oraingo asteburuan Larreategiren mutilek Paduraren kontra jokatuko dute (zapatua, 18:00, Iturripe). Padurako taldea laugarren dago sailkapenean, jaitsiera postuetatik kanpo, oraingoz.


Biain, saskira jaurtitzeko gertu. | GOIENA



xi Vilak harrapatu egin zuen gero. | GOIENA

FITXA TEKNIKOA

**Non:** Oñatin, plazan hasita.
**Eguna:** Zapatua, 15:30.
**Distantziak:**
Korrika: 10 km / Bizikletan: 40 km / Korrika: 5 km
**Sari banaketa:** 18.00.

ESANAK

**"Parte-hartzea potentea izango da, puntakoa"**

MIKEL LARREA | ANTOLATZAILEA

dituzte, eta baita Antxintxika taldeko ordezkariak ere.

**Erronkarin, Alex Altuna**
Joan den astean ibarreko triatloi taldeko hainbat lasterkari nabarmendu ziren. Batetik, Erronkari Haraneko Neguko Triatloian Antxintxika Triatloi Taldeko Alex Altunak lan ederra egin zuen, gazte mailan lehenengoa izan zen-eta. Lasterketa espektakularrean, Isaban 5 kilometroko korrikaldia egin ostean, San Martingo Harriko mendatea igo behar izan zuten bizikleta gainean, eta han fondoko eskiekin 10 kilometroko zirkuitua bete.

Bestetik, Basaurin egin zuten esprint distantziako Euskadiko Txapelketarako proba baliagarria, eta maila absolutuan Antxintxikako Ander Agirre podiumera igo zen; 23 urtez azpikoetan, berriz, Oñatiko Triatloi Taldeko Xabier Luis ere podiumera igo zen.

FUTBOLA

## Mondrak Roteta hartuko du zapatuan, eta Aloñа Mendik Trintxerpe, domekan

X.U. | BERGARA
Ohorezko erregional mailako 26. jardunaldian Mondrak eta Aloñak jokatuko dute etxean. Arrasatekoek bi partidu jarraian irabazi izanak ematen duen lasaitasunarekin hartuko dute Roteta, jaitsiera postuetan dagoen taldea (zapatua, 16:30, Mojategi).

Aloñak, berriz, lortu du zorigaiztoko postuetatik irtetea, baina irtetearekin batera, aldentzea da helburua. Domekan Trintxerpe izango dute aurrean (16:30) sailkapenaren erdian Mondrarekin berdinduta dagoen taldea.

Kontrario gogorrena Aretxabaletak izango du, bigarren dagoen Hernaniren zelaian jokatuko dute -eta bihar (16:00). Eta Bergarak Ondarroara egingo du bidaia, zapatuan baita ere (16:30).



Hondarribiaren kontra gola eginda ,Mondrakoak. | GOIENA

ATLETISMOA

## Malen Ruiz de Azua zilarraz Espainiako txapelketatik

Malen Ruiz de Azuak zilarrezko domina jantzi zuen joan den zapatuan, Espainiako gazte mailako txapelketan. Ruiz de Azuak 3,61 metroko saltoa egin zuen pertikarekin, eta Laura Izquierdo nafarraren atzetik (3,71 metro) sailkatu zen. Munduko txapelketara joateko, berriz, oraingo asteburuko marka bost zentimetrotan hobetu behar du Malen Ruiz de Azuak.



Malen Ruiz de Azua. | A.ATLETIKO

DUATLOIA

## Antxintxika Triatloi Taldeak bihar aurkeztuko du taldea

Duatloi denboraldia hasi badute ere, Debagoienean asteburuan izango dugun duatloi hitzorduarekin batera aurkeztuko dute, bihar, Antxintxika Triatloi Taldea. Ekitaldia Musakolan egingo dute, (10:45); taldekideak aurkeztearekin batera aurtengo asmoak ere azalduko dituzte. Arratsaldean, euretako asko Oñatin ikusiko ditugu, lehian.

PILOTA

## Debarroko txapelketan Bergarak lidergoari heldu dio

Debarroko Pilota Txapelketako laugarren jardunaldia jokatu ostean, nagusien mailan Bergarak aurrea hartu dio Elgetako Oskarbiri. Biek ala biek, baina, zazpina puntu dituzte. Ondoren datoz Oskarbiren bigarren taldea, Eibar, Lagunak, Eskoriatza, Bergarako 2, Arrasateko eta Aretxabaleta. Kadete mailan Lagunak dago lider.

FUTBOLA

## Intxortako Lehoiak lagunarte zuri-gorria, Elgetan

Eguaztenean, hilak 23, aurkeztu dute Athleticeko lagunarte berria, Intxortako Lehoiak. Elgetako lagunarte berriaren aurkezpean egongo dira Athleticeko hainbat jokalari, eta zuzendaritzatik baieztatu dute "goi mailako delegazioa" bidaliko dutela.Ekitaldia pilotalekuan izango da, 19:30ean.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**LEHEN MAILA**
**Real Racing-Reala**
Domeka. 17:00. El Sardinero.

**GAZTEEN LIGA NAZIONALA**
Atsedena dute.

**GAZTEEN EUSKAL LIGA**
Atsedena dute.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
**Aloña Mendi-Trintxerpe**
Zapatua. 16:30. Azkoagain.
**Mondra-Roteta**
Zapatua. 16:30. Mojategi.
**Ondarroako Aurrera-Bergara**
Zapatua. 16:30. Zaldupe.
**Hernani-Aretxabaleta**
Zapatua. 16:30. Zubipe.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
**Aretxabaleta B-Intxurre**
Domeka.16:30. Ibarra.
**Antzuola-Mondra B**
Zapatua. 16:30. Estala.

**ERREGIONALA, IGOERA**
**Gure Txokoa-Bergara B**
Zapatua.15:30. Matzada.

**LEHEN ERREGIONALA, KOPA**
**Trintxerpe-Aretxabaleta C**
Zapatua. 17:30. Trintxerpe.

**OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA**
**Mondra-Ostadar**
Domeka. 16:30. Mojategi.
**Aloña Mendi-Hondarribia**
Zapatua. 16:30. Azkoagain.

**GAZTEAK, IGOERA**
**Astigarraga-Arizmendi**
Zapatua. 09:30. Zarkumendegi.

**GAZTEAK, KOPA**
**Urola-Arizmendi UDA B**
Zapatua. 18:30. Argixao.
**Eibartarrak B-Aretxabaleta B**
Zapatua. 18:00. Unbe.
**Bergara B-Soraluze**
Zapatua. 16:00. Ipintza.

**OHOREZKO KADETEAK**
**Oiartzun-Bergara**
Zapatua. 11:00. Ipintza.
**Aretx.Arizmendi-Beasain**
Domeka. 12:00. Ibarra.

**KADETEAK, IGOERA FASEA**
**Arrasate-Pasajes**
Zapatua. 11:45. Mojategi.
**Lengokoak-Aloña Mendi**
Domeka. 15:30. Donostia.

**KADETEAK, KOPA**
**Bergara B-Aretxabaleta B**
Zapatua. 18:00. Ipintza.
**Soraluze-Aloña Mendi B**
Zapatua. 11:00. Ezozia.

**OHOREZKO INFANTILAK, TXAPELDUNEN FASEA**
**Aretx.Arizmendi-Reala**
Zapatua. 12:00. Ibarra.
**Bergara-Euskalduna**
Domeka. 17:00. Ipintza.

**OHOREZKO INF. KOPA**
**Zumaiako-Arrasate**
Zapatua. 17:30. Aita Mari.
**Aloña Mendi-Lagun Onak**
Zapatua. 11:00. Azkoagain.

**INFAN. PARTE-HARTZE KOPA**
**Aretxabaleta-Aurrera Ondarroa**
Zapatua.10:15. Aretxabaleta.

**Leintz Eskola K.-Urki**
Zapatua. 10:00. Arrasate.

**EMAKUMEZKOEN IGOERA**
**Mondra-Hernani**
Zapatuan. 18:30. Mojategi.
**Arizmendi-Zarautz**
Zapatua. 16:00. Almen.

**EMAK. GAZTEAK, KOPA**
**Arizmendi-Ordizia**
Gaur. 17:30. Almen.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
**Kukuiaga-Eskoriatza**
Zapatua. 20:00. Etxebarri.

**GIPUZKOAKO BIGARREN M.**
**Aretxabaleta-Allerru Jaizkibel**
Gaur. 20:45. Almen.

**GIPUZKOAKO HIRU. MAILA**
**Umore Ona-Aloña Mendi**
Zapatua. 17:00. Goizueta.

**ESKUBALOIA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
**Soraluce BKE-Suc Agirre**
Zapatua. 17:00. Labegaraieta.
**La Bacaladera H.-Ford Mugarri**
Domeka. 12:00. Hondartza.

**EUSKADIKO EMAKUMEZKO PREFERENTEA**
**Aloña Mendi-Leizaran**
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**FEDERAZIO SARIA, GAZTEAK**
**Arrate-Aloña Mendi**
Zapatua. 15:45. Ipurua.

**ALDUNDI SARIA, KAD. GIZ.**
**Talleres Chapime-Soraluce BKE**
Zapatua. 11:00. Iturripe.
**Arrate Amaña-Bergara Soralu.**
Domeka. 09:45. Ipurua.

**ALDUNDI SARIA, KAD. EMAK.**
**Aloña Mendi A-Ereintza Ag.**
Domeka. 12:15. Zubikoa.
**Aloña Mendi-Ereintza**
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

**SASKIBALOIA**

**LEHENENGO MAILA, IGOERA**
**Sustrai Aloña Mendi-Lizuan**
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**LEHEN MAILA, JAITSIERA**
**MU-Padura**
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**LEHEN MAILAKO SENIORRAK**
**MU-Carnicas San Marcial**
Gaur. 20:00. Musakola..

**BIG. MAILAKO SENIORRAK**
**Sustrai Aloña-Gabi jatetxea**
Zapatua. 16:00. Zubikoa.
**Teklan Laser-Soraluce BKE**
Zapatua. 18:00. Hernani.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**
**Bera Bera-Eskoriatza**
Zapatua. 20:00. Donostia.

**GAZTEAK, PARTAIDETZA**
**Easo Haizea-Soraluce BKE**
Zapatua. 18:00. Donostia.

**MCM-MU B**
Zapatua. 09:00. Donostia.

**KADETEAK, ERRENDIMEN.**
**Hernani-MU A**
Domeka. 12:00. Hernani.

**KADETE GIZ. PARTAIDETZA**
**Soraluce BKE-Erroibide Irun**
Domeka. 12:45. Labegaraieta.
**Aldapeta-MU B**
Zapatua. 12:00. Donostia.

**KADETE EMAK. ERRENDIM.**
**Eskoriatza-Añorga A**
Zapatua. 16:00. Intxaurtxueta.

**KADETE EMAK. PARTAIDET.**
**Soraluce Bergara-Ama Guada.**
Domeka. 12:45. Labegaraieta.

**INFANTIL GIZO. ERRENDIM.**
**Easo 98-LEK Ointxe**
Zapatua. 09:30. Labegaraieta.

**INFANTIL GIZO. PARTAIDET.**
**Saskiaxular B-LEK**
Zapatua. 10:45. Donostia.
**Lizardi Zast-LEK Arrasate**
Domeka. 09:30. Zarautz.
**Aloña Mendi-Easo 97**
Domeka. 12:00. Zubikoa.
**Servimasa BKE-Internacional**
Domeka. 10:00. Labegaraieta.

**INFANTIL EMAK. PARTAIDET.**
**Soraluce Bergara-Saskiaxular**
Domeka. 11:15. Labegaraieta.
**LEK - Bera Bera**
Zapatua. 12:00. Musakola.
**Easo 97 Adarra-Soraluce Ber.**
Zapatua. 12:00. Donostia.
**Larramendi ILK-LEK Eskoriatza**
Zapatua. 11:00. Donostia.

**ERRUGBIA**

**OHOREZKO MAILA**
**Durango Ilarduya-El Salvador**
Zapatua.16:30. Durango.

**EUSKAL LIGA**
**La Unica-Kanpanzar ART**
Zapatua. 17:30. Iruñea.

**ERRUGBI ESKOLA**
**Entrenamendu ibiltaria**
Domeka. 10:30. Aramaio.

**PILOTA**

**UDABERRI TXAPELKETAKO FINALAK**
**Bergaran, gaur, 19:30ean hasita:**
**LAPKE-Bergara**
Bergara-Intxurre

**GIPUZKOAKO TXAPELKETAKO PARTIDUAK**
**Bergaran, gaur 19:00etan hasita:**
Bergara-Euskal Jolas (infa.).

**Gatzagan, 09:00etan hasita, Dorletako**
Pilota Txapelketako partiduak.

**DUATLOIA**

**OÑATIKO 20. DUATLOIA**
**Zapatuan, 15:30ean, plazan.**

Antxintxika Triatloi Taldearen aurkezpena, zapatuan, 10:45ean, Musakolan.



GOIENA

**MONDRAKO NESKEK, HERNANIREN KONTRA** Lider daude Arrasateko neskak, igoera fasean, eta zapatuan laugarren dagoen Hernani izango dute kontrario (18:30).

Gremioen gida




Jatetxeen gida




# NEGOZIOA BADAUKAZU, BAINA INORK EZ BADAKI?

Eman ezagutzera zure negozioa Debagoieneko gidetan.

Osasun zerbitzuen gida




Profesional liberalen gida




Iragarkia jartzeko, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# KULTURA

# Aspertzea bekatu denean...

- Enpresagintza Fakultateak 'No more boring fridays' kultura ekimena jarri du martxan
- Lehenengo ekintza gaur izango da: 20:30ean, Josu Bergara abeslariaren kontzertua

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Oñatiko Enpresagintza Fakultatean kultura ekimen bat jarri dute martxan. *No more boring fridays* du izena ekimenak; bestela esanda, *Egubakoitz aspergarri gehiagorik ez*. Ikasle eta irakasle talde bat dago ekimen horren atzean. Asmoa da unibertsitatea gizarteari zabaltzea.

Modu bitxian hartu du itxura ekimenak. "Ez da gauza programatua izan. Ikasleek ikas-bidaia egin gura zuten, eta dirua batzeko kontzerturen bat antolatzea erabaki zuten. Hala sortu da ekimena", azaldu du Amaia Aizpuruk, Enpresagintzako irakasle eta ekimeneko bultzatzaileak.

**Ekintzak, egubakoitzetan**

"Hasieran, behintzat, helburu xumeagoa izango du ekimenak", esan du Aizpuruk hitzorduak egubakoitz guztietan izango ote diren galdetuta. "Saiatuko gara hilean behin zerbait egiten", gaineratu du. Aurrera begira ikusten badute ideia asko dituztela eta jendeak interesa duela, ekimena zabaltzeko asmoa azaldu dute antolatzaileek.

Hainbat ideia dituztela azaldu dute: "Antzerkia, argazkilaritza... bidaiek ere interes handia pizten dute ikasleengan. Agian kirolariren bat ere ekarriko dugu". "Ideiak gauzatzen joan behar dugu eta ikasleek gauza izan behar dute kontaktuak egiteko. Eurek izan behar dute hau antolatzeko ardura", azaldu du Aizpuru irakasleak. Ikasleen artean taldetxo bat sortu dute. Haiek ikasleei galdetzen diete ea ze interes dituzten, eta, behin informazio hori dutenean, interes horiek gidatzen saiatzen dira.

**Eraikin berriaren aukerak**

Ekimena ez da Oñatin bakarrik egingo. "Irungo campusean beste taldetxo bat sortu da, *MUgi Hadi!* izena duena; ikasle talde hori ere gauza asko egiten dabil Irungo herriarekin eta Udalarekin. Azkenean, garrantzitsua da ikustea gazteek badituztela interesak eta horiek lortzeko mugitzen direla", dio Aizpuruk.

Ibarrako eraikin berrian egoteak ere herriarekiko hurbilago egotea eragin du. "Herria hurbilago daukagu eta eraikina ere bestearekin alderatuta hobeto dago eta aukera gehiago eskaintzen digu ekintzak antolatzeko orduan", diote. "Pentsatu genuen pena dela fakultatea erabiltzea ikasketak eta ikerketak bakarrik egiteko. Zergatik ez gizarteari zabaldu eta nolabait hain urrun ikusten den unibertsitatea herriari hurbildu?", gaineratu du Aizpuruk.

Ekimen berri horren asmoetako bat artista oñatiarrei lekutxo bat uztea da; hau da, herrian egon daitezkeen artisten lanekin erakusketak egitea. "Fakultatea espazio bizia izatea gura dugu, ez dadila mugatu eskolak ematera bakarrik. Kultura hainbat modutara zabal daiteke", gaineratu du Aizpuruk.



Amaia Aizpuru eta ekimeneko bultzatzaile izan diren ikasle batzuk fakultate aurrean. | A.E.

**Emanaldiak doan izango dira**

Kultura ekimenak gaur bertan hasiko dira: lehenengo kontzertua Josu Bergarak eskainiko du. Emanaldiari berari beste ukitu bat eman gura diotela dio Aizpuruk: "Saioa hasi aurretik elkarrizketatxo bat egingo diogu bere ibilbidea ezagutzeko. Esan behar da Bergarak modu bitxia erabili duela bere CDa ezagutzera emateko", dio. "Hala, erabili dituen marketin baliabideak azalduko ditu fakultatean bertan", dio. Gainera, saioa MU telebistaren bitartez ikusteko aukera egongo da, eta baita streaming bidez jarraitzeko ere.

Gaurko saioa 20:30ean izango da, fakultatean bertan. Mahaitxoak jarriko dituzte, giroa goxatzeko, eta kafea eskainiko dute. Emanaldi guztiak doan izango dira, ikasleei eta herritarrei zuzenduta.

---

ESANAK

**"Eraikin berrian herria hurbilago daukagu eta aukera gehiago daude"**

**"Fakultateak, ikasteko lekua izateaz gain, espazio bizia izan behar du"**

AMAIA AIZPURU | MU-KO IRAKASLEA

---

## Josu Bergararen kontzertua gaur

Ekimenean parte hartuko duen lehenengo artista Josu Bergara abeslaria izango da. Soinu akustikoak eskaintzen ditu Bergarak, folk eta rock doinuak ardatz hartuta.

*Nora zoaz* disko berria mundu guztira zabaldu du Bergarak *Cd crossing*-ari eta sare sozialei esker. Hain zuen, *Cd crossing*-a zer den eta nola erabil daitekeen azalduko du gaurko emanaldian Bergarak. Hamar abestiz osatutako lana da *Nora zoaz*.


Josu Bergara bakarlaria. | GOIENA

# Fiachras taldearen diskoa, labetik gaztetxera

Txapa Irratiak antolatutako kontzertua da; bihar 22:30ean arituko dira Fiachras eta Norman

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

*Hiltzera goaz* disko berria aurkeztuko du Fiachras talde bergararrak bihar, zapatua, Bergarako gaztetxean. Txapa Irratiak antolatu du kontzertua; bergararrez gain, kartzela zaharreko taula gainera igoko dira Norman taldeko kideak.

**Soinu berriak**

Fiachras taldeak betiko etiketetatik ihes egin eta beste musika estilo bat lantzen du. Ez punkrock, ez oi! eta ezta rocka ere... Adituek diote betiko etiketek ez dutela balio talde bergararrarendako. "Aurrez beste talde batzuetan ibili izan gara, oso sailkatuta zeuden taldeetan. Hortaz, hori apurtu nahi izan dugu", adierazi du Aitor Aldanondok, Fiachras taldeko kideak. "Gitarrak distortsio barik, intentsitate handiagoa... soinu berriak bilatzen ahalegindu gara", gaineratu du. Diskoa labetik atera berria da. Bihar gaztetxean aurkeztuko dute lehenengo aldiz. Musika estiloa definitzea zaila dela dio Aldanondok: "Folk, rock, country... estiloak landu ditugu lan berrian".

*Hiltzera goaz* bigarren diskoa 2010eko urrian eta azaroan grabatu zuten Bonberenea etxean. "10 abesti sartu ditugu diskoan, eta euskaraz eta gaztelaniaz abestu dugu", dio Aldanondok. Diskoko abestietan hainbat gai landu dituzte, baina Aldanondok dio gai gehienak gizarte gaiak direla: "Gizateriari gorrotoa azaltzen diogu". Gaineratu du Artola lazkaotarrak idazten dituela letrak.

Bigarren diskoa lehenengoaren antzerakoa den galdetuta, Aldanondok dio diskoa entzun dutenek diotela ez dela aurrekoaren jarraipena: "Bigarren disko honetan ahotsa landuagoa da".

**Norman eibartarrak**

Danbakako hirugarren edizioko finalera iritsi zen Norman taldea. Eibartarrek *Norman* euren lehenengo diskoko abestiak eskainiko dituzte Bergarako gaztetxean, baina baita prestatzen dabiltzan abesti berriak ere. Punk-rocka abiapuntu hartuta, erritmo aldaketa ugariren sonoritateetan barneratzen dira eibartarrak. Zuzeneko bikainak dituzte.

**Sarrera eta diskoa**

Kontzertua zapatuan izango da, 22:30ean. Sarrera 5 euro kostako da; baina Fiachras taldearen disko berria nahi izanez gero, 10 euro ordaindu beharko da.

Kontzertua bertatik bertara ikusteko aukeraz gain, musikaz zuzenean gozatzeko aukera ere egongo da Txapa Irratiaren bidez. 97.25 sintonizatu beharko da horretarako Bergara inguruan; eta, Internet bidez, *http://www.txapairratia.org/* webgunearen bidez



2008ko abenduaren 13an Fiachras taldeak Bergarako gaztetxean eskainitako zuzenekoa. | GOIENA

> ESANAK
>
> **"Bigarren disko honetan ahotsa landuagoa da; Bonberenean grabatu genuen 10 abestiz osatutako lana"**
>
> AITOR ALDANONDO | TALDEKIDEA

# Finalerako txartelaren bila lehiatuko dira Aramaion

Manex Agirre aramaioarra dagoeneko sailkatu da Arabako bertsolari txapelketako finalerako

A.E. | ARAMAIO

Arabako txapelketako bigarren finalaurrekoa jokatuko dute bihar, zapatua, Aramaion. Saioa kultura etxean izango da, 17:30ean. Sei bertsolari arituko dira finalerako txartela eskuratzeko lehian; eta bertan egongo da Xabier Igoa aramaioarra. Gainontzeko bertsolariak izango dira: Otamendi, Viñaspre, Mendiguren, Samaniego eta Gonzalez de Durana.

**Finala apirilaren 2an**

Aramaion izango da bigarren finalaurrekoa eta hirugarrena, domekan, Agurainen jokatuko dute. Saioa Harresi aretoan izango da, 17:30ean. Finalerako txartela eskuratzeko lehian arituko dira: Solozabal, Enbeita, Juaristi, Sanchez, Mendibil eta *Betto*.

Dagoeneko finalerako txartela lortu duena Manex Agirre aramaioarra da. Joan den domekan Zigoitian jokatutako finalaurrekoan lehenengo geratu zen, 354,5 punturekin. Agirrek zuzenean lortu zuen finalerako txartela. Zuzenean finalera pasatuko dira Aramaioko eta Aguraingo onenak eta gainerako hiru bertsolariak puntuazio onenaren arabera sailkatuko dira finalerako.

> SAIOAK
>
> **MARTXOAK 19**
> ARAMAIO
> Asier Otamendi, Iñaki Viñaspre, Izar Mendiguren, Ekaitz Samaniego, Xabier Igoa, Rikardo Gonzalez de Durana.
>
> **MARTXOAK 20**
> AGURAIN
> Ander Solozabal, Zigor Enbeita, Juan Mari Juaristi, Ruben Sanchez, Unai Mendibil, Alberto Martinez "Betto".
>
> **APIRILAK 2**
> GASTEIZ
> **Finala.**



Isidoro Fernandez eta Mireia Gabilondo aktoreak. | PRODUKZIOAK

# 'Mugaldekoak': gaurtik aurrera zinema aretoetan

Mireia Gabilondo da zuzendaria eta aktorea

A.E. | BERGARA

Gaur estreinatuko dute *Mugaldekoak* filma Euskal Herriko hiriburuetan eta baita Bartzelonan eta Madrilen ere. Mireia Gabilondo bergararra ibili da aktore eta zuzendari lanetan filmean. Gabilondoz gain, Fernando Bernues ere zuzendari lanetan ibili da.

**II. Mundu Gerra**

Tentazioak eta EITBk ekoitzi dute gaur estreinatuko den filma. II. Mundu Gerrara eta Comete sarearen historia nahiko ezezagunera hurbilduko ditu ikusleak lan berriak. Iparraldea, Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko mugan, herri txiki batean gertatutako benetako istorioan oinarrituta dago filma. Familia batek Alemaniako frontean eroritako hegazkin-gidariak jaso eta Ingalaterrara itzultzen lagunduko die. Horretarako, helburu arriskutsua duen sare klandestino batean nahastuko dira. Ahalegin horretan, Pirinioak zeharkatu beharko dituzte.

**2009ko udan grabatua**

Filma 2009ko udan grabatu zuten. Hasiera batean, filma izango zena grabatu zuten, eta ondoren, beste 13 kapitulu gehiago grabatu zituzten; telebistan eskaini zuten telesaila, hain zuzen.

"Espainiako gerra bukatu berri, hemen gerra ondorengo garaian sartuta geunden. Momentu historiko berezi hartan jende askok lagundu zien Ingalaterrako hegazkin-gidariei euren herrira itzultzen. 800 bat lagun izan ziren, eta film honen bitartez omenaldi txiki bat egin gura diegu", azaldu du Mireia Gabilondok.

Filma euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez grabatu dute. Gabilondok ikusleak animatu gura ditu: "Lehenbailehen joan daitezela zinemara, bestela filma kendu egingo dute karteldegitik".

> ESANAK
>
> **"Laguntzen ibili zirenak omendu gura ditugu filmaren bidez"**
>
> MIREIA GABILONDO | AKTOREA

## 'Errautsak' lanerako sarrerak astelehenean jarriko dituzte salgai

Apirilaren 3an, Artedrama, Le Petit Theatre de Pain eta Dejabu Panpin Laborategiak *Errautsak* lana eskainiko dute Oñatiko Santa Ana antzokian. Antzezlana 19:30ean izango da eta sarrerak salgai jarriko dituzte datorren astelehenean, martxoak 21. Euskararen Udal Patronatuak eta Donostia Kulturak antolatzen duten Donostia Antzerki Saria irabazi berri du lan horrek.

Sarrerak 10 eurotan egongo dira salgai 16:30etik 20:30era, hilaren 21etik aurrera.

## Patxi Saizek Antzuolan aurkeztuko du 'Itxaropena' diskoa

Gaur, egubakoitza, aurkeztuko du Patxi Saizek *Itxaropena* disko berria. 22:00etan izango da aurkezpena, Antzuolako Torresoroa aretoan.

Patxi Saizek euskal kantu tradizionalean eta bakarlarien tradizioan oinarritutako hamaika kantuz osatutako *Itxaropena* izeneko diskoa aurkeztuko du. Izan ere, jorratzen diren gai guztietan itxaropena da kantuen xede nagusia. Musikorta eta Noizbehinka estudioetan grabatu zuen diskoa 2010ean Saizek.



Txomin Artola eta Anje Duhalde Espaloian arituko dira. | GOIENA

# Artola eta Duhalderen rocka Elgetako Espaloian

ARANTZAZU EZKIBEL | ELGETA

Txomin Artola eta Anje Duhalde elkarrekin zuzenean entzuteko aukera izango da domekan, martxoak 20, Espaloia antzokian. Bakoitzaren errepertorioa birmoldatu eta Urbil Artola musikaria laguntzaile dutela, emanaldia egingo dute Elgetan. Formatu akustikoan lehengo kantuak eta berriak entzuteko aukera emango dute. Sarrerak salgai daude 10 eta 12 eurotan.

**Formatu akustikoan**

Artolak eta Duhaldek lehengo hainbat kantu ekarriko dituzte Elgetara; baita berriak ere.Formatu akustikoa, gertukoa eta elegantea eskainiko dute taula gainean esperientzia handia duten bi musikariek.

Txomin Artola gaztetan hasi zen musikan. Rock talde batean ibili ondoren, folk musikaren berpizte mugimenduan sartu zen eta geroago euskal kantagintzan –1970. urtean–. Azken garaian, bere seme Urbilekin batera ibili da Txomin Artola kantaldiak egiten.

Duhalde lapurtarra bateria jotzen hasi zen El Fuego taldean. Lehen disko txikia 1972an plazaratu zuen Daniel Landartek idatzitako bi kanturekin. Gero, 1975 inguruan Errobi taldea sortu zuen, Mixel Ducaurekin batera. Talde horrek arrakasta handia lortu zuen rock musikan.

Garai bateko kantu bikainak entzuteko aukera paregabea izango da domekan, hortaz.

# Glu-glu taldeak 'Cotillas' lana eskainiko du Zabalotegi aretoan

A.E. | BERGARA

Gorka Aginagalde eta Iñigo Sallenero aktoreek txutxu-mutxuen gainean jardungo dute gaur eskainiko duten antzezlanean. *Cotillas* lana eskainiko dute Glu-glu antzerki taldekoek. Helduendako lana izango da; antzezlana 22.30ean izango da, 5 euroren truke.

**Bi komikoren papera**

Bi aktoreak bi komikoren paperean sartuko dira; hala, pentsa daitezkeen egoera dramatikoenak barregarri bilakatu dituzte Aginagaldek eta Sallenerok.

Esku artean erabiliko duten gaia txutxu-mutxuak izango dira, taldekideek eurek esaten duten moduan, "kirol nazionala" dena.

Sexuen arteko ezberdintasunak, bikoteen arteko ezberdintasunak, hirukoteak, lagunak, animaliak, amaginarreba, edertasuna... gai horiek landuko dituzte antzezlanean, eta umorea ardatz hartuta ikusleen barre algarak ateratzea izango da Glu-glu taldearen asmoa.

**Bi komikoren papera**

Bilboko antzerki taldeak hainbat lan arrakastatsu egin ditu azkenaldian: esaterako, *Ama quiero ser lehendakari*, *Cocidito Madrileño* eta *Todos nacemos vascos*. Gaur egun *Vaya Semanita* lanarekin eta *Cotillas* lanarekin dabiltza herririk herri.



Aginagalde eta Sallenero dira protagonistak. | GLU-GLU



**Amaia Txabarri** | Narru artisaua

# "Prezio merkeetara ohitu gara, eta, eskuz egindako gauzak baloratuarren, ez ditugu ordaintzen"

**IMANOL GALLEGO** | ARRASATE

Amaia Txabarri (Arrasate, 1983) azken urteotan diseinu kontuetan murgilduta ibili da. Barne Diseinu ikasketak egiten zituen bitartean, narrugintza ezagutu eta zaletasun bilakatu zuen. Orain, Katalunia eta Arrasate artean ibili ohi da eta bi tokietan narruz egindako produktu mordoxka bat egiten jarraitzen du.

**Nolatan joan zinen Arrasatetik Katalunia aldera?**

Alde batetik, Barne Diseinu ikasketak bukatzeko asmoz joan nintzen; eta bestetik, mutil-laguna han nuen. Era berean, Katalunian diseinuaren mundua Euskal Herrian baino garatuago dago eta aukera ona zen niretzat hara hurbiltzea. Katalunia diseinu munduan pisu handiko tokia da. Hemen (Katalunian), eraikin bat egiteko orduan garrantzi handia ematen diote proiektu erabilgarri eta funtzionala sortzeari... eta kontziente dira honek espazio bati ematen dion ospe eta izenaz.

**Barne diseinuak eta narrugintzak ez dute konexio handirik, ezta?**

Bueno... bietan sormen handia eduki behar da. Egia da barne diseinuarekin hasi nintzela, baina, apurka-apurka, zenbait mintegiren bitartez narrua erabiltzen ikasi nuen eta ordutik hona nire zaletasun handiena da.

**Zaletasuna izateko, lan handia ematen dizu.**

[Barre] Hala eta guztiz ere, oso gustura egiten dudan gauza bat da. Askotan, pieza bat egiteko, astebete buru-belarri egon izan naiz, ordu mordoa, baina orduan ere oso pozik egiten dudan gauza bat da.

**Zure piezak originalak dira?**

Bai, ez dut manufakturarik egiten, eta, horren ondorioz, diseinu bakoitza ezberdina da. Gainera, urteekin esperientzia hartzen da eta lan osoagoak egiten dira. Narrugintzak ia edozer gauza egiteko aukera ematen du eta oso polita iruditzen zait beti gauza desberdinak sortzen buru-belarri ibili ahal izatea. Gustuko dut gauza ezberdinak egiten ahalegintzea, askotan gaizki irteten diren arren. Beti ikasten da zerbait berria.

**Zuk ze narru mota erabiltzen duzu?**

Nik behi narrua erabiltzen dut, gehienbat. Batzuetan, ardiarena ere erabiltzen dut. Tindatu egiten ditut; horrela, kolore ezberdineko lanak egin daitezke.

**Merkea da?**

Narrua oso garestia da eta ordu askoko lana da hura lantzea. Hori dela eta, produktuak nahiko garestiak izaten dira. Hori bai, oso kalitate onekoak dira! Nire ustez, gaur egun ez dago ondo baloratuta egiten den eskulangintza.

**Jendeak baloratzen du?**

Jendeak baloratzen du egiten dugun lana, baina oso garestia iruditzen zaie. Ohituta daude kataian egindako produktu merkeak erosten, baina uste dut baloratzekoa dela eskuz egindako produktuen kalitatea. Nire ustez, pieza bakoitza altxor txiki bat da, lan eta maitasun handiz egindakoak. Baina produktu bakoitzaren atzean ordu pilo bat dago. Nik ez dut josteko makinarik erabiltzen, dena eskuz egiten dut; artisau lan bat da. Jendea prezio merkeetara ohitu da, eta, eskuz egindako lanek txalo handiak jasotzen dituzten arren, gero horiek saltzeko zaila izaten da.

**Artisautzat daukazu zure burua?**

Uf... Ez dakit, ba, zer esan. Nire produktuak eskuz egiten ditut eta teknika zaharrak erabiltzen ditut egiteko, baina *artisau* hitzari errespetu handia diot.

**Erdi Aroko azoketan ibili zara?**

Ez, artisau azoketan bakarrik. Arrasaten, adibidez, santamasetako artisau azokan, emakume azokan... Toki askotan saltzen ditut nire produktuak, baina ez da lan erraza, postuak gastu asko izaten ditu-eta.

**Eta data horietatik kanpo, nola lor daitezke zure produktuak?**

Katalunia eta Arrasate artean ibiltzen naizenez, ez zen erraza gertatzen, eta horregatik *www.narrugintza.eu* webgunea sortu nuen. Orain, bertatik kudeatzen ditut jendearen eskaerak.



Amaia Txabarri santamasetako azokan, produktuak saltzen.

AMAIA TXABARRI

### MARRA AZKARREZ

**Ikasketak:** Barne Diseinua.
**Janari bat:** Gazta.
**Bizi izateko toki bat:** Arrasate.
**Bidaiatzeko toki bat:** Peru.
**Amets bat:** Pozik bizi izatea.
**Film bat:** *La vida es bella.*
**Txikitako oroitzapen bat:** Anaiekin gerratan jolas egiten.
**Liburu bat:** *La mujer habitada* (Gioconda Belli).
**Musika talde bat:** Fiachras.
**Abesti bat:** *New Age* (Blitz).

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Arrasate.** Alde zaharrean 65 metro koadroko etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, bainugela, egongela eta ganbara. 162.000 euro. Errentan emateko aproposa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 662 18 25 73

**Arrasate.** San Josepen. 47 metro koadro. Bi logela, komuna, sukaldea, egongela, trastelekua. Igogailua. Ekialdera ematen du. Etxabea da eta erreformak behar ditu. Idatzi mezu bat *etxerako-modukoa@gmail.com* helbide elektronikora.

**Bergara.** Martoko kalean etxebizitza salgai. 65 metro, berrituta eta eguzkitsua. Bi logela, egongela, komuna, bi balkoi eta sukaldea. Igogailua eta sotanoa. Interesatuak deitu zenbaki honetara:625 70 84 55

**Oñati.** 60 metroko etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. Bi logela, komun bat eta sukalde -egongela. Jantzia eta berritua. 186.000 euro negoziagarri. Deitu 20:00ak eta 22:00ak bitartean.699 78 47 49

**Oñati.** 84 metroko etxebizitza ederra salgai. 3 gela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Gainera 32metroko lorategia dauka, garaje itxia eta ganbara. Leku aproposean dago, denda eta ikastetxea ondoan baitauzka. Ingurune lasaia eta erdigunea 5 minutura dago.Interesatuok deitu zenbaki honetara: 667 46 64 86 .

**Oñati.** Bidebarrieta kalean 90 metro koadroko etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainugela, ganbara eta garajea. Interesatuok deitu zenbaki honetara:656 79 88 12

**Oñati.** Kalebarria 32an 80 metro koadroko etxebizitza ederra salgai. 9 urteko aintzinatasuna. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela handi bat. Igogailua eraikin berean garajeraino dauka. Kalitate handiko etxebizitza, diseinuzko altzariz hornitua. Prezio negoziagarria. Garaje itxia aukeran. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 622 42 83 18

**Oñati.** Kalebarria 54an, Etxaluzen, etxebizitza salgai. Sukaldea, trastelekua, bi balkoi, lau logela, bi komun, egongela edo jangela, ganbara, igogailua. Garajea aukeran. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 24 80 02

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Etxebizitza txikia ematen da errentan. Pertsona batentzako. Eraberritua eta erdi-erdian. Interesatuok deitu zenbaki honetara:616 75 41 30

**Arrasate.** Erguin auzoko Udalpe kalean etxebizitza ematen da errentan. Guztiz berritua. Jantzia. Berokuntzarekin. Egoera oso onean. Bikote batentzat egokia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 620 15 15 08

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, egongela, bi komun, igogailua eta berokuntzarekin. Interesatuok deitu: 680 48 94 04

**Marina D'Or.** Oropesa del Mar, Castello. Apartamentua ematen da errentan Aste Santu, Bergarako jaietan edo udako denboraldirako. Lehenengo ilaran. Bi logela, bi komun, egongela, sukaldea eta terraza handia. Itsasora begira. Aparkaleku plaza. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 75 62 51

**Oñati.** Etxebizitza errentan ematen da erdigunean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta igogailua ditu. Interesatuok arratsaldez deitu zenbaki honetara: 652 77 87 15

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan, hiru logelakoa. 600 29 05 24

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Pertsona euskalduna behar da erdialdean dagoen etxebizitza osatzeko. Jone.636 05 36 18

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje irekia salgai Loramendi kalean. 4,15x2,25 metroko neurriak. Deitu 943 79 93 77 edo 629 75 42 58 zenbakira:

## 3. LOKALAK

### 302. EROSI

**Bergara.** Lokal komertziala erosiko genuke. Bestela, lehenengo edo beheko solairuan dagoen etxebizitza. Ahal bada, San Lorentzo edo Matxiategi aldean.656 74 74 78 edo 605 76 32 72

### 303. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Herri erdian dagoen lokala ematen da errentan. Edozein negozio jartzeko aukerakoa.Deitu 943 79 10 96 telefono zenbakira.

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**ARETXABALETA**
Tximak
ile-apaindegian
ile-apaintzailea behar
da egun osorako.
943 79 83 64

**DEBAGOIENA**
Eskarmentudun
pertsona behar da bidaia
agentzian lan egiteko.
650 00 58 97
639 77 43 34

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Arrasateko neska euskalduna etxeak garbitzeko prest, esperientzia handikoa.618 41 24 79

**Arrasate edo Bergara.** Emakume euskalduna gertu orduka plantxa edo bestelako etxeko lanak egiteko.Deitu 699 54 17 27 telefono zenbakira.

**Arrasate eta** inguruko herrietan lan egingo nuke arratsaldeetan. Umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiten. Deitu 674 93 20 47 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Asteburuetan edo orduka lan egingo nuke ume zein nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan.Deitu 682 31 97 37 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Bertako emakume euskalduna, 52 urtekoa, lanerako prest. Nagusiak zaintzen aritua naiz.943 79 60 89

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

